




GIGARTEAK



12039



Euskal Biblioteka Labayru



1011099

LITERATURA / N. 3940

AITA BASABE — KEREXETA

Gurpide'tar Paulo

Bizkai'ko

Gotzain jaunari,

Kerexeta'tar Jaime<sup>3</sup>k

1963, Gabonilak 24



GOGARTEAK

**SAN IÑAZIO'REN  
GOGO - JARDUNETARAKO**

**GOGARTEAK**

**\* \* \***

**JESUS'SEN LAGUNDIKO  
BASABE'TAR KANDIDO AITAK  
EUSKERAZ AZALDUTA,  
eta  
KEREXETA'TAR JAIME'K  
ZUZENDU TA ATONDUTA.**

---


**(Irugarren argitarapena)**

**1963**

NIHIL OBSTAT  
*Lic. A. Cruz de Omaetxebarria*  
Censor Eccl.

IMPRIMATUR  
*Dr. León M.<sup>a</sup> Martínez*  
Guber. Eccl.  
Bilbao, 1 decembris 1962

Depósito Legal. BI 2.389 - 1963



LENENGO ASTEA  
**LENENGO GOGARTEA**  
GIZONAREN JATORRIA TA ELBURUA  
LENENGO ATALA

*Gizona, Jaungoiko gure Jaunak sorturikoa da.*

Orain ogei, berrogei, irurogei urte dirala, nun nintzan ni? Neure errian? Ez! Erbestean? Gutxiago! Iñun be ez nintzan, Ezer ez nintzan. Nire etxe-ondotan ebillen txoritxo, ni baiño geiago zan; a, bizi zan; ni, ez. Nire etxearen sarrerako arri-maillea, ni baiño geiago zan; a, ba-zan; ni ezertxo be ez nintzan.

Orain arima ederra daukat, Jaungoikoa'ren beraren antzera egiña; gorputza bere begi, belarri, miin, esku, oin eta beste zati ain eder, bakoxta bere tokian ain egoki ezarritakoakaz. Nok emon daustaz? Gurasoak? Gauza bat egiteko, zenbat zati daukazan jakin

bear da. Jakitunik ete-dago munduan gizonaren gorputzeko zati guztien barri dakianik?

Guraso bakotzak bere semeari esan daikeoz, Maka-beo'ren amak bere zazpi semeai esan eutsezan berba eder oneik: «Ez dakit nik zelan agertu zintzazen nire sabelean; ez arimarik, ez bizirik nik ez neutsuen emon-eta; zuen gorputzeko zatirik, be, ez dot ipiñi bakotxa bere tokian. Munduaren Egilleak, gauza guztiai asiera emon dautsenak baiño...».

Bai! Jaungoiko aundiak egin nau, beste zenbatu ezin-ala ezer-ezeko illunpe itzaltsuan itxita. Jaungoikoa'k bere eskuz, mundua egiten erabili ebazan eskuz egin nau. Guztiok esan daikegu Job santuak Jaungoikoa'ri zirautsana: «Zeure eskuak egin nabe, ta nire inguru guztiak taiatu daustez. Ez nenduzun gaztaia lez gogortu? Azal eta aragiz jantzi nenduzun, azur eta zanez ornitu; bizia ta errukia emon zeustazan».

Jaungoikoa da, ba, nire Aita. Au poza! Augaitik, berez, bere izatearen indarrez, aitak semea lez, maite nau, etxeko aitak baiño neurri bagarik geiago. Berak eukiko dau nire gorputz eta arimako bear-izanen ardurea; Bere amaibagako ondasunak, be, neuretzat.

Begirutzen dot Jaungoikoa aita bat legez? Maitatu, goretzi ta gurtzen dot aita bati dagokionez? Esaneko naiako?

Damutu, parka-eskatu ta erabagi aurrerantzerako. Jaungoikoa da nire aita; urlia ta berendiarena be bai; baita guztiena be. Beraz, gizon guztiok Aita bat

daukagu; beraz, guztiok anaiak gara. Onela ikusten dodaz? Onela maitatu ta lagundu?...

Jaungoikoa'k egin ba'nau, norena izango naz? Ikusi dagigun. Etxea, maia, edozer, norenak izan oi-dira? Egiten dabezanarenak. Gizon batek soloan ipiñiriko sagar-zugatzaren arnari edo ekarriak, norenak izango dira? Bereak. Jaungoikoa'k egin nau? Jaungoikoa'rena izan bear. Jaungoikoa'k bakarrik egin nau? Jaungoikoa'rena bakarrik izan bear, ez gurasoena, ez lagunena, ez besterena. Jaungoikoa'k emon bagako zatirik ez daukat? Beraz, gorputzeko naiz arimako zatiren bat artuta, ezin esan daiket: «Au neurea dot; zati oneaz nai dodana egin daiket».

Sartu, ba, ondo zeure barruan egi andi ta on-egille au: «Ni Jaungoikoa'rena naz, eta Jaungoikoa'rena bakarrik, oso-osorik Jaungoikoa'rena, betiko Jaungoikoa'rena. Jaungoikoa'k edo bere ordecoren batek izan ezik, ez dauko nigan aginpiderik. Nire zentzun eta almenen ekarriak (frutuak), Jaungoikoa'renak dira. Gogapen edo pentzamentu txikiak be ezin euki daiket.

Ez dot, Jauna, orain arte lez, lapurra izan nai, zeuk zeure eskuz ipiñi dozun zugatz (arbola) onen ekarriak neuretzat artuta.

Emon egidazu argia Zure guraria ezagutzeko, ta indarra neure bizitza guztian beteteko. Lotu nagizu nazan au zeure gurari santuaren katez, kate ori baiño bigunago, ongilleago ta askatzailleagorik ez dago-ta.

## BIGARREN ATALA

*Gizona, Jaungoikoa goretsi, gurtu ta otseintzeko (serbitzeko) sortua da.*

Ikusi dogunez, gizona Jaungoikoa'k egin ba'dau, zerbaiteko egin dau; norbaitek gauzak egiten dauzanean, zoroa ez ba'da beintzat, beti dauko asmoren bat-eta.

Zetako egin ete-nau, ba? Jaungoikoa'k ezin ezer egin daike, al danez zorioneko izateko ez ba'da. Ikusi daigun, ba, zetan dagoan gizonaren zoriona; ta gizona Jaungoikoa'k aretarakoxe egin dauala erabagiko dogu.

Aberatsa izatean ete-dago, ba, zoriona? Onela uste izaten dabe askok, batez be beartsu edo pobreak; eta aberatsen bat ondo jantzita ikusirik, euren barrurako esaten dabe: «orrena bai zoriona!».

Baiña aberatsak, benetan ete-dira zoriontsu? Bere bearrizan guztiak beteten dauzana da zoriontsu, zernai ta axe daukana, asetuta dagoana. Eta aberatsetatik bat bere ez dala orrela aurkitzen, nok ez daki? Geisoa, bakerik-eza ta beste milla bearrizan dagoz diruaz bete ezin daitekezanak. Amaika bidar aurkitzen dira orren artean munduak ain zoriontsu daukazanak, sedazko jantzi barruan, atsekabez milla zati egifiko biotzak!

Ez dago, ba, aberastasun utsetan benetako zorionik: beraz, ez dau Jaungoikoa'k orretarako bakarrik gizona egin.

Aragiaren atseginetan egongo ete-da gizonaren zo-

riona? Jaungoikoa'ri ta gizonari zor yakon izen onagaitik, ez! Orretan ba'lego gizonaren zoriona, milla bidar obe litzake abere edo animali izan: abereak geiago atsegintzen dira; ta gaiñera, ez dirurik, ez osasunik, ez bakerik, ez izen onik galdu bagarik, orrelako atseginetara etzaten diran gizonai gertatzen yaken legez.

Beste gauza guztiak banan ikusita be, beste onenbeste esan bear izango geuke. Eta naiz-ta diranak batu, ta gorde, ta estutu, Salomon'ek lez, barruan dauken zorionaren ezti guztia atarateko, berak lez esan bear izango geuke: «Guztia arrokeria ta uskeria baiño ez dala ikusi neban. Guztia uskeria ta arimako samifia».

Ez al-da au egia, neure arima maitea? Amaika bidar uste izan dozu: gauza a edo bestea ba'neuko, zoriontsu izango nintzake. Alegin askoren ostean jarritsi zenduan. Bete eutsun zure biotz txiki ori? Eta oraindiño ez zara aspertu, umeak mitxeleta (mariposa) atzean legez, mundu onetako gauzen billa ibilteko? Ez dozu oraindiño ikasi munduko aberastasun, atsegin eta beste gauza guztiak, gatzak egarri danari egiten dautsana baiño ez dautsuela egiten, eurakanako egarria geitu?


Ez dakizu, Jaungoikoa'k Beretzat egin dauan biotz ori, ezta mundu biribil osoaz be, ez dala asetuko? Orrenbeste alegiñez billaturiko gauzea jaritsita, barruan aurkitzen dozuzan utsune ta biotzeko samin-tasanak, ez ete-dakizu zer esan nai daben? Orren maite izan dozuzan gauzak, biotza ezpata bat azu-

laturik igarota, esku-artetik igeseran, ez dozu entzuten barrez eta destaiñez dirautsuen au: «A, zoroa, burubagea! Zetan zatoz gugana? Noiz ikasiko dozu ez zarala guretzat egiña? Tira, tira!, zoaz Jaungoikoa'gana; Beragan aurkituko dozu gugan alperrik billatzen dozun zoriona!».

A, Jauna, egia da; neure adimenak, neure biotzak, besteen jazokunak, maite izan dodazan gauzak, eta, batez be, utsik ezin daiken Zeure berbeak, sarritan esan dauste ez izateko zoroa, ez izateko neure buruaren arerioa; nire zoriona Zeugan billatzeko, ta ez bestegan. Baiña guztien deadarretara gortuta, neure griña zitalai jaramon eginda, gauzarik-gauza ibilli naz neure zorionaren egarria asetzearren.

Nire itsukeria, nire esker txarra! Zeuk ni goratu nozu, Zeure aingeruai emon zeutsen elburua izentaurik; Zeuk, Zerrorek, daukazuna berbera, Zeu ezagutu ta Zeu maitatzeko arazo aundi, eztitsua erakutsirik. Eta nik neure burua beeratu, abereen elburua neure elburutzat artuta, eurak baiño be beta-rrago, aragikoiago egiten nazala?

Uts egin dodala ikusten dot, bai; artzaiñagandik sasirik-sasi galduta dabillen ardiaren antzeko izan nazala; ta banatuta, biotza atsekabez zatituta, Zeugana nator, Jesus, Artzain On Orregana; artu nagizu, lotu nagizu, barriro Zeugandik aldendu ez nadin; neure adimen, biotz eta izate guztia Zeugan ipiñita, orain arte alperrik billatu dodan zoriona Zeugan aurkitu dagidan.



## BIGARREN GOGARTEA

SALBAZIÑO A

LENENGO ATALA

*Salbaziñoa, bear-bearreko da.*

Urarentzat bustitea bearreko da; suarentzat, erretea; matsarentzat, mats-mordoak emotea: euren elburua orixe da; orretarakoxe egin dauz Jaungoikoa'k. Ain bearreko da gizonarentzat be salbatzea: orretarakoxe egin daualako Jaungoikoa'k, ura bustiteko, sua erreteko ta matsa mats-mordoak emoteko lez.

Bustiten ez dauan ura, ez da ura be; salbatzen ez dan gizona, esate baterako, gizona be ez da. Mats-mordorik ez dakarren matsa, alperrikoa da, sutarako baiño ez da. Salbatzen ez danak, naiz-ta mun-



duko aberatsena, jakitunena, entzutetsuena izan, alperrik emon dau bere bizitza, inpernuko sutarako baiño ez da, obe litzakio jaio ez ba'liz.

Urte gutxi barru, oge baten etzunda aurkituko naz, arnas-oska, munduaren eta betikotasunaren erdian. Zer uste izango dot orduan, euki dodazan aberastasan, atsegin eta beste munduko poz eta uskeri guztiai buruz? Eta alan eta guztia be, euren atzean nabil, gau ta egun geratu bagarik, ainbeste alegiñez, beste egitekorik ez ba'neuko lez, neure arimatxo au zokondo baten, mantar zatarra lez, bazterturik itxita?

Negargarria benetan onelakoen egokera! Jesus'en Biotzak artzen dauan samiña! Begiratu dau Jesus'ek lurbira osoa; or dakus (ikusten dau) Berak egin dauan gizona, Bere odolez erosi dauana, Beragandik al-denduta, Bera baiño mundua maitiago dauala; eta abere bat lupatzetan legez, mundu onetako atsegiñetan sartuta ikusirik, Bere Biotz samur guztia atsekabeturik, ba-diño: «Zer dautso gizonari mundu guztia irabaziarren, bere arimea galtzen ba'dau?» Au da: gizonitsuak, lurkoiak, zetan diarduzue orren zoraturik lur onetako gauzen atzean? Batuko al izango dozuez, ba, munduko aberastasan eta atsegin guztiak? Eta guztiak batuta be, izango al dira betiraunekoak, zure arimea lez? Eta betiko ba'litzaz be, beteko ete-leuskizue zuen biotzean Niretzat daukazuen utsunea? Baiña ondasun eta atsegin guzti orreik ez dozuezala batuko jakiñik, eta guztiak batuarren be ez dirala betikoak izango, eta betikoak

ba'litzaz be ez leuskizuela biotzik beteko jakiñik, zetan diarduzue orren alegin aundiz euren atzean, Ni, zeuen eskuetan naukazuen benetako ta beti rauneko zoriona nazan au, bazter baten laga-ta?

Eta zuk, ene arima maite orrek, zetara zuzentzer dozuz zure alegiñak? Zeren atzean diarduzu? Lurreko gauzen atzean ibilli zaran aldi guztia, alperrik galdu dozu; zeure arimea salbatzen emon dozun aldia, axe bakarrik emon dozu ondo. Ia, ba, aurreantzean zuzen darabizun!

Arimea salbatzea! Auxe bai dala zure benetako arazoa, arazo nagusia, bakarra! Beste arazo guztiak txarto urtenda be, onek ondo urteten ba'dautsu, guztia irabazi dozu; eta beste guztiak ondo urtenarren, barriz, onetxek bakarrik urten ezker txarto, guztia galdu dozu.

Begoz, nai daizanarentzat, ondasunak, atsegiñak, baita osasuna bera be: niri ez ukatu, Jauna, neure salbaziñoa. Andra Mari santu-santua: salbauko diranen itxaropena Zeu zarean ezker, salbau nagizu!

## BIGARREN ATALA

*Arima bat baiño ez daukat-eta, salbau egin bear dot.*

Osasuna naiz ondasunak galduarren, nundik edo andik barriro etorri leitekidazala itxaron daiket. Baiña arimea bein galdu ba'dagit, betiko galduko dot. Salbaziñoa, bein bakarrik jokutzen da!

Gaiñera, esku bat naiz oin bat ebagiten ba'dauste,

beste batz geratzen naz; begi bat galduarren, beste bat daukat. Baiña, zenbat arima daukadaz? Bat, eta bera, bakarra. Eta arima bat bakarrik euki, ta bera bein galtzen ba'dot, betiko galduta egon, eta bera galtzea, guztia galtzea izan; eta alan eta guzti be, onen ardura gitxikoa naz? Onen gutxi estutzen nau pentzamentu onek?

Alemania'ko Agintari Nagusiaren zaldun batek, pekatu bagarik ezin emon eutsan eskari bat egin eutsan Amabigarren Benito Aita Santuari; eta Aita Santuak erantzun eutsan: «Esan egiozu Agintariari, arima bi ba'neukez, bata emongo neuskiola berari, ta besteaz neu geratuko nintzakela; baiña bat bakarrik daukadan ezker, neuretzat gorde bear boldala».

Auxe berau erantzun bear dautsat, ba, neuk be, norbaitek, naiz adiskidea dala naiz ongillea, aita, zein ama izan, pekatu bagarik ezin emon daikeodan gauzaren bat eskatu daistanean.

## IRUGARREN ATALA

### *Salbatzēa, gauza gatxa.*

Arimea salbatzea, arazorik aundiena izanarren, erraza ba'litz, ez litzake ain arrigarria izango, gizonak ainbeste aztuta eukitea. Baiña, erraza ala gatxa da arimea salbatzea? Esan daigula Jesukristo gure Jaunak. Ikasleek itandurik: «Jauna, gutxi al-dira salbatzen diranak?», erantzun eutsen: «Ate estutik

sartzen alegindu zaitetze». Estua deitzen dautso Jesukristo'k zeruko ateari; munduak zabala dala diño: nori siñistu bear dautsagu?

Eta beste bein: «Ate zabala ta bide nasaia da galdumendirakoa, ta asko dira andik sartzen diranak. Benetan ate estua ta bide mearra bizitzara daroana!, ta gitxi dira aurkitzen dabenak».

Estutu egiten zaitu egi garratz onek? Bizkortu ta poztu be egin bear zaitu. Ez dautsue esaten munduzaleak, zegaitik joaten zaran orren sarri jaunartzera? Zegaitik alde egiten dozun besteak doazan arriskutokitik? Eta ez dirautsue orretzegaitik bakan (raro) bat zarala, beste guztiakandik igesi zabizala? Poztu zaitze! Gitxi doazan bidetik zabiz, zalbaziño bideitik zabiz. Beste batzuek, autorrentzuleak (konfeso-reak) naiz gurasoak esandakoan: zegaitik zoaz orra-ko edo alako batzar naiz bidetara?, erantzuten dautse: «Beste guztiak be an izaten dira». Bai? Asko dabizan tokitik zabiz? Bide zabaletik zabiz, inper-nuko bidetik.

Lenengo aldietako kristauak egunero jaunartzen eben. Guztien biotza, bakarra zan, baita gogo bere, ta guztiak alkar oso maite eben; eta iño ez eukan beretakorik ezertxo bere: guztia guztientzat eben, otera. Eukezan etxe ta enparauak saldu, ta euren dirua Apostoluen oiñetan jarten eben, gauza uts bat legez (1). Orreik bai eukiko ebela eskuan euren salbaziñoa! Bai? Zer zirautsen San Paulo'k?: «Zuen

(1) Apostoluen Egiñak, 4, 32-35.

osasan-arloa bildur-ikaraz azkeneragiño eroaten alegindu zaitezze».

Onelako santuak bildurrez bizi bear ba'dabe, zer egin bear izango ete-dogu guk, pekatariok?

Eta Elizako Guraso Santuak, zer dirauskue? San Jeronimo, bere arimea salbatzearren, bakartegira joan zan; an, gitxi jan, gitxi lo; gorputzeko azala azurren gaiñean ebala biziarren, arimearen kontra jagi ez zedin, arri aundi bataz jo ta menperatzen eban. Gero, Elizaren arerioai gogor eutsiteko, orduan ezagutzen ziran libururik geienak irakurri, berak be beste barri asko egin, Elizari ainbeste lagundu dau-tsan Anaidi (Ordena) bat asmatu...; ta arela ta guzti be, ba-dakizu zer iñoan zartzaroen? Eskuan eukala zerua? Ez, ez! «Ni —diño—, pekatari errukarri au, bildur-ikaraz nago, noiz etorriko ete-yatan pentza-mentu, gurari, berba ta egikizun guztien kontu estua emon bear izango dodan ordua. Durundi egiten daust neure belarrietan juizioko turuta (tronpeta) ikara-garriak».

Ai, nire errukarria! Santuak bildur dira, ta ni, pekatariau, ez? Mundutik urrun bizi diranak bildur; eta ni, pekatua baiño ez ikusi, ez entzun egiten ez dan lekuan, aizea bera pekatuz atsituta dagoan munduan, bildur ez? Zarrak, odola ilda daukenak, bildur; eta nik, pekatuaren berotasunaz odola irakiten daukadan onek, bildurrik ez? Nundik datorrit, pe-kataria izanda, santuak ez euken ziurtasun au? Zenbat bidar, ene arimea, dar-dar ipiñi zaitu gomuta onek: SALBAUKO ETE-NAZ? Zenbat bidar loa galdu

erazo dautsu? Ezagun da, motela be motela da nire sinismena!

Auzi bat daukagunean, beti gagoz estu, lorik be sarritan egin ezinda. Ba, geure salbaziñoako auzia daukagu, guztiok betiko zorioneko ala zorigaiztoko izango ete-garan; eta, zelan bizi gara zabal-zabal, zelan egiten dogu lo bake-bakean, pekatuan egonda?

## LAUGARREN ATALA

*Nai ba'dot, salbauko naz.*


Arima estua! Zabaldu, poztu zaite! Arimearen salbaziñoa gatxa da, egia! Baiña Jaungoikoa'ren laguntasunaz, nai ba'dot, eskuan daukat. Aberatsa nai izanarren, askotan ezin izan; osasuna naiz bakea opa izanarren, ezin euki. Baiña, salbau nai dozu? Salbauko zara. Eskerrak, Jauna, bear-bearren doguna, zure laguntzaz, geure eskuan itxi dauskuzulako. Akino'tar Santo Tomas'i auxe itandu eutsan bere arrebeak: «Jakituna zara-ta, esan eidazu: salbatzeko, zer egin bear dot?» «Nai izan», erantzun eutsan.

Bai! Baiña benetan nai izan! Eta nik benetan nai dot salbau? Ez dagidala erantzun miñiak; egintzak erantzun dagiela. Zer egiten dot, ba, salbatzeko? Pekatu astunean jausten naz? Ez dot arriskuetatik iges egiten? Sakramentuetan emoten diran indarbideak, ez dodaz artzen? Ez dot nai salbau! Egiten dozuz gauza oneik? Poztu zaite! Gatxa da salbatzea, baiña

orretara ba'zoaz, zeure barruak berak, edo obeto esateko, zeure barruan daukazun Espiritu Santuak, emongo dautsu ziurtasuna, (onelako gauzetan euki leikeanez), bakean biziteko bestekoa. A!, ez dago ziurtasun ori lako eztegurik! Munduko jolas eta atsegin guztiak baiño gozoago ta ezitsuago da.

Auxe izan dadilla, ba, neure pentzamentu nagusia: «Neure arimea salbau». Galdu dadilla, bear ba'da, osasuna, ondasunak, etxea; baiña neure arimea ez. Burdiña gori bataz idatzi (eskribidu) bear geuke guztien bekokietan: «Salbau zaite». Etxeko ormetan, be, letra andiakaz ipiñi bear geuke: «Salbau zaite». Ogerakoan auxe izan dadilla gure gogaketa; ogetik ja-gieran, ekarri oster a be gogora; euki egi aundi au buru-biotzetan ondo josita: salbatzen ba'gara, guztia irabazi dogu-ta; kondenatzen ba'gara, barriz, guztia galdu dogu.

Jesus, ene Salbatzaille maite ori, salbau nagizu! Ni salbatzearren, zerutik lurrera etorri zintzazan; ni salbatzearren, ainbeste zigorkada artu zenduzan, arantzazko koroï zorrotza ezarri eutsuen, gurutzea bera eroan zenduan! Ez daitezala, ba, ainbeste neke alperrik galdu! Lapurrari entzun egin zeutsan aren eskaria, baita Maria Madalatarrari parkatu be: parkatu niri be nire gaiztakeri ta pekatuak, eta salbau nagizu. Andra Maria! Salbatzen diranak, Zeuk lagunduta salbatzen dira; Zure guraririk biziëna, Zeure semeok salbatzea da; salbau nagizu, ba; mesede aundi onen eskerrak emoten, Zeure ondoan egon naiten betiraun guztian.



## IRUGARREN GOGARTEA

BESTE IZAKI EDO GAUZA GUZTIEN ELBURUA

### LENENGO ATALA

*Izaki guztiak Jaungoikoa'k gizonarentzat egin dauz.*

Zetako egingo ebazan Jaungoikoa'k ainbeste izaki? Ez Beretzat, ez daukan gauzarik emoteko, guztia dauko-ta. Aingeruentzat be ez, gogo edo espiritu utsak izanik, ezin bete daikeoez arein bearrizanak gorputza baiño ez dauken munduko gauzak. Beraz, gizonarentzat bakarrik egin dauz. Eta alan ikusten dira zein egoki datorkiozan: batzuek, jatekoa naiz edatekoa emoten dautsoe; soñekoa besteak; onek, arerioakandik bere burua zaintzeko dauz; arek, jolas egiteko, ta abar. Orretxegaitik, mundua gertuta gero sortu eban gizona Jaungoikoa'k; eta orretxegaitik

azken-juizioan, gizona mundutik atara dagianean, mundua be ezereztu egingo da. Mundua gizon bagarik, jaube bagako jauregi eder bat baiño ez da.

Begiratu, ba, zein maite izan zaituan Jaungoikoa'k, eta zein aunditzat zaukazan, jauregi ain eder, apaindua, zeuretzat egin dauan ezkerero. Zer dauke ikustekorik munduko errege ta agintari guztiak eurentzaz egin dabezan jauregiak, Jaungoikoa'k zuretzat egin dauan onen ondoan?

Jauregi ain ederra eginda, artu eban Jaungoikoa'k Adan, erakutsi eutsazan munduaren aunditasun eta edertasun guztiak; ta gero, gudari edo soldauak errege ta agintari nagusien aurretik igaroten diran antzera, abere (animali) guztiak banan-banan bere aurretik igaro erazota, bakotxari bere izena ezarteko esan eutsan, izena ezarteaz, eurakan eban jaubetza adierazoteko.

Jaso, ba, ene arima orrek, zure begiak zeruruntz; eta ainbeste izar eder ikusi dagizuzanean, gogoratu arein kiñuakaz esaten dautsuela: «Urlia!, zeureak gara, zure ta gure Jaunak zeuretzat emonikoak». Luzatu gero zure ikusmena inguru guztietara; ta aizea egartziz orniduta ikusirik, lurra prizti ta zugatzez, lora ta arri ederrez apainduta; itxasoa ainbeste ur eta bertan dabizan arraiñez beteta, edertuta, entzun eurok dirautsuena, San Agustin'i lez: «Begiratu zenbat eta zein ezbaridiñak, zein ederrak egin gaituan Jaungoikoa'k; baiña guztiok, zeuretzat».

## BIGARREN ATALA

*Lurraren gaiñeko izaki guztiak gizonarentzat sortuak dira, izēntatuta daukan elburua jaristen lagundu dagioen.*

Ikusi dogunez, Jaungoikoa'k gizonari Bera goretsi, jauretsi ta otseintzea izentatu dautso elburutzat.

Orretarakoxe zuzentzeko zelanbait emon izango dautsaz, ba, izaki guztiak; bestela, alperrikoak izango litzakioz; geiago oraindiño, kaltegarriak, eurentariko askok aldendu baiño ez dabe egiten eurenez-ta.

Beraz, guztiak, zelan-alan, lagundu al izango dautse gizonari onen elburu au lortzen: zeruak, euren izarrakaz; aizeak, bere otz-bero ta egaztiakaz; itxasoak, bere arraiñakaz; gizonak, euren al-izate naiz ezerezaz, edertasun eta itxusitasunaz; gurasoak, senideak, lagunak, adiskideak, auzokoak; erria, bizi-bidea, aberastasuna, ezeukia, osasun-geiso, atsegin-atsekabe, besteen ezin-ikusi, gauzen oker-etorte ta bizitzako beste gorabera guztiakaz; baita neure izakera edo jenio txar eta neure etxekeona be. Ez dago iñor, ez ezer, elburu onetara zuzendu ezin daikeanik, Jaungoikoa'k onetarako egin ez dauanik.

## LAUGARREN ATALA

*Elburu au jaristen, zelan laguntzen dautsoe?*

Iru eratara laguntzen dauskue izaki guztiak gure elburu onetarako.

*Lenengo: Jaungoikoa'gana gogoa jasota.*—Ez dago ezer lurrian, dan txikienik eta itxusienik be, edertasun geiago edo gitxiago Jaunagandik artu ez dagianik. Beraz, edertasun ori erakustean, deadar egiten dauskue esanaz: «Emen zein ederrak egin gaituan Jaungoikoak; ikusi zein ohea izango dan Bera». Olan, ba, gauza guztiak laguntzen dauskue Jaungoikoa ezagutu, goretsi ta jauresten.

*Bigarren.*—Gauza guztiak laguntzen dauskue elburu onetarako, *neurritz artuaz*. Esate baterako: jatekoa artzen dot, naiz loa, naiz jolastea, Jaungoikoak nai dauan eraz, au da, biziari, osasunari eta indarrai iraun erazoteko; ta jatekoak, loak eta jolasak, Jaungoikoa otseintzeko ta Aren gogoa beteteko laguntzen dauste.

Au, gauzak atsegingarri daitezenean. Mingarri izan ezkerro, barriz, eutsiaz, igaroaz, laguntzen dauskue. Geiso bat datorkit? Eutsi!, eta Jaungoikoagana naroa. Otz naiz bero naz? Ez daukat nai neukenik? Txarto egin dauste? Eutsi!, ta ezek baiño obeto erango nau Jaungoikoagana.

*Irugarren.*—Baiña ez dagoz gauza asko, Jaungoikoagandik aldentzeko biotzetik tira egiten dauskuenak, orretarakoxe egiñak bai-litzazan? Oneik be Jaungoikoaganako laguntzaille doguz! Baita? Zelan? *Eurakandik geu urrunduz*. Lagun txar bat daukazu? Urrundu beragandik, eta Jaungoikoagana urreratuko zaitu. Biotzean su txarra iziotzen (biztuten) dautsun zerbait ikusten dozula? Urrundu!, berak zeu Jaungoi-

koagandik aldendu baiño lenago; ta Jaungoikoagana igoteko malladia (eskillarea) izango dozu.

Ai, Jauna! Ondo gogo biziz nai dozu gure salbaiziñoa, bera jaristeko ainbeste gauza ta ain ederrak eta ain aundiak sortu dauskuzuzanean! Eta zelako eskerrak ez dautsudaz zor izango, Zeugana igoteko onenbeste bide ipiñi daustazuzan ezkerro? Eta onenbeste emon, eta zerbait geiago emon ez daustazulako, Zeure kontra, ta onenean, birauka abiauko naiatzu?

Alperrikoak dira nire akiakula ta atxakiak, ona ez nazalako errua ezarten dautsedanean ezeukiari, geisoari, etxekoai, auzokoai, izakera (jenio) txarrari, naiz beste edozeri. Guztiak, okerrik geien dakarsten gauzak, aize gogorra poparian daroan ontzientzat lez, zeure kai edo portu gozatsura ariñago eroateko baiño ez dira. Laguntzen ez ba'dauste, ta ara eltzeko niretzat eragozpen ba'dira, neurea da errua, bear diranez, Jaungoikoak nai dauan lez, artzen ez dodazalako.

## LAUGARREN ATALA

Jakin daigun, diño San Iñazio'k, esandako izaki guztiok bear danez artzen: Zelan laguntzen dauskuen gure elbururako? Arelaxe artu. Zelan elburu ori lortzen galerazoten dauskuen? Arelaxe eurakandik aldendu.

Lur-gaiñeko izaki guztiak gure elbururako bitarteko baiño ez dirala ikusi dogu. Bitartekoa, barriz, *zelan* laguntzen dau elbururako? *Arelaxe* artzen da.

Esaterako: aizkorea, ebagiteko izanik, zelan laguntzen ebagiteko? Arelaxe artzen da. Baita jostorratza ta beste gauza guztiak be: zer egin nai dogun begiratu, ta orretarako egokienak artzen dira; laguntzen ez dauana, itxi, laga; ta ondoen laguntzen dauana, artu.

Gure elburu onetarako izaki guztiak bitarteko izanik, ederto erabagiten dau San Iñazio'k: *Zelan* laguntzen dauskuen gure elburu onetarako? *Arelaxe* artu bear doguz.

Orregaitik, diñosku San Iñazio'k, bear-bearreko da, geure aukeraz, au da, gebendu edo proibidu baga, daukaguzan izaki guztietan, batera ez bestera egiteke, erdian egoteko alegin egitea; osasuna, geisoa baiño geiago nai izan bagarik; aberastasuna, ez txirotasuna, ez izen ona, izen txarra baiño geiago; ez bizitza luzea, laburraren gaiñetik; berba batez, izentautau daukagun elburura ondoen zuzentzen gaituana bakarrik nai izan eta artu.

Argi ipiñi dauku San Iñazio'k, lurreko izaki guztiak, elbururako bitarteko izan ezik, orretarako laguntzen dauskuenez artu bear doguzala.

Eta, len ikusi dogunez, eurak *arturik*, lagundu egiten dauskue batzuetan; beste batzuetan, barriz, eurak *itxirik*. Ikusi: gauza bat datorkit, eta ez dakit artuaz ala itxiaz lagunduko daustan. Gauza onetarako, zelan egon bear dot? Emen San Iñazio'ren erantzuna: ez artu ez itxirik, aztakin (pisu) baten antzera, *erdian*, ez batera ez bestera egin baga, artuaz ala itxiaz, lagundu egiten daustan ikusi arte.

Bat Bilbo'ra doa; joan doala, bide bi aurkitzen dauz; ez daki zeñiek eroango dauan obeto. Zer egiten dau? Ez bata ez bestea artu, uts egin ez dagian; Bilbo'ra joateko obeto laguntzen dauksan bidea zein dan, norbaitek agertu arte. Salbaziñorako bidean be, orrexenbeste egin bear dogu.

San Iñazio'k diñoana gauza argia ta bidezko izanik, erraz da esaten: Bai, egia da; aurrerantzean, *zelan* salbaziñorako lagundu, *arela* artuko dódaz gauza guztiak, ez bestela.

Baiña gauza guztiak batean artuta, erdiratuta gagozala erraz da esaten; ta onelako utsik emon baga, erdirapen (indiferentzia) onetan zelan gagozan ikusteko, lau gauza, berezienak, jarten dauksuz San Iñazio'k, esanez: «Gure aldetik, ez dogu osasuna geisoa baiño geiago nai izan bear; ondasunak, ezeukitea baiño geiago; entzute ona, entzute txarra baiño; bizitza luzea, laburra baiño geiago: izentautau daukagun elburura ondoen zuzentzen gauzana bakarrik nai izan eta artu».

Ez diño Santuak osasuna ta aitatu dauzan beste gauzak, ez doguzala zaindu bear; gutxiago oraindiño, osasuna batetik eta geisoa bestetik aurrez-aurre ipiñita, arri bat lez geratu bear dogula, osasunaganako zaletasuna ta geisoaganako iguiña izan bagarik. Berak diñoana, auxe da: datorkigun geisoa, salbaziñorako on dala ikusi ezkeru, artu egin bear dogula, aragiaren kontrako izanarren, osagarri mingotsa emoten yakon umearen garraziai baiño jaramon geiago egin bagarik. Eta onelaxe esan diran

gauzetan eta beste guztietan; aragiak zer nai dauan edo ez dauan begira ibilteko ez gagoz munduan-eta, geure arimea salbatzeko bakar-bakarrik baiño.

Egi onetantxe jarri eban San Iñazio'k bere santutasun sakonaren oiñarria. Egi au barruan sartu yakonetik, ez eban aldendu bere egikizun, asmo, atsekabe, ibillera, berba ta pentzamenturik txikienetan be. Ormagiñiak berunaz legez, beronaz negurtzen ebazan Jesus'en Lagundiko jauregia egiteko ipinten ebazan arririk txikienak be. Guztia, AD MAIOREM DEI GLORIAM: Jaungoikoa'ren osperik aundienerako; au da; neure arimea ta besteena be salbau ta santutasun aundira eroateko. Egi eder eta indartsu onen bidez, lengo gizon zarra ezereztu, ta aren tokian beste gizon barri ta zerukor bat ipiñi ebalasana daiteke. Benetan bai onetsiko (bedeinkatuko) dautsala Jaungoikoak zeruan, egi aundi au agertu eutsan ordua!


Bai zeuk be, ene arima orrek, zure zentzunak zer nai daben begira, abereak lez, ibilli bagarik; Jaungoikoagana zek zaroazan edo Beragandik zek aldenetzen zaituan gauza bakotxean begiratuko ba'zeuke; orduantxe bai izango zeukela santutasuna, bakea ta askatasuna zeure barruan!

*Jaungoikoak onela nai izan dau!* Au bai gogo ederra ta gozatsua gure atsekabeetan! Ez beste gozagarririk billatu; ez dau Jaungoikoak ipiñi.


Egia da, Jauna. Amalka bidar poztu nau neure estualdietan, neure gogoan idatzi daustazun egi maigarri onek: Jaungoikoaren guraria da!

Orañartekoaz damututa, aurrerantzean, Jauna, ez naz ibilliko aragi zital onek zer nai dauan ala ez dauan begira. Bestetara baiño: apurka-apurka, gauza bakotxean, nagusietan beintzat, Zuzentasun-jatorri orrek zer nai dozun ikusten asiko nazala erabagiten dot.

Andra Maria, neure Ama laztana: Zeu izan zara gauza guztietan, txikienik be itxi bagarik, *zelan-alango* neurri au bete-betean gorde dozuna. Egidazu, griña txarren deadarrai belarriak itxirik, Jaungoikoaren deiari bakarrik zabaldu dagidazala; neurri oneaz San Iñazio'ren eta Zure antzera, neure santutasuneko etxetxoa edegi dagidan.







## LAUGARREN GOGARTEA

IRU PEKATUAK

LENENGO ATALA

*Aingeruen pekatua.*

Gogoratu dagidan aingeruaren edertasuna. *Izatez*, ez da, gu legez, aragi ta gogo edo espirituduna; gogo utsa, espiritu utsa baiño. Guk arriai ta gogorik ez dauken beste gauzai dautsagun aldia, axe bera dauskue eurak guri. Bere *adimena* oso zolia da, gauzak aurrean ipiñiaz beste bage azagutzen dauzana, ta ori bat-batera, argi ta neke bagarik; ez, guk lez, aldi luzea emonda ta neke aundiaz eta illun. Bere *naimena* edo borondatea be, sendoa; ez gurearen antzera, aize-orratza lez, batera ta bestera dabillena.

*Indarra*, arrigarria; aingeru batek artu ta jaurtikoke leuke itxasora mendirik aundiena. Au, izatez.

*Izatearen gaiñetik*, grazia, onomen edo birtute eta Espiritu Santuaren doaziez bete ebazan Jaungoikoak. Neke ta lastasunezko bizitzan urte asko emonarren, santu gutxi eltzen dira aingeruen maillara. Eta onela, Ezekiel Igarle santuak, arri ederrez apainduta erakusten daukuz aingeruak. Jon Ebanjelari Santuak, aingeru bat ikusi eban; eta Jaungoikoa bera bai-litzan, asi zan gurtzen. Aingeruak izango eban edertasuna agertu yakonean!

Aingeru ain ederren artean egoan bat, Jaungoikoak berak Luzifer (au da, argitsua) izentzat emon eutsana: beste aingeru guztien artean, goizeko izarrak beste izarren artean lez, argi egiten ebalako. Edozein aingeru ain ederra izanik, zelakoa izango ete-zan Luzifer?

Baiña bere buruaren edertasuna ikusirik, galbidea sortu yakon. Zer? —pentzau eban—. Nazana izan, eta iñoren menpean izan? Ez! Jagi naiteke nagoan tokitik, igaro izarrak eta Jaungoikoaren jarlekuaren ondoan ipiñiko dot nire jarlekua; onela, Gorena'ren antzeko izango naz.

Gogapen (pentzamentu) txar bat; besterik ez eukan oraindagiño; baiña naimenak (borondateak) ez eban kendu, leku emon eutsan: pentzamentuzko pekatua egin eban. Pentzamentuzko pekatu bat!

Pentzamentua, gauza ariña da! Bai? Pentzamentu oni leku emonda batera, ba-dakizu aingeru ain ederra zer biurtu zan? Inpernuko deabrurik baltz eta

itxusiena. Beraz, ba-dakizu zer dan inpernuko deabrurik baltzena? Zeruko aingerurik ederrena, pentzamentuzko pekatu bataz. Kendu deabrurik itxusienari pentzamentuzko pekatu bakar ori, ta zeruko aingerurik ederrenetarikoa izango dozu. Ezarri zeruko aingerurik ederrenari pentzamentuzko pekatu bat, eta deabrurik baltz eta ikaragarriena biurtuta ikusiko dozu.

Ez dozu ikusten, ba, argi-argi, ene arima maite orrek, ez dala pekatua, naiz-ta pentzamentu utsezkoa izan, zuk uste dozun baizen arifia?

Lenengoz egin zan pekatu au, Jaungoikoak naiko ta lar be zigortu ebalá esan daiteke. Baiña ez. Aingeru deungen gaiztakeria ikusi ebanean, inpernua sortzen dau, pekatuzko lokarriaz lotzen dauz —San Pedro'k diñoanez—, eta artu ta inpernura jaurtiten dauz. Antxe dagoz, ta antxe egongo dira Jaungoikoa Jaungoiko dan artean.

Eta errusari (kastigu) benetan arrigarri au ez eutsen emon Jaungoikoak itsutasunez, zer egiten eban ez ekiala; ezta asarrez be, zor eben baiño aundiagoa emonda. Pekatuaren gaiztakeria ondo neurtuta emon eutsen; eta zor ebenetik be oraindiño zerbait kenduta, jakitunak dirauskuenez.

Nor ez da, Jauna, Zure bildur izango?

Sartu zaite orain zeure barruan, eta zure buruari itandu egiozu: Pentzamentu utsezko pekatu bategaitik ain baltz eta ikaragarri geratu ba-zan aingeru ain ederra, zelan egongo ete-zara zu pentzamentuz, gurariz, berbaz eta egiñez orrenbeste pe-

katu egin dozuzan ezkeru? Eta areik errusari ain arrigarria artu daben ezkeru, zeren zain ete-zagoz?

## BIGARREN ATALA

*Adan'en pekatua.*

Aingeruen pekatua beste era batekoa dala, ta gizonaz ez dala Jaungoikoa ainbeste asarratuko, uste izan daike norbaitek. Ikusi daigun, ba.

Jaungoikoak gure lenengo Gurasoak sortu ebazanean, aberastasun eta apainduririk ederrenez osotu ebazan, bai izatez, bai izatearen gaitetiko doaiez. *Izatez, gorputz* eder bana emon, gauza guztietarako ain egokia; eta *arimea*, Irutasun edo Trinitade Santuaren antzera egiña. Eurakan batu ebazan munduan zabalduriko edertasun eta aberastasunak. *Izatearen gaitetik*, grazi, onoimen (birtute) ta Espiritu Santuaren doaiez bete ebazan; Adan'en *jakituria*, gizon-uts artean izan dan eta izango dan aundiena zan. Bere naimena (borondatea), sendoa ta zuzena, Jaungoikoari begira beti egoana. *Gorputza*, osoa, au da, illezifia, ez geiso, ez gose-egarri, ez otz-bero, ez beste naigabe bagakoa, arimaren menpean, apal, ez orain lez berari ostikoka dabiliena.

Lurрак atara bere erraietatik, eta eskuz lez emoten eutsazan bere arnari edo fruturik ederrenak; abererik okerrenak eta gogorrenak aren menpean egozan. Jaungoikoak, etorri eurak bizi ziran atsegiñezko ortura, ta adiskide batak besteari legez, berba egiten

eutsen. Onetara bizi Jaungoikoak nai eban artean, ta gero zerura. Auxe zan Adan'ek berarentzat eta geuretzat Jaunaren eskutik artu eban ogasuna (aziendia).

Baiña bai arin galdu euskuela! Deabruak iruzur eginda (engaiñauta), Jaungoikoak debekatu eutsan zugatzetik (arbolatik), Eba'k jan egiten dau; Adan'ek be jan egiten dau; ta, agur grazia, birtuteak (sinismen eta itxaromena itxita, beste guztiak) eta Espiritu Santuaren doaiak!; agur jakituririk geiena ta naime-naren (borondatearen) zulentasuna; agur gorputzeko osotasun eta onen eta arimearen arteko bakea! Adan errukarria! Lurrak ukatu egingo dautsuz bere erraiak; arantzak eta sasiak baiño ez dautsuz emongo; zeuk zeure bear eta izerdiaz atara bear izango dautsazuz bere barruan ezkutau dautsuzan frutuak. Abereak be, orroka, zeu irunsi gurarik, ez dautsue esanik egingo, zeuk be Jaungoikoarenik egin ez dozulako. Garratza izan da frutu a, besterik iñoiz izan ba'da.

Zelan bera geratu, onela gu mundura ekarri. Nok zenbatu arrezkero gure gaiñera jausi diran gatzak? Ze itzela ez litzake izango zabalune baten munduko gaitz mueta guztiak ikustea? Ba, ikuskizun arrigarri ori, pekatu baten ekarria edo frutua da: *fructus peccati*. Batu gero munduan il diran eta azkenerarte ilgo diran gizon guztien azurrak; Gorbea mendia baiño andiagoa egingo geuke: guztia, pekatu baten arnaria, frutua: *fructus peccati!* Ez da oraindiño nainko: iruditu zeure barruan munduko guda (gerra),

asarre, naigabe, alkar-ezin-ikusi, arrokeri, alperkeri ta aragiaren ekandu atsituak. Ur loi guzti oneik, nundik datoz? Adan'ek bere pekatuaz loitu eban iturri ederretik: *fructus peccati*.

Geiago oraindiño: jarraitu bide estu, oker, illun, atsitu bati. Edegi ate gorri a; zer ikusten dozu? Laba gori, zabal, illuna, bertan suzko itxaso, ta itxaso aren barruan, arimak gora ta bera, arraiñak uretan, babak lapikoan lez. Ba-dakizu zegaitik igaroten da-bezan ainbeste oiñaze ta atsekabe? Askok, pekatu bat-gaitik bakarrik. Esan dagigula, beraz, al dagianak, zer dan pekatua, Jaungoikoak zelan gorrotatzen dauan.

## IRUGARREN ATALA

*Gogoratu, diño San Iñazio'k, irugarren pekatua be, pekatu astun bakarragaitik inpernura joan danarena, ta beste zenbatu ezin-ala, nik baiño gutxiagaitik.*

San Gregorio Aundiak diño (ta Erroma guztia dakar lekuko edo testigutzat): ume batek amaren altzoan egoala, jaurti biraua, agertu deabrua, ta beragaz eroan eban.

Aztertu zeuk be, zure bizitzako liburua. Zortzi, amar, amabi urte; oraindiño ez zenduan loitu Jaungoikoak Bateo-aldian jantzi eutsun graziazko soifeko zuri-ederra.


Baiña eldu zan egun bat, egun baltza, benetan negargarria... Ai, urratuaz kendu al ba'nengi neure

bizitzako liburutik! Asmau neban neure barruan gauza barri bat; ikaratu nintzan; odola geroago ta beroago; burua, geroago ta illunago; sartu yatan barruan pekatuaren ur loi, baltz, atsitua. Orduantxe, begiratu len ain maite nenduan Jaungoikoak, eta bere arerio eginda ikusi nenduan. Asarretu yatan, umetxo arezaz asarretu zanez. Baiña, zegaitik ez nenduan inpernura jaurti? A!, ori egin ba'leu, nire errukarria! Betiko galduta nengoan! Ez eban ori egin; milla esker Berari. Baiña, zegaitik ez eban egin? Nire pekatua txikiagoa zalako? Ez! Ni maite-ago nendualako baiño.

Lagun bik, onenean, pekatu egin genduan; neu txarrago; neuk eragin neutsan pekatu: asarretu yaton Jaungoikoa, jaurti eutsan eriotza, ta gaur inpernuan dago. Ni nun nago? Lurrean, Jaungoikoaren aurrean, neu besarkatzeko besoak zabalik daukazala. Jauna!, au gogoratu, ta neure biotzeko indar guztiaz maite ez ba'zaitut, ez inpernu bat, milla inpernu zor dodaz!

Zer egin dozu, Jauna, nire alde? Gizon egin, zerutik lurrera etorri, neure pekatuakaitik il. Eta nik Zeure alde, Zugandik arturiko mesedeakaitik esker-rak emoteko, zer egin dot? Pekatu! Zer egiten dot orain? Zer egin bear dot aurrerantzean?...

Guartzeko Jesus'en aurrean geratu, ta egin berba Beragaz; agertu biotza; eskatu bear dozuna, ta era-bagi egin bear dozuna.



## BOSGARREN GOGARTEA

### LENENGO ATALA

#### BAKOTXA BERAREN PEKATUAK

Gauza bi gogoratu bear dira: Azterketa au, autor-tzeko egiten dana baizen zeatza, ez dala izan bear; aundienak gogoratzea nalko da. Eta bigarrena: aragizko pekatuetan ez luzaroege egon, euren atsak be-rak gaitz egiten dau-ta; baiña bildurrik be ez euki.

Sartu zaite, ba, zeure barruan, Jaungoikoaren au-rrean; eta biotzeko samintasunez, asi zaite zeure ur-teak gogoratzen.

*Txikitan*, zer egin neban etxean, kalean, eskolan? Zelakoa nintzan gurasoakaz, lagunakaz, adiskidea-kaz? Zenbaten esaneko ez izan, zenbat guzur, ezin-ikusi, alperkeri, gorroto! Eta onenean, txikitatik pe-

katu aundiren bat. Esan daiket bai neure buruatzaz, San Agustin'ek bereazaz iñoana: «Onen gizon txikia, ta onen pekatari aundia!»

*Gaztetan?* Aundiago ta txarrago. Laster asi nintzan pekatu astunak egiten. Zer gogoratzen neban? Zer nai izaten neban? Zer esaten neban? Esan dagiala etxe arek, plaza ta lagun areik! Ai!, nire gogoa (arimea) ustelduta egoan, eta beragaz eroian alde guztietara ustel-usaiña. Ustel-usaiñak urteten eustan agotik, begietatik, alde guztietatik. Artu dagidazan Amar Aginduak neure eskuetan; ia izentau daikedan bat, sarri ausi ta ostikopetu ez dodanik...

Zazpi pekatu errudunak, zazpi grifa nagusiak, euren etxean lez bizi ziran nire barruan... Pekatu egin dot gomutamen (memoria), adimen (entendimentu), naimenaz (borondateaz); esku, oin, begi, belarri, min, gorputzeko zati ta arimako almen guztiakaz.

Guztiak emon zeustazan, Jauna, lenengo gogartean ikusi nebanez, Zeu goratu ta Zeure guraria beteteko; ta nik Zeu iraintzeko erabilli dodaz guztiak, onetarakoxe bakar-bakarrik artu bai-nebazan!

Esan daiket, ba, neure buruatzaz, Isaias Igarleak Judea'ko erriazaz iñoana: «Burutik beatzera ez dautkat zati osorik, Jaungoikoa irainduaz loitu ez danik». Eta Dabid'egaz: «Buruko uleak baiño geiago dira nire gaiztakeriak».

Orain, neure barruan sartuta, gogoratu dagidazan gauza bi, sinismen apur bat daukanari odola zane-tan leituta iztekoak: *Lenengoa*: Aingeru txarrak, pentzamentu utsezko pekatu astun bategaitik, dea-

bru biurtuta geratu ba-ziran, ze deabru izan bear ete-dot nik gogapen, gurari, berba ta egiñez onen-beste pekatu egin dodazan ezkerro? *Bigarrena*: Aingeru gaiztoak pentzamentuzko pekatu bategaitik betiko inpernua ekarri izan ba-etsen euren buruai, zer etorri bear izango ete-da nire gaiñera?

A!, zerbait zarala uste izan dozu. Ba-dakizu zer zaran? Begiratu izpillu onetan. Pekatu astun bat baiño ez dozula egin zeure bizitzan? Ba, deabruak be pekatu astun bat baiño ez dauko. Ogei pekatu astun egin dozuzala? Ipiñi zaite albo baten; bestean, ogei deabru: zeuk bakarrik, ogei deabruk beste pekatu daukazuz.

Au jakin, eta arrotu egiten zara? Deabru guztien oinpean egon bear zintzakez, eta beste guztiak nai dozuz zeure azpian euki? Zu, munduko gauzarik loiena, ta guztiak txistu-urtika erabilli bear zeunkezana izan, eta esaten dautsuen berba garraztxo bat ezin ondo eroan? Eta Jaungoiko Zuzenaren bildurra nun dozu? Aingeruaz pentzamentuzko pekatu bategaitik ain gogorra izan ba'da, orrenbeste pekatu egin dozuzan ori, zeren begira ete-zagoz?

## BIGARREN ATALA

*Begiratu obeto egiten dan pekatu baten ezaintasun eta gaiztakeria, debekatuta ez ba'lego be.*

Ez dago begiratu baiño mozkorti naiz birautiari, ta zikiñari batez bere. Ez dirudi gizona; aberea da; ezaiñago oraindiño.

## IRUGARREN ATALA

Ikusi daigun orain *zer dan* pekatu egitea.

Pekatu egitea, munduko gauzarik ederrena ta ar-giena baiño ederrago ta argiago dan gogoia edo arime-a, ezin esan-ala loitu ta ezaindutea da. Geiago oraindiño: arimari graziazko bizitza kentzea.

Nok egingo ete-leuke pekatu, eginda batera, ika-tza baiño baltzago, gorpu atsitu, geratuko ba'ltzakio gorputza? Ez dago ikatzik, pekatuaz dagoan arime-a baiño baltzatorik; ez dago gauza zikiñik ez atsitu-rik, pekatu astun bat egin dauanaren arimeaz bar-dintzekorik. Zer ete-dauko pekatuak bere barruan?

Pekatu egitea, Jaungoikoari buruko koroia kentzea da, San Anselmo'ren eritziz; eta, San Bernardo'k dirauskunez, Jaungoikoa il nai izatea. Pekatu egiten dauanak, judarrak eta Pilatos'ek Jesus'i egin eu-tsena egiten dau. Ipiñi eban Pilatos'ek Jesukristo alde batean, eta bestean lapur gizon-iltzaille, biurri bat, Barrabas izenekoa; eta enparantzako (plazako) gizon-taldeari dirautso: «Nor nai dozue askatu dagi-tsuedan, Jesus ala Barrabas?» Eta gizon, edo gizon-antzeko deabru areik, deadarka erantzuten dautsoe: «Ori ez! (Jesus'egaitik); Barrabas askatu eiguzu». Eta Pilatos'ek: «Jesus'i, zer egingo dautsat, ba?» Eta eurak: «Gurutzean josi!».

Bai; neuk be, amaika bidar ipiñi dot neure esku-matara Jaungoikoa, eskerretara diru apur bat, atse-gin apur bat. Grifia txarrak deadar egin daust: bata edo bestea artu bear da; nor artu bear dozu? Eta

nik, au lotsaria!, «betor dirua, betor atsegiña», eran-tzun dot pekatu egin dodan bakotxean. Jaungoikoa? Bego nai dauanarentzat; naiko Jaungoiko daukat diru oneaz, atsegin oneaz.

Pekatu egitea, Jesukristo'ren Odola ostikopetutea da, diño San Paulo'k. Nekaldi (Pasiño) Santuan oin aurkitu, ta ikusi ba'neuz borraru gogorrak, euren oin zatarrakaz Jesus'en Odol ederra ostikopetuten, are-lakorik egingo ete-neban? Ba, orixe berori egin dot, pekatu egin dodan bakotxean.

Parkatu, Jauna, nire lotsabagekeri au; betor Odol garbitzaille ori, neure arima loi au garbitzera; peka-tuak ekarri dautsazan kalteak osatzera.

Pekatuaren kalteak osatu! Ekaitz edo tenpesta-derik indartsuenak, arriabarrak gogorrenak solo la-borez orituan egiten dauan triskantzea, utsa da pe-katu astunak arimeari dakarkion ondamendiaz ne-gurtu ezkeru. Onoimen (birtute) guztiak galtzen dauz, sinismena ta itxaromena geienez oiñean itxita; neke, barau ta beste on guztiakaz ainbeste urtetan batu ziran aberastasanak, guztia izten dau ondatuta, lur-jota. Negar egiten dogu arriabar gogorrak egi-ñiko kalteak ikusita; ainbat negar mingotsagoa egi-ten dau gure aingeru zaintzailleak, pekatuak gudan egiten dauzan kalteak ikusita.

Eta nok ordaindu kalte oneik? Ezta munduan izan diran eta izango diran gizaseme guztiak, Adan'en lenengo arnasatik azkenengo gizonaren azkenengo-raiño, min eta oiñazeak igaroten egonda be, ez li-tzake naiko izango pekatu batek arimeari egiten

dautsazan kalteak kentzeko. Jaungoikoaren Odola, Bere bizitza bera izan da bear-bearreko. Zek adierazo daike obeto pekatuaren gaiztakeri ta astunta-suna?

NUN egin dot pekatu? Ezkutau al-izan ba'nintz Jaungoikoaren begietatik! Baiña, nora joanda? «Zerura igoten ba'naz, an zagoz —diño Salmogifñaren agoz Espiritu Santuak—; inpernura jatsi, ta aurrean zaukadaz; egoak artuta itxasoaren andiko aldera iges egiten ba'dot, an be zeure eskumeak eutsiten daust». Gabak-edo estalduko nau Jaunaren begietatik... Orixe uste izaten dabe pekatariak, Espiritu Santuak bertan diñoanez. Baiña, zer erantzuten dautse? «Jaungoikoarentzat, gaba eguna baizen argia da».

Ez! Ez dago Jaungoikoarentzat gaurik, ez dago toki illunik, ez dago zokondorik, ez dago bakartegirik. Adimenaren barruenean dagoan pentzamentu txarra, naimenaren azkenengo tolozean ezkututzen dan gurari zitala, guztia dago argi-argi Jaungoikoaren begietan. Eta au dakizula, zure gurasoen aurrean, laguneren aurrean, ez-ezagunen aurrean egingo ez zeukena, Jaungoikoaren begi garbien aurrean egiten ausartu zara?

### LAUGARREN ATALA

ZEAZ egin dot pekatu? Jaungoikoak emoniko gorputz eta arimaz. Jaungoikoak emondako adimena, naimena, gomutamena; begi, belarri, min, esku, oin

eta beste zati guztiak, lenengo gogartean ikusi genduanez, Bera ezagutu ta maitatzeko emon euskuzan. Eta nik, arimako almen eta gorputzeko zentzun guzti oneik, Bera iraintzen erabilli, orretarakoxe bakar-bakarrik artu bai-nebazan. Zer da eskerbagakeri au? Zer esango leukee, gizon bati osatu osatzailleak beso bat; eta gizon orrek beso orreaz artu makillea ta osatzailleari sekulako astindua emongo ba'leuskio? Ez dau iñok, zoroa izan da be, gizartean egin. Ba, gizon batak besteari, zoroa izanarren, egiten ez dautsana, auxe berau ziztrin onek Jaungoiko andi ta ongilleari egin dautsat.

Ai!, esku oneik, begi, belarri, min eta beste zatiok berbetan ba'lekie! Zelan egingo leuskiden deadar: gizon zoroa, munduan dan eskertzarrekorik aundiena! Zetan garabizuz Jaungoiko aundia iraintzen, zeu ta geu Bera ezagutu ta otseintzeko egiñak izanda? Estu ta larri garoazuz, geure ekanduaren kontra, Jaungoikoa iraintzera; baiña Berak atarako gaitu zure menpe gogorretik; orduantxe ordainduko dozuz gu ta gure Jaungoikoaren aurka egin dozuzan bidebagekeri guztiak; orduantxe jausiko gara guztiok zure gaiñera, zu zapaldu ta zatitzeko.

Jauna! Noiz arte izango dira ni baiño jakitunago adimen bagako gauzak? Noiz arte otseinduko zaitue naimen bagarik nik baiño obeto? Noiz arte izango dira Zure eskuetatik arturiko ondasuntxoakaitik, onenbeste aberastu nozun au baiño esker obakoa-goa?

NOIZ egin dot pekatu? Jaungoikoaren eskuetatik

eskegita nagoala. Egin daigun sokatik dingilizka dagoala gizon bat; eta soka orren beste ertzeta, torre-geiñean dagoan beste gizon batek daukala eskuetan. Sokatik dingilizka dagoanak, torre-geiñean dagoana irainduko leuke? Ezta zoroa izanda be, bere bizitza bestearen eskuetan daukala ba-daki-ta; eta, izten ba' dautso, beko arrietan zatituta geratuko dala. Ba, neu nago une guztietan Jaungoikoaren eskutik dingilizka, torre-ganean dagoanaren eskuetatik bestea baiño geiago; argi-ontzia lotuta daukan katetik baiño obeto. Eta au jakinarren, onenbeste bidar iraindu dot, une bakotxean bere eskuetan naukan Juungoikoa, pekatuaren ain gorrotatzaille andia?

ZEGAITIK pekatu egin dot? Zer egin daust niri Jaungoikoak, ni Berazaz onen lotsabaga izateko? «Zer egin dautsut?», diraut Jaungoikoak, beste al-dian bere erriari lez. Responde mihi!: erantzun egidazu! Gorputz-arima eder orreik emon dautsudazalako ete-da? Ala zerutik lurrera zure maitasunarren etorri, ta ainbeste nekeren ostean, Neure Odol guztia, Neure bizitza bera, emon nebalako? Zegaitik, ba, seme ori, izan zaiataz orren biotz gogorreko? Erantzun eidazu!

Zer erantzun daiketsut, Jauna, lotsaren lotsaz berbea iztarrian itoten ba-yat? Begietatik dariadazan negar-malkoak dirautsue, ene Jaungoiko maite orri, nire berba guztiak baiño obeto. Ebanjelioko seme galduaren antzera dirautsut: Pekatu egin dot, eta Jaungoiko maitagarri orren kontra, eta Zeure au-

rréan egin dot. Zure semearen izenik be ez dago kit.

## BOSGARREN ATALA

Jaungoikoak, Bera otseintzeko egin dauz gauza guztiak; eta orrela egiten dabe sortu ziran ezkerok. Baiña gizona ikusten dabenean, Jaungoikoa ezagutzeko adimena, ta Bera maitatzeko naimena artu dauana dala bakarrik Aren kontra jagiten dana, gizonaren kontra jagiten dira eurak be, ta alkar adoretuaz, San Ambrosio'k diñoana egiten dabe deadar: «Erduta banatu daigun gure Egillearen iraintzaille au. Aizeak diño: zetako barrizten dautsat odola? Suak: zetako berotzen dot? Urak: zetako bustiten dot? Janariak: zetako indartzen dot?».

Aingeruak, Jaungoikoaren zuzentasunaren aitzoak (kutxilloak) dira, diño San Iñazio'k. Eta Egipto'tarren seme nagusiak, nok il ebazan? Aingeruak. Nok Senakerik'en gudarozteko edo ejertzitoko eun eta larogeta bost milla gudari (soldau)? Aingeruak. Eta onela agertzen dira aingeruak Apokalipsis deritxon liburuan, Jaungoikoaren asarrezko beaztuna gaiztoen ganera jaurtzen. Zelan, ba, ebagi ta zuzitu bearrean, gorde ta zaindu nabe, ta zelan egin dabe otoi'tz nire alde?

Bai! Itanduko ba'leuskit Jaunak, Ebanjelioko emakume galduari lez: «Iñok ez dautsu ezer egin?», ez neuke naiko izango arek legez erantzutea: «Iñok be ez, Jauna». Izan be, kalterik eta gauza txarrik egin bearrean, gorde ta zaindu egin nabe betiko galdu



nai nenduen inpernukoen erpeetatik; gorde ta zaindu, batez be nire aingeru zaintzailleak. Amaikatxo bidar eragingo neutsan negar nire pekatuakaitik!


Eta Santuak? Ez dira eurak be pekatariaren kontra berotzen? Bai!, baiña ez nire kontra; nire alde bai eskatu dabela, ta deadarrik zolienaz eskatu be, batez be Ama maite Andra Maria'k!


San Lukas'en Barri Onean ipuin arrigarri bat irakurten da: «Batek bere mastian pikondo bat eukan sartuta; eta aren frutu-billa etorrita, ez eban bat be idoro (aurkitu). Orduan, mastizaiñari esan eutsan: Iru urteotan pikondo onetara arnari-billa etorri naz, ta ez dot bat bere idoro. Ebagi egizu, ba. Lurrean alperrik zetarako egon? Baiña mastizaiñiak, erantzunik, dirautso: Jauna, itzi egizu aurtan be; ta, bitartean, ingurua atxurtu ta satsa jarriko dautsat; orrela, bearbada, frutua ekarriko dau; ta bestela, georago ebagiko dozu».

Neu naz Jesus'ek bere Elizako ortuan jarri nauan zugatza edo arbola; ardurarik aundienaz zaindu nau, busti be bai bere odolaz. Ainbeste alegiñen frutubilla dator gero; ta orriak —asmo onak— baiño ez dauz aurkitu. Zelan ez da asarretuko? Eta fruturik ezaz ainbeste asarratzen ba'da, zer izango da frutu txarrak, atsituak, beste zugatzak usteltzekoak, nik lez, emonda? Ai!, amaika bidar esango eutsen bere Eliza Santuko masti ederra zaintzen dagozan santuak: «Ekarri aizkorea, ebagi gerri-gerritik arbola zatar ori, ta jaurti inpernuko sutara. Zetako daukat lur ain ona alperrik galtzen?».

Baiña Santuak, eta nire Ama maite Andra Maria'k batez be, esango eutsoen: «Ene Jaun eta Semaitea! Egia da; zor dau; baiña itxaron oraindiño beste urte betean be; neuk atxurtuko dot, au da, neuk egingo dot sakon, gogoratu dagiala zein dan bere bizibidea; neuk simaurtuko dot, au da, neuk ipiñiko dautsadaz begien aurrean beraren pekatu ta loikeriak; eta ori ta guzti be ondu ez ba'dadi, betor orduan aizkorea, ebagi gerri-gerritik eta jaurti inpernuko sutara».

Eskerrak, Ama maite orri, erreten ez nagoalako. Zeugaitik izan ez ba'litz, zer izango zan gaur nizaz? Nun egongo nintzan? Baiña urte beteko epea edo plazoa jaritsi daustazu: nire errukarria alegindu ez ba'nendi! Zeure laguntasunaz, al dodan guztia egingo dodala agintzen dautsut.





## SEIGARREN GOGARTEA

PEKATU ARIÑARENA

LENENGO ATALA

*Pekatu ariñaren gaiztakeria.*

Zer da pekatu ariña? Jaungoikoaren kontra, gauza ariñean, zerbait esan, egin, gogoratu naiz gura izatea da pekatu ariña.

Jaungoikoaren benetako iraiña da, ba; ta Beraren aurrean egiten yakona, Beragandik arturiko ondasunakaz eta Berak gu gorderik, pekatu astunazaz esan dan antzera. Ez da, pekatu astuna lez, gure ariman Jaungoikoa iltea; baiña bai, esaterako, Berari belarrondokoak emotea.

Erruzko gatxa da, ez atsekabezkoa; ta orregaitik, geiso ta min guztiak autu bear geukez pekatu ariña

baiño lenago, baita eriotza bera be. Eta Elizako Guraso Santuak diñoenez, pekatu arin bat (guzurra, esaterako), ez dala egin bear Garbitokiko (Purgatorioko) arima guztiak ataratearren be. Inpernua bera baiño be txarrago da pekatu ariña: inpernua, Jaungoikoak egin dau; baiña pekatu arin bat, ez egin, ez egin al izan be ezin dau.

Beraz, ez da pekatu ariña nik uste izan dodan baizen gauza uts eta ezereza. Ariña deitzen yako pekatu astunaren ondoan; baiña, berau itxita, ez dago gauza txarragorik, ez kaltegarriagorik be lurrean.

BIGARREN ATALA

*Pekatu ariñaren kalteak bizitza onetan.*

ARIMAKO KALTEAK.—Pekatu ariñak ez dauSKU kentzen Jaungoikoaren maitasunik; baiña bai otzitu. Pekatu ariñak, jakiñean egiten diranak batez be, otoi egiteko zaletasuna, autortzeko, Jauna artzeko, elizara joateko ta beste gauza on guztietarako zaletasuna otzitu egiten dabe; edo-ta egiten diranean be, gogo baga, epel egiten dira; ta onela, Jaungoikoaren grazia edo laguntasunik bapere ez, edo gitxi baiño ez dabe ataraten.

Pekatu ariñak, Jaungoikoaren ondasunak, zerutik lurrera ekarteko daukagun urbidea, legortuta izten dauz; arimako loa, ugarra, zauria da; guztia argalduta, indargetuta, oiñean ezin egonda ipinten dauana.

Pekatu ariñak adimena itsutu egiten dau, Erlijiñoko egiak ez ikusteko; edo-ta illun eta uts andiz nastauta beintzat. Naimena be, makaldu egiten dau, arimako iru arerioai eusteko dogun naimena.

Bestetik, barriz, gorputza illagaz doanean, bera janaz bizi diran piztiak gogorrigo ekiten dautsen antzera, graziazko bizian ilten doan oni be, gogorrigo oratzen dautse grina txarrak; berak be min, begi, belarri ta beste zentzunen atea edegiaz, sartzen laguntzen dautse-ta.

Eta arela, Jaungoikoagandik urrunduta arerioakana urreratu; geroago ta indar gitxiago gogoak; arerioak geroago ta gelago; mundu ta aragiak geiago atsegindu; Jaungoikoaren gauzetan pozik ez; gizonbiotza, barriz, zelanbaitako atsegin bage bizi ezin: eta onela, zirikaldu edo tentaziñoaren aize gogortxoak artu dagizaneke, lur-joten dau arima errukarriak, ta pekatu astunean ondatuta gelditzen da. Esan eban Jesukristo gure Jaunak: «Gauza txikiak ezeretzat daukazana, apurka-apurka jausi egingo da».

Itogin bat naiko da etxe andia ondatuta izteko; zulo batek galtzen dau soifneko guztia; ta ezer ez dirudien makaltasunetik, geiso aundiak sortzen dira. Onela, arimako geiso andiak be, gauza txikietatik datoz. San Agustin aundiak ba-diño: «Ez uste gizona edo oso gaiztoa edo oso ona *beingoan* egiten danik: apurkako egitekoa da au».

Pekatu astunean jausten ez ba'da be, aren estutasunak! Tentaziñoari tokirik emon ete-dautsat? Au-

tortu bear izango ete-dot? Jaunartze-aldian be, aren bildurra!

Begiratu, ezpabere, atsekabeak nundik datorkizuzan; eta ia guztiak, pekatu arifetatik datorkizuzala ikusiko dozu. Bestela, barriz, bere grina txarrak azpiratuaz, pekatu arifetatik be, al dauanez, iges egiten dauanaren bake aundia!

GORPUTZERAKO KALTEAK.—Arriagarriak dira Jaungoikoak pekatu ariñagaitik emon dauzan zigorradak, ari dautsan gorrotoa agertzeko bestekoak. Moises'en arreba Maria, legenez (lepraz) bete eban, bere neba Moises'en kontra jardun ebalako. Moises bera ta Aaron, Jaungoikoaren errira sartzeke geratu ziran, makillaz atxa jo ta ura ateraldian, bear zan itxaropen sutsurik izan ez ebelako. Lot'en emaztea, gatz-arri biurtu zan, aingeruaren aginduari jaramon egin bage, erreten egoan Sodoma'ko uria ikusteko, atzerantz begiratu ebalako. Eta beste zenbat onen antzeko? Eliz-jakitunak diñoenez, Jaungoikoak geiso asko bialtzen dauz pekatu txikiakaitik.

## IRUGARREN ATALA


*Kalteak beste bizitzan.*

*Garbitokia* (purgatorioa). Betor onetariko arima errukarri bat, eta erakutsi daigula pekatu ariña zer dan. Zelako miñak igaroten dagoan suzko itxaso aretan agertu dagianean, eta Jaungoikoaren arpegi ederra ikusteko daukan egarri bizia; pekatu ariñen

ugarra kentzeko dagoala sartuta laba gori aretan  
gogoratu dagianean... ai!, arek izango dautsen go-  
rrotoa ezeretzat eukazan pekatu ariñai!

Jauna! Neure arimako loietatik garbitzeko, lexiba  
gogor orretan sartu baiño lenago, emon eidazu argia,  
«ariña» esaten yakon pekatuaren gaiztakeria barru-  
tik ezagutzeko, ta indarra biotzez gorrotatzeko. Ne-  
garrez garbitu dagidala oraintxe neure gogoa, gar-  
bitu bearrik gero ez eukiteko. Oraintxe kitatu dagi-  
dala azkenengo zuriraiño zor dautsudan guztia, pre-  
sondegi itzal aretan ordaintzen ez egoteko. Ez na-  
dilla epela izan, Zeure barrutik okadaka jaurti ez  
naizun.

Andra Mari, neure Ama maite ori! Zeu izan zara  
bakarrik Adan'en seme-alaba guztien artean, pekatu  
ariñen gerizarik be izan ez dozuna; beti egon ziran  
Zure gorputz-arimak argia baiño garbiago, ta aizeak  
ez darabillen ur-azala baiño baketsuago: garbitu,  
arren, nire gogoa be; egin bakeak nire gorputz-ari-  
maren artean; kendu pekatu-zuster guztiak eta orai-  
ñarte itxi dausten atsa, Zeuretzat eta Zeure Seme  
Jesus'en bizi-toki garbi ta gozatsu izan nadin.



## ZAZPIGARREN GOGARTEA

INPERNUKO ATSEKABEAK

LENENGO ATALA

*Kaltezko atsekabea.*

Pekatariaek pekatuaz, gauza bi egiten dauz: bata,  
bere biotza Jaungoikoagandik aldendu; bestea, mun-  
duko gauzakana biotza biurtu. Baita Jaungoikoak be,  
ordez, errusari (kastigu) bi emoten dautsaz: Bera-  
gandik aldendu —eta auxe da *kaltezko atsekabea*—;  
ta gizona atsegindu daben gauzak eurak, au atseka-  
betzeko artu: *zentzunezko atsekabea*.

Ikusi daigun, lenengo, KALTEZKO ATSEKABEA.  
Nire arima au gorputz onen barruan, San Iñazio'k  
dirauskunez, espetxean (presondegian) lez sartuta  
dagoan bitartean, Jaungoikoagandik urrunduta egon-

arren, ez da ainbeste mintzen. Baiña noizbait urten-go da, ta nai-ta nai-ez, bere indarrez, indarririk aundienaz, egaz lez, joango da Jaungoikoagana; eta Jaungoikoak pekatuan aurkitu ba'dagi (aurkitzen ba'dau), esango dautso: «Zer? Zu pekatuz loituta, ta Nigaz, garbitasun utsagaz, batu? Ken ortik!», esanda, jaurti egingo dau.

Alan eta guzti be, ezin egon daiteke arimea bere Jaungoikoa bagarik; eta ba-doa ostera be Aregana, ta len lez, barriro be, Jaungoikoak jaurti egiten dau. Eta onela, batetik Jaungoikoagaz batu nairik, eta bestetik Jaungoikoak Beragandik jaurtiten dauala: beti!, beti!, Beragaz noizbaiten alkartzeko itxaropenaren apurrik izateke (izan bagarik).

Maite izan dozu norbait biotz-biotzez, garrez, eta berak ezin ikusi izan zaitu? Ba-dozu nundik atara zelakoa izango dan zure atsekabea, Jaungoikoak gorrotoz begiratu ezkeru.

Gogoratu egizu, gaiñera, erreten dagoanak, egarriz igaroten dauana edontzi bete ur otz ekarri, ta tanta bat edaten itxi bagarik, kendu dagitsenean; eta onela egunez-egun, erakutsi ta kendu, darabillenean. Ba, ez dago egarririk, gure arimeak, gorputzetik urten ezkeru, Jaungoikoaganako dauan egarrria lakorik.

Gizarteko samintasunik zolienak, ez dira ondasunak galtzea, naiz osasuna, bizitza, senarra edo emaztea, naiz umeak? Ba, guztioak dira kalteko atsekabearen antzekoak, gauzea galtzeak dakazanak. Baiña gauza guzti oneik ikustekorik ez ba'dauke Jaungoikoaren aldean, ezta eurak galtzeak dakarren

atsekabeak be, ez dau ezer ikustekorik Jaungoikoa galtzeaz, eta betiko galtzeaz arimeak artuko dauan miñaren ondoan.

Ai!, zuok, santuok, mundu onetako illunpean be, Jaungoikoa apurtxo bat ezkutaldian artzen dozuen miñaz, aika ezin egonda, arnasarik ezin artuta zabizenok; Eliz-Guraso Santuok, erakutsi guri, pekatarioi, geure biotza zikinduta, mundu onetako gauzen maitasunaz loituta, Jaungoikoarena ezin ezagutu dogunoi, zer dan kalteko atsekabe au; ta ez gaizala iñoiz be pekatuaz Jaungoikoagandik aldendu, betiko urrunduta geratu ez gaitezan.

## BIGARREN ATALA

*Zentzunezko atsekabea arimako almenetan.*

ADIMENEAN.—Adimenaz, deabru bat lez loituta, atsa dariola, gorrotagarri ikusten dau galduak «bere burua»; ta onelaxe agertzen dala Jaungoiko ta aingeruen aurrean. Eta Jaungoikoa, guztiz asarratuta, zuzentasunezko beso gogorra aren gaiñera jaurtiten dauala. Baita zeruko zoriontsuak bere, euren atsegintza ederrean. Eta ba-diño beragan: «Ara!, nire erri maitagarri ori, galdu zaitut betiko!» Baita bertan dagozan adiskideak eta senideak be ezagutzen dauz, argi-argi; eta biotzeko samintasunik aundienaz deadar egiten dautse, Espiritu Santuak bere agoran ipinten dauzan berba oneikaz: «Orra guk beifñola irri ta barrez genduzanak; geu gintzazan gu buru-

bageak, zorotzat genduan aren bizitza ta ezeretzat aren amaia. Ta begira!, or dagoz orain Jaungoikoaren semeen artean, eta euren zoria santuen artean. Geu gintzazan, geu, uts egin genduanak, eta Zuzentasunaren argirik ez zan guretzat zabaldu!».

**GOMUTAMENEAN** (memorian).—Munduan izan ebazan ondasun eta atsegiñak gomutamenez gogoratzen dauz; eta oraingo ezeuki ta atsekabeaz bardintzen dauz. Baiña, noragiñokoa izango da bere biotzeko samintasuna, estura ta asarrea, emen izan ebazan pekatuzko atsegin izpitxoak, aurrez-aurre gerizea lez igaro ziran atsegintxoak, eta orain daukazan betiko atsekabeakaz bardindu daizanean?

Saul Erregek, bere gudarozteko iñok be ez egiala ez jan ez edan ezer, arerio guztiak amaitu arte, agindu eban. Jonatas, bere semeak, bidean-zear joi-ala, zugatz (arbola) baten ezti-abaua ikusirik, ezpa-tearen ertzaz artu apur bat eta jan egin eban. Saul'ek jakiten dautso, ta iltea erabagiten dau. Jonatas, au entzunik, asten da alarauka baso aretan deadarrez: «Ezti apurtxo bat baiño ez dot artu, ta ona emen ni ilteko gertu!».

Auxe bai esango dauala galduak deadar milloi bat bidar zoliagoaz: «Ezti apurtxo bat baiño ez dot artu, atsegin apurtxo bat, diru apurtxo bat; eta ori dala-ta beste bagarik egon bear emen, betiko, onenbeste oiñaze ta min artean? Ai!, dirua, atsegiña, benetan karu erosi zenduedazan!».

Jaungoikoagana biurtzeko lurrean izan eban era erraza be gogoratzen dau; Jaungoikoak dei egin

etsanean arako lagunaren aolku (kontseju) ona entzueran, liburu ona irakurteran, sermoia entzutean, eriotza bat-batekoa jakitean. Barriri ikusi dagianean zelan egon yakon Jaungoikoa milla eratan bere biotzeko atean oska, ta esaten: «Ene seme: edegi eidazu biotz ori, barruan sartu nai dot-eta», ta zelan berak ez eutsan jaramonik egin; gurasoak, senideak eta lagunak emon eutsoezan aolku edo kontzeju onak ikusi dagizanean; ze uskeri txikiakaitik bide okerretik alde egin bagarik egon zan; ez dagoala gelago Jaungoikoagana biurtzeko erarik, ezta len alperrik galdu eban unetxo bat be, ikusi dagianean: amurruz bere buruari aginka ta txitximurka asiko da. Auxe bai dala atsekabea! Auxe da barreneko (kontzientziako) arra, pekatariaren biotza, sitsak soñeko lez, jaten egongo dana; baiña iñoiz be amaitu bagarik!

**NAIMENEAN** (borondatean).—Naimena, Jaungoikoandik artu dogun almen edo potentziarik ederrena da; ta Jaungoikoa bera lez, maitasun utsa. Bere bizitza, maitasuna da; bere arnasa, maitasuna. Maitasunean bizi da pozik eta atsegiñez, txoria aizetan eta arraiña uretan bizi dan antzera. Maitasun baga, ezin bizi daiteke, txoria aize baga ta arraiña ur bagarik bizi ezin danez.

Baiña gaiztokian edo inpernuan, zer maitatuko dau? Beste galduak, bere lagunak? Areik bai itxusiak! Eta, gaiñera, beti dagoz bata bestea gorrotatzen, madarikatzen! Deabruak? Aren zigortzailleak dira. Gurasoak? Eurakaitik dago geienetan toki ain

atsekabetsuan. Jaso dagizala bere begiak zeruruntz Jaungoiko ta zorientsuakana! A!, galduak ez dautse iñori be Jaungoikoari baiño gorroto aundiagorik, ain erruki бага zigortzen dauzalako. Eta zorientsuak Jaungoikoa goratzen ikusi dagiezenean, eta, eurak ain gogor artzen, amurruak batetik eta ondamiñak edo inbidiak bestetik, biraurik ikaragarrienak erasoko dautsez. Egokerearen estua! Zerbait maitatu бага ezin egon; eta ezer ezin maitatu!; gorrotau gutia baiño: Jaungoikoa, zorientsuak, deabruak, galduak, baita norberaren burua be. «Ezin dau ezer maitatu», deadar egiten eban Santa Teresa'k.

A!, ene arima maitea! Ez egizu maite izan maitasuna betiko galduko dautsun gauzarik!

## IRUGARREN ATALA

*Zentzunezko atsekabea gorputzeko zentzunetan.*

BEGIAK.—Sartu oraindiño obeto, ene arina maiteri ori, Jaungoikoaren espetxe aretan. Zer da ikusten dozuna? Laba gori, luze, zabal, sakona; goian sua, albo guztietan sua, ta erdian suzko itxasoa, ta bertan gora ta bera galduak, arraiñak uretan eta lapikoan babak lez.

Begiratu euretariko bat: onenean zeure laguna dozu. Bere begiak, zer ikusten dabe? DEABRUAK! Santa Prantziska Erromatarrak deabrua sarritan ikusten e'eban: Zer diño? Naiago leukela laba gorrian bizirik sartu, deabruaren arpegia unetxo baten

ikusi baiño. Ara bada: inpernuakoak ez dau deabru bat bakarrik ikusten, deabru-talde aundia baiño, ta talde au beragana datorkiola, zapaldu ta zatitzeko.

Bere pekatuetako lagunak be ikusten dauz. Emen alkarregaz pekatu egiten dabenak, alkarregaz an be egongo dira, alkar gorrotatzen, alkar zatitzen.

Norbaitek, barriz, berba nasaiz, begirakune txarrez, jantzi zatarrez, aolku (kontseju) txar bat emonda, naiz beste edozela norbaiti pekatutarako biderik emon-go ba'leuskio: a!, bere atsekabea, onek, arpegia artuta, esan dagionean: «Galdu ori! Azal-utsezko maitasunez areriorik andiena izan zintzakidazan ori, zegaitik galdu nenduzun? Zeugaitik izan ez ba'litz, zeruan, ara an, neure lagunak dagozan toki aretan, egongo nintzan; eta zeu zarala-ta, beste bagarik, ementxe nago ta ementxe egon bear izango naz, deabru-artean, betiraun guztian!»

Eta au esanaz, ikusi egizu zelan jausten yakon ganera, ainkaka ta txitximurka zatitzeko.

BELARRIAK.—Beste zorigaiztokoan ululuak eta agin-kirriskadak be entzuten dabez, Jesukristo'k Barri Onean diñoanez. Eta deabruaren deadarrak be bai, esanaz: «Ekarri illintiak, ekarri aiztoak (kutxilloak); il, emon eriotza bagako eriotza», San Agustín'ek diñoanez. Galdu bakotzak bere galbideari ezarten dautsazan birauak entzuten dauz. Diru-zaleegiak: «Madarikatuak nire aberastasanak!». Entzute-zaleegiak: «Madarikatua ainbeste alegiñez billatu neban entzute ta izen ona!». Loikeri-zaleak: «Madarikatua milla bidar, galdu nenduan arako atsegiña! Madari-

katua urlia, gizon edo andrea, madarikatua arrisku a, etxe a, senideak, gurasoak, baita neure gorputz eta arimea be». Orrela diño San Antonino'k.

Eta Belarmino Deunak, barriz: «Madarikatu egiten dabe Jaungoikoa, sortu dauzalako, baiña batez bere iñoiz il bagarik, beti oiñaze-artean daukazalako. Aren jakiturgia be madarikatu egiten dabe pekatu txikiena aurkitzen dautselako; almena, ain gogor zigortzen dauzalako; ontasuna, eurentzat gogortasunez eta asarrez beteta dagoalako; Gurutze Santu ta Odol ederra, beste asko lez gorde ez dabezalako; zoriontsuak be bai, euren atsekabeai irri-barre egiten dautselako. Eta azkenez (negar bagarik esan be ezin daitekena), madarikatu egiten dabe Andra Maria be, ontasuna, biguntasuna, erruki utsa baiño ez dan geure Ama maitea, beti onetsi ta goratua, beste guztientzat Ama Errukiorra izan eta eurentzat (onela uste dabe errukarriak) amorde gogorra bakarrik izan dalako».

Gure artean biraua entzuten danean, naizta Jaungoikoaren asarrez jaurti ez, dar-dar asten dira Jaungoikoa apur bat maite daben erraiak. Zer izango da ainbeste birau, ain ikaragarri, gorrotorik bizienaz jaurtirikoak, entzutea? Inpernuko atsekabe guztietatik, auxe zan San Inazio'ren biotz jaungoikozkoa geien samintzen ebana.

Gau guztian ume bat garraxika dagoanean, benetan gau luzea egiten yaku. Musika bat luzaroege jo ezke-ro, ezin entzun izaten da. Zer izango ete-da ba, ain-

beste galduen negar bizi ta ululuak geratu bagarik beti entzuten egon bearra?

Murmur-zale ta zikinker-entzuleok, orra or zuen ezkena!

SURRAK be izango dau bere atsekabea. Azufre irakindua ta beste ats andiko gauzak dagozala, diño Espiritu Santuak. Andiagoa jariongo dautse galduai euren gorputzetik; ezilkorak izanarren, geiso ta zauriak daukez; eta ona emen San Bizente Ferrer'ek, Normandia'n sermogiñan egoala, esan ebana: «Galdu baten gorputza bertan ipiñita, Paris'tik artuko litzakela aren atsa». Beraz, zer izango da ainbeste milloi ta milloi galduen gorputzak botako dabena, alde guztietatik itxita dagoan toki aretan?

Mezenzio eritxon gizon biotz-gogorrek, eriotzarik ikaragarriena emoten eutsen il bear ebazanai: ildako baten gorpuari lotzen ebazan, eta arelaxe eukiten ebazan, gorputik urteten ziran ar eta atsak gizon errukarria amaituta itxi arte.

Auxe berau egiten dau Jaungoikoak inpernuan betiko galduakaz; bardin ez: areik ez dira iñoiz ilten.

GOSE-EGARRI bizia be izango dabe inpernukoak, Espiritu Santuak sarritan esaten dauskunez. Eta jatekorik eta edatekorik ez eukiaz gaiñera, nai ez dabena eukiko dabe; ta au adierazoteko, «zizari-bedar edo ajenjo deritxon bedar garratza jaten emongo dautsela, ta sugeen beaztuna edaten», diño Espiritu Santuak. «Sapuak, sugeak, parasmak eta osterantzeko piztiak jan-erazoko dautsela», diño San Antonino'k.



GORPUTZ GUZTIAK.—Ez dira ainbeste pekatu ta ain aundiak gorputzaz egiten? Ez da Jaungoikoaren Legea zapaltzen atsegin apurtxo bategaitik? Beraz, andiak izan bear gorputzaren oiñaze ta miñiak.

Itxi albo batera deabruak emoten dautsen naigabea; ta ori, Beda Eliz-Guraso Santuak diñoanez, zapalduta itxiko dabezala, lantegi (fabrica) burdiñea mailluaz zapalduta izten dan antzera. Itxi, gaiñera, galduak euren buruai ta batak besteari ainkaka ta txitximurka emongo dautsezan miñiak; eta suaren aldetik artzen dabezanak bakarrik ikusi dagiguzan.

Eta, lenengo, gogoratu emengo sua angoaren gerizea be ez dala, Eliz-jakitunak diñoenez; emengo sua Jaungoikoak geure bearrianetarako egiñikoa dalako; angoa, barriz, galduak zigortzeko.

Artu arrast edo pospuru bat, eta asi atzamar-ertza erreten. Egongo nintzake posporu ori amaitu arte? Eta kandela bat? Zer izango litzakit, ba, su orrek ez toki bat edo beste, gorputz osoa erreko ba'leuskit? Ba, inpernura joan ba'nendi, gorputz oso au eukiko neuke erreten; sartuko litzakit sua ago ta surretatik, zabalduko litzakit erraietan, eta barru ta azal erreten egongo nintzake.

Ai, nire errukarria, nire garraziak! Sutondoan naiz plantxetan zagozala esku-gaiñera txingartxo bat jausi ezkeru, unetxo baten be ezin euki daikezu. Zelan igaroko dozu su ain gogorra, ain luzarohan?

## LAUGARREN ATALA

### *Inpernuko atsekabeen betikotasuna.*

Batu dagiguzan esan doguzan inpernuko atseka-beak: *Adimenaz* ikusten dau galduak pekatuaz bere gogoari ekarri dautsan ezaintasuna, Jaungoikoa ta zerukoen aurrean atsiturik agertzen dala. Jaungoikoa, oso asarretuta ikusten dau; ta atsegin-artean zoriontsuak.

*Gomutamenaz* gogoratzen dauz lurrean euki ebanan aukera ta aberastasunak, pekatuko atsegiñiak, min ain andiak ekarri dautsazanak; gogoratzen dau emen alperrik galdu eban astia ta Jaungoikoagana biurtzeko une ederra, geiago izango ez dauana.

*Naimenaz* ezin ezer maitatu, gorrotau bai, ostera, lurreko ta inpernuko gauza guztiak.

*Begiakaz* ikusten dauz deabruak, pekaturako lagunak, eta berak pekatu eragin eutsenak.

*Belarriakaz* entzuten dauz deabruen deadar eta irrintzi ikaragarriak; galduen negar, ululu, deadar eta biraoak.

*Dasta* edo gustuan, gose-egarriak.

*Gorputz guztian*: deabruak emoten dautsezan miñiak; eta, batez bere, suagandik artzen dauana.

Ainbeste atsekabe, gogoan ezin artu-ala, ta ain andiak, guztiak igaro bear dauz batera galdu errukarriak, eroapen (pazientzia) apur bagarik; zeruan ez lurrean beratzaz errukituko danik agertu baga, itzaropen apur bagarik, atsekabe guzti onetatik bat

be, unetxo baten be, ez kendu, ez gitxitu bagarik. Egon ezin, eta egon egin bear!

Zer izango litzake buru, begi, belarri, agin eta urdailleko miñik zolienaz, guztiak batera, ezin egonda, garrazika, birauka, bat ikustea? Alan ba, zer dauke oiñaze guzti orreik ikustekorik, esan doguzan su-lezakoen ondoan?

Zer egingo dau, beraz, inpernuko errukarriak? Il bere burua? Ai!, al ba'leu! Esker anditzat artuko leuke norbaitek iltea. Eta ona emen, Jaungoikoaren eta gizonen indarren artean dagoan aldea: gizonak emon leikeen errusari edo kastigurik andiena, eriotza da; Jaungoikoak inpernuan emoten dautsezan atsekabeetan, barriz, gozagarri anditzat artuko litzake eriotza.

Zelan batu daike Jaungoikoak berak be gizon baten buruan min, oiñaze ta atsekabe geiago? Alan be, esan doguzanak, ez dira inpernuko atsekabeak; eroapenik eza, deabruak emoten dabezanak, eta geien-geien beste oiñazen bat kendu ezkeru, beste guztiak Garbitokian (purgatoriu) aurkitzen dira. Inpernuko atsekabeak inpernukoak dira, betiraunagaitik.

Noiz arte egon bear izango ete-da galdu errukarria ainbeste miñez, guztiak batera, bat be gitxitu bagarik, ez erruki ez eroapen bagarik? Eun urte? Geiago! Milla, milloi bat urte? Geiago. Noiz, ba, amaituko dira? Iñioiz be ez!!!

Egin dagidan gaur jausten dala bat inpernura; eta gaur bertan doa txindorri bat Oiz'ko mendira; ar-

tzen dau lur-garau bat, eta Bilbo'ko zabalunera daroala. Beste gizaldi bat, eta beste garau bat daroala, gizaldi bakotxean lur garau bat atarata. Aldenduko ete-leuke Oiz'ko mendia Bilbo'ra? Bai! Baiña nok esan zenbat gizaldi bear izango litzakezan orretarako?

Eta txindorri orrek lenengo lur-garua atara ebanean, inpernura jausi zan gizasemea, nun dago? Inpernuan! Eta zer egin dau bertan? Ainbeste gizaldi, zetan emon dauz? Aldi guzti orretan egonda, len ikusi doguzan oiñaze guztiak igaroten, guztiak batera, bat gitxitu bagarik, erruki ez eroapen bagarik, poz-aldirik txikienik izan bagarik. Eta onela iñioiz amaitu bagarik.


Zer da au? Nor ez da ikaratuko? Nok ez dau ikusiko pekatuaren astuntasuna? Nor ez da arrituko Jaungoikoaren zuzentasunaz? Nor egon pekatuan, bat-batera il eta Jaungoikoaren kartzela itzel aretan sartzeko arriskuan?

Baiña bildur naz, Jauna, oraindiño pekatu egin, eta betiko galduko ete-nazan. Eta nok daki lenengo pekatua izango dodan nire arimako ontzia betiko ondatuko dauan azkenengo ur-tantea? Ez, ez Jauna, geiago pekatu rik! Ez neuke nai; baiña nire asmoa gora-bera, argala naz; eta erraz ostera be jausi naitete pekatuan. Ez, Jauna, olakorik! Lenengo pekatuakaitik asarratuta ba'zaukadaz, zigortu, nai ba'nagizu; zigortu, ebagi, erre ementxe; baiña gero parkatu. Nire eskariai ez yake zor, egia da; baiña Zeu

zara Ona, ontasun guztien iturria; ta egizu, ez naitela erreten egon betiko su-artean.

Jesus'en Biotz, biotzik maitatzailleena! Oraintxe bai argi dakusdala Zuk maite izan nozuna! Gaur nun egon bear neban? Inpernuan!, betiko garrazika, atsekabe ain andien erdian, Zuri birao-urtika! Eta nun nago? Lurrean, Zeure aurrean, Zeu maitatzen. Nik baiño pekatu gutxiago egin daben ainbesteri, parkatu ez; eta niri bai? Zegaitik? Areik baiño askozaz maiteago izan nozulako. Eta nik Zu gelago iraindu? Nik Zu gelago maitatu ez? Maitatzen zaitut, Jauna, biotzeko indar guztiaz. Maite zaizela, ta eskerrak egin dagizuezala neure izenean zeruko aingeru ta lurreko gizaseme santu ta gauza guztiak. Noiz ikusiko nago, Jesus On ori, Zeure arpegi ederra, Zeure aurrean belaunikotu, ta mesede andi onegaitik betikotasun guztian eskerrak emoten jarduteko.

Eskerrak Zuri be, Andra Maria, neure Ama maite orri, zeure bitartez Jesús errukiorkak mesede ezin-esan alako au egin daustalako. Zeugaitik ez ba'litz, zer izango zan nizaz? Eskerrak, ba, Andrea, erreten ez nagoalako.



## ZORTZIGARREN GOGARTEA

ERIoTZA

LENENGO ATALA

*Bildurgarria da eriotza bere aurretik dakazanakaitik.*

Eriotzak, gauza bat dau ziuerra bere aurretik: etorri-bearra. «Gizonentzat bein iltea erabagita dago», diño Espiritu Santuak. Erabagita, ta Jaungoikoak erabagita. Nok ezetzik esan? Nok aldatu Jaungoikoaren epaia? Ez dago indartsurik, ez aberatsik.

Nun dira nire gurasoak? Nun senideak, lagunak, adiskideak, auzokoak? Deitu!... Guztiak dagoz ixilik; edo obeto esateko, guztiak erantzuten daukue obitegi edo kanpu Santuko lau azurrakaz: «Gaur, niretzat; biar, zuretzat. Zeu zarana izan gintzazan; geu garana izango zara».

Mundura dator bat; ez dakit aberatsa ala ezeukia, zorionekoa ala zoritzarrekoa, ona ala deungea izango dan. Baiña gauza bat esan daiket: Mundura etorri da? Urten be egingo da. Gizonezkoa da? Andrazkoa da? Ilgo da.

Bai; nai-ta nai ez, il egingo gara! Aragiak ez dau entzun nai esakune gogor au; baiña naita-ez, il egin bear. Etorriko da egunen bat, eta begi oneik, edegita egonarren, ez dabe ezer ikusiko; belarri oneik, ez dabe ezer entzungo; min au isilik egongo da; oin oneik, geldi; gorputz guzti au, otz, gogor, itzel.

Itxiko dodaz gurasoak, senideak, lagunak; diruak, jolasak, atsegiñak, lurrean maite nebazan gauza guztiak.

Artu, ta eroango nabe iñoren sorbaldetan; abade jaunak abestuko (kantauko) dabe il-otoitza, ta gero, azkenez, esango dabe: «Requiescat in pace: Banean bego». Nor? Neu!

Egiak dira oneik? Sinisten dozuz? Ezetz dirudi! Auzi-epailleak eriotzarako epaia emonda ba'zengoz, zure estutasuna! Ze barre-gura gutxi! Ba, gizonaren epaia ez, Jaungoikoarena daukazu zeure ganean; laster datorkizu epai ori irakurtera; edo obeto, arnasa bako txak izentatzen dausku auzi-epailleari bidera urteteko emoten dogu oinkada (pausu) bat. Eta ez zara bildurtzen? Barreka diarduzu?

Jan-edan ederra ipiñi batek; baiña ezpatea, ari me batetik dingillizka maikide bako txaren buruganean. Ez eban iñok kopaurik artu. Eriotzako ezpatea be bardin, geure buruaren gaiñe-gaiñean aririk mei-

enetik daukagula gagoz; noiz jausiko dago. Eta guk barre, jolasez, lurreko gauzaz asetu eziñik ibilli?

Egin dagigun beste gizon guztiak illeziñak dirala; zelan ibilliko ete-litzakez? Eta neu bakarrik ilkorra izan, eta euren jolas, jan-edan eta beste atsegiñetan eurakin batu ba'nendi, zer esango leuskide? «Zetan zatoz gugaz? Zu ez zara gutarikoa; tira bakartegira, zigortu zeure gorputz ori, egin otoitz ta beste egitada on asko, laster il bearra izango dozu-ta». Alan eta guzti be, jaramon egiteke, euren antzera bizi ba'nendi, zorotzat ez nenduke artuko?

Ba, besteak ilkorrak naiz ezilkorrak izateak, niri ez daust ezer ez kendu, ez ipinten. Ni, ilkorra naz; laster lurreko gauza guztiak itxi bear izango dodaz. Zelan, ba, maite dodaz? Ez dozu ikusten, ene arima maite orrek, zirt-zart datorkizula eriotzako kodaiña? Ganean dozu! Ebagiko dautsuz zure biotzetik munduko gauzetara botata daukazuzan maitasun-lokarrak, eta bakarrik itxiko zaitu. Gurasoak emen, seme-alabak, lagun maiteak emen, jolasak, atsegiñak emen; eta zu bakar-bakarrik, zeure egintza on eta txarrak lagun dozuzala emendik beste mundura: *egintza onak*, orra or zure benetako aberastasunak, beti lagunduko dautsuenak!

Eta ez da negargarria, biar edo etzi itxi bear dozuna aberastasunen billa gau ta egun, jai ta aste, euri ta aterri, zoratuta lez, alegiñik aundienak egiten jardutea? Eta arima ederra, zokondoko mantar zatarrari baiño geiago jaramon egin bagarik, egintza onez aberastu bagarik?

2'garren.—EZ DA ZIURRA ERIOTZA bere aurretik daukazan zertzelatasun batzuetan, eta onetxek egiten dau oraindiño bildurgarriagoa.

NUN ilgo naz? Errian ala erbestean?, kalean ala etxean?, jaten ala ogean nagoala? Ez dakit!

ZELAN ilgo naz? Il egingo naz, ala il egingo nabe? Geiso luze baten ostean ilgo naz, ala bat-batera? Eta, batez be, Jaugoikoaren adiskidetasunean ilgo naz, ala Bere asarrean? Ez dakit!

NOIZ ilgo naz? Zartzaroan, ala gaztetan? Urte asko igarota, ala aurten, ille onetan, aste onetan, gaur berton? Ez dakit! Ordu bete be ez daukagula ziur, dirausku Jesukristo gure Jaunak. Pekatuko bide au itxita ilgo naz, ala itxi orduko? Ainbeste galerazoten dausten arazo onek amaituta, ala lenago? Ez dakit! Ezertxo be ez dakit! Edo-ta obeto esateko, gauza bat dakit, Jesukristo'k erakutsita: «Uste ez dagidanean ilgo nazala. Gau-lapurra lez etorriko yatala».

Au ba-dakit; eta nabillen lez nabil? Jakin ez bat-batera etorriko yatan eriotza; pekatuan etorten bayat, betiko galdua izan, eta nasai-nasai pekatuan egon? Neure atzean eriotza, azurrezko besoan kodain zorrotza dakarrela, zirristada baten samea kentzeko; aurrean inpernua, agoa zabalik, neu iruntsiteko; ta barreka, pozez ibilli? Zer da nire itsutasun au? Ene galdua! Edo ez daukat sinismenik, edo ez daukat bururik.

## BIGARREN ATALA

*Bildurgarria da eriotza bertan jazoten diranakaitik.*

1.º—*Geisoa* agertzen da, ta bai isilik sarritan! Ez dirudi gauza aundia, buruko min bat, albokoa. Osa-tzailleari dei egiten yako. Ez dau txarrik ikusten. Urrengo egunean, arpegi illunagoa erakusten dau; ta ba-diño: «Ekarri abadea!» Mendi bat lez jausten dira berba oneik entzuten dabezanen senide ta lägunen biotzen gaiñera. Ezkututzen yako batzuetan geisoari bere egokerea; baiña, txarragoaren bildurrez, esaten dautse: «Urlia!, ez da gauza aundia, baiña osatzaillak... abadea...!» Au entzundakoan, geisoak: «Zer? Onen txarto nago?».

2'gn.—*Abadeari* deituta, geisoaren estutasunak eteten dabezan une batzuetan, egiten dira kontuak, sarritan urte askotakoak. Ondo egin daitekez, egia da: pekataririk aundiena azkenengo unean biurtu daiteke Jaungoikoagana. Baiña gorputza estu, miñez ezin egonda; burua astun, biotza illun, azken-naia edo testamentua egin bear, asti gitxi: au da biotza aldatzea baizen arazo gatxa egiteko erarik onena?

Ai, Jauna! Oraintxe, astia emoten daustazunean, burua argi, biotza baketsu, osasunez, zuzendu nai dodaz neure gogoko gauza guztiak. Oraintxe nai dot benetan Zureganatu neure biotz au. Ama Maria, lagun zakidaz!

3'garren.—*Esribaua* be ba-dator, eta geisoari dirautso: «Urlia! Nori izten dautsazuz zure ondasunak?» Eta geisoak, edegi bere ezpan orituak, eta ber-

ba motelaz erantzuten dautso: «Etxeak, urliarentzat izten dodaz; soloak, berendiarentzat; onenbeste diru, onentzat eta arentzat...» Guztia itxi, itxi...! Eta berarentzat, zer izten dau? Ezer be ez. Zazpi oiñeko kutxa edo kaxatxoa, soiñeko zar bat, lur-zulo txiki bat: naiko da. Eta errukiz emon ez ba'dagitse, ain bagarik geldituko da.

Zelako atsekabea aberastasunak maiteegi izan dauzanarentzat! Ainbeste izerdiz lorturiko lauhoak, noren eskuetara iges egingo ete-dauste? Eta geriza lez iges egin bear dausten diruok batzeko onenbeste alegin? Ai!, benetako aberastasunak, beti neugaz eukiko nebazanak, jaristeko, alegin orreik egin ba'neuz!

4'garren.—*Iltamua* (agoliña). Aurrera doa geisoa; geroago ta estuago dago: izerdi lizunetan, surra zorroztuta, belarri ta ezpan-ertzak ori, begiak erdi-itxita; agoa zabalik, agiñak agirian; bularra jasota, arnasoska: eldu da unerik estuena, iltamua!, agoliña! Gurutzeko Jesus, aurrean; kandela bedeinkatua alboan; senide ta lagunak negarrez inguruan; abade jauna liburu santua eskuan daukala ondoan... Areik dira uneak! «Urten, kristau-arima, mundu onetatik!, Jaungoikoaren eta Santu guztien izenez. Bigun eta gozatsu agertu dadilla Jesus'en arpegia», esango dautso abadeak.

Geisoa, arnas luze batzuk emonda, geldi geratzen da, ago ta begiak erdi-zabaldik: il da!

## IRUGARREN ATALA

*Bildurgarria da eriotza bere ostean datozanakaitik.*

1.—*Arimearen aldetik*.—Arimea gorputzetik urten eta bat-batera agertzen da Jesukristo'ren auzitegian (juizioan). Baiña itxi daigun au beste gogarterako.

2'garren.—*Gorputzaren aldetik*.—Kentzen dautsez aren soiñekotxoak; garbitzen dabe; jasten dautse beste soiñeko bat, ez geienean onena. Aren otza! Gogor-gogor dago! Nor da beragaz bakarrik gau osoan egon nai dagiana? Zerraldoian (ilkutxan) sartzen dabe, ta iñoren lepoan daroe illobitegira, berak pekatuz bete ebazan kaleetatik zear. Zazpi oiñeko zuloan ipinten dabe; lur apur bat botaten dautso abadeak; zuloa beteten dau obiratzailleak (enterradoreak), nai dauan guztiak zapaldu dagian, mundu guztia ostikopetu nairik ibilli dan gizon edo emakume arroa: axe izango da aurrerantzean ildakoaren bizi-lekua: estua, illuna, isilla, itzela.

Astunak dira oneik gure arrokeri ta bigunkeria-arentzat; baiña ez da besterik gure azkena. Guztiok emendixek igaro bear dogu; ta zetako da bigunkeri geiegia? Begiratu ta ikusi daigun ba, arpegiz-arpegi, gure azkena.

Bigarren egunerako, gorpua koloreak aldatzen asten da. Lasterrera, ez dago iñor, darion atsari arpegi emongo dautsanik. Arrak, ainkaka, zuloak egiten dabez erpegian, begietan, gorpua guztian. Ogeigarren eguneruntz, aragia azurretatik banandu egiten

da, burua be bai gorputik; gero, iztarrak, besoak. Iru urte!, ta zer biurtu da mutil sendo a? Azaletiko edertasunaz ainbeste errukarriri zoratu erazo eutsan emakume arro a, zer egin da? Aizeak eroan dauan lurrun atsitu apur bat, esku bete lur baltz, lau azur: orra dana!

Gaztea naiz zarra; ederra naiz ainbestekoa ez dana; aberatsa ta ezeuki edo txiroa; bardina da guztion azkena. Agiri da, bai, illobietan be ez-bardintasuna, arrokeria apaltasunaren ikastolara (eskolara) be igo da-ta. Baiña barutik usteltasun batek bardintzen dauz guztiak. Edegi errege-obi bat: ez dozue ezagutuko errege ala basenritarrenak diran aurkitzen dozuezan azurrak.

Ez dozu ikusten, ene arima orrek, zer dan lurreko edertasun guztia? Lau azur, azal apur bataz estalduta. Ba-dator eriotza, oratzen dautso uleetatik, azala erazten dautso, ta dan lez, azur utsean geratzen da.

Eta azaletiko edertasun ori orrenbeste maite izan dozu? Jaungoiko ain andi, eder eta ongillea, orregaitik itxi dozu? Eta zoratu egingo zara, ostera be, utsa, usteltasuna, guzurra baiña ez dan edertasuna maitatzeko?

Euki, nai dozun beste arrokerizko asmo ta penzamentu; baiña laster nai dagian guztiak ostikopetuko zaituala jakin egizu. Edertu errege-jauregi aundiak alde guztietako edergarri ta lorategi apañez: urte gutxi barru lur-zulo edo orma-zulo bat izango da zure etxea. Apaindu sedaz ta bitxiz gorputz ori;

baiña ez aztu arrak izango dirala zure jantziak. Jan asko ta ondo; baiña eztegu geiago eukiko dabe obitegiko arrak. Batu dirua, jai ta aste, geratu bagarik: txiro beartsuenak baiña geiago ez dozu mundu onetatik atarako.


Ai, obitegia, obitegia! Zeu zara griña txarrez lausoturiko begiak argitzen dauskuzuzana; zeu zara erakuslerik jakitunenak ezin erakutsi daikena, unetxo baten erakusten dauskuzuna: ondo bizi ta ondo ilteko jakituri sakon eta ongillea.

Obitegia, obitegia! Zu bai gorrotatzen zaituala mundu barri gaizto onek! Urrundu egiten zaitu apurka-apurka beragandik! Al ba'leu, jaurtiko zendukezan, bai, itxasoko aitzik ezkutuenara, zeu ikusiak mingostu ez dagiozan bere ezbeguak!

Ez nik! Josi dadilla nire barru-barruan zure gogotea. Gogoratu zaidazala andinaietan beeratzeko; aragiaren zirikaldietan, otzitzeko; munduko iruzur (engañuetan), argitzeko; egintzetan, obetzeko; pozaldietan, erdiratzeko; illunaldietan, sendotzeko; eta beti ta gogaldi guztietan, munduan erbestekoa lez ibilteko, ta zerura begira egoteko.

Jesus'en Biotza! Eskiñita daukazu, eriotza gozoa izango dabela maite zaituenak; Zeu izango zakioezala aterpe ta gordeleku ziurra aldi larri aretan! Bete neugan agindu eder ori. Andra Maria, neure Ama maitatzaille ta errukiorra: lagun zakidaz estura, larritasun eta arrisku ain bildurgarrian; «erregutu nire alde, orain eta neure eriotz-aldian». San Juan de Dios'i Zeure maitetzailleentzat agindu eutsazunez,

ikusi dagidala zure laguntasuna, deabruaren ekiñal-  
dietatik zainduaz; Zeu ta Zeure Seme Jesus'en ar-  
pegi ederra ikustera, eriotzako atetik igarota, ze-  
ruetako atsegintzara joan naiten.



## BEDERATZIGARREN GOGARTEA

KRISTIÑAU ZUZENEN ETA GAIZTOEN ERIOTZA

### LENENGO ATALA

*Kristiñau txarraren eriotza.*

Iru iskillukadaz il eban Joab'ek Absalon; iru pen-  
tzamentuk, iru iskillukada lakoxeak, igaroko dabe  
batetik bestera ilten dagoan deungearen biotza: *len-  
goak, oraingoak eta gerokoak.*

1.—LENGOAK.—a) *Atsegiñak*: Zer daust orain  
—gingo dau geisoak—, izan dodazan atsegin guztia-  
kaitik? Zetako dodaz, euren gomutaz neure miñak  
geitzeko baiño? Gerizea lez joan yataz, eta esku  
utsez itxi nabe, bakotxak biotzean ezpata bat sar-



tuta. Ai!, gozoak dira bizitzan atsegiñak; baiña mingوتا da euren azkena; sugeak lez, eztena sartuta izten dabe.

b) *Pekatuak*: Pekatuak bizitzan biotzeko zokondoan sartuta egoten dira. Baiña eriotz-aldian leoi lez urteten dira, agiñak eta erpeak zorrozten dabez, eurak sortu ta asi daben biotza zatitu ta jateko.

Antioko Erregek, ogean etzunda egoan tokitik Jerusalem'eruntz begiratuta, egiten eban: «Oraintxe bai gogoratzen dodazala Jerusalem'en egiñiko gaiztakeriak!» Auxe berau esango dau pekatariak be eriotz-aldian: Oraintxe bai gogoratzen dodazala egin dodazan gaiztakeriak! Andra Maria'k, Aingeru-jagoleak, sermolariak, liburu onak, benetako lagunak gogoratzen eustezan; baiña nik neure jolasakaz, neure ibillera txarrakaz, neure irri ta barre gangarrakaz ito egiten nebazan; eta orra nun datorkidazan pekatuzko olatu bat eginda, euren ur loi, baltz, atsi-tuetan artu ta inpernuko ondarretaragiño amiltzeko.

2'garren.—*Oraingoak*: a) *Aberastasuak*: «Zeta-ko dodaz ainbeste alegiñez baturiko diruok?» —egin-go dau berekautan geisoak—. Unetxo bateko aldendu daiteke eriotza? Eta geien bear dodazanean, ezetako ez dodazan aberastasun onen ondoren ibilli naz, jo ta su, beste egitekorik ez bai-neban!

Aberats bat ilten egoan —diño ondo ilten lagun-teraz joan yakon A. Barry Jesus'en lagundikoak—; batu ebazan oge-gaiñean bere diru, urrezko ontzi ta beste bitxi ederrak; artu eskuetan batean bata ta bestean bestea, ta zotin luze baten ostean egiten

eban: «A!, nire aberastasun maiteok, noren eskue-tara joango ete-zarie!» Alako zorakeriai izteko ta bere arimeari begiratzeko, esaten eutsan jesuiteak; baiña alperrik: ondasunai oratuta, arimeari deabru-aren erpeetara joaten itxi eutsan.

b) *Lagunak*: Or daukazuz zeure lagun maiteok: eurai atsegin emotearren, sarritan Jaungoikoa irain-du dozu. Jagi daitezala ba, ta larrialdi onetan la-gundu dagizuela. Ai! Ezin daiketsue ezer egin, ez eriotza apurtxo bateko aldendu, ez miñik gutxitu; geitu bai, eurak itxi bearreko damuaz; eta onenean, eurakin egiñiko pekatuen gomutaz.

Eta beste lagunak, nun dira? Ez eutsuen esaten maite zenduezala, edozer egingo leuskizuela? Ez zai-tuen zu maite, zeure gauzak baiño; ta orain ezin lortu daikeezanean, bakarrik izten zaitue. Eta guzu-rrezko lagun onekaitik, betiko itxi dozu ain benetan maite zenduzan Jaungoikoa?

Jesus'en Lagundiko bat espetxe edo kartzela ba-tera joan zan, urkatzeko euken baten autorkizuna. (konfesiñoa) entzutera; ta Gurutzeko Jesus eskue-tan ebala, negarrez aurkitu eban. Jesuitea beragana joiala ikusi ebanean, esan eutsan: «Jaun oni egin dautsadazan iraiñakaitik nagoala negarrez, uste izango dozu. Ez! Berrogei urtean berau baiño arerio andiagorik ez dot euki; ta orain beronegaz, baka-rrik, aurkitzen naz. Neure lagunak atsegintzearren, Jesukristo'gandik aldendu egin nintzan, eta emen, orain, bakarrik itxi nabe, ainbeste samindu dodan Jaun onegaz».

Zer izango litzake, barriz, norbait estualdi artean aurkitu ezker, lagun txarren bategaz lotuta? Zer uste izango leuke eriotzako kodaña etorri ba'ledi biotz bi areik banatzera?, ez lagunen eskariak, ez guraso ta autor-entzulearen (konfesoriaten) aginduak, ez izen onaren bildurrak, ez barruko (kontzientziako) deadarrak, ez Jaungoikoaren zigorra, bata besteagandik ezin banandu izan dabezan biotz bi areik aldentzera? Bein baiño sarriagotan ikusi izan da, ez eriotzaren aurrean, ez iltera doana erabagiteko aurkitzen dan Jesukristo'ren aurrean, ez dabela itxi nai izan euren pekatuko laguna; ta berari oratuta joan dirala lagun maitearen aurretik, Auzi-epaillaren begi itzeletara; ta aren beso bigunetatik deabruaren suzko besoetara.

d) *Deabruak*: Pekatuai ainbeste jaramon ez egiteko, esaten dausku bizitzan; ez dirala guk uste doguzan baizen andiak, gero bein edo birritan bularra jo-ta, Jaungoikoak parkatuko dauskuzala. Baiña estualdi aretan pekatu-talde aundia ekarten dau burura, geitu ta aunditu egiten dauz, Jaungoikoa asarratuta dagoala, ez dagoala astirik, nai ta nai ez galdu bear dala... Ain itzel eta bildurgarria ba'da beti deabruaren arpegia, zer izango da ordu larri aretan agertzea?

Agustin deunak diñoanez, ez da iñor ilten, deabrua zelanbait ikusi bagarik. Eta San Zirilo'k: bizturiko batek esan eutsala, zenbatu ezin-ala deabru agertu yakozala il-orduan.

Zerbait artzeko daukana, sorduna errian dagoan

artean, ez da ainbeste estutzen; baiña erritik urte-teko ba'dago, ezin itxi dautso bakean: orduan izten ba'dautso, betiko galdua dauala ba-daki-ta.

Alan ba, beti ba'dabil deabrua gure inguruan norbait iruntsi nairik, zer izango ete-da, geiago astirik ez daukala ikusirik, azkenengo irabazia axe dala-ta, amurrurik bizienaz iltamuan estu-estu dagoanari agertu dakionean?

Eta mirari izango da, deabru ain gogorak, su ta gar arima errukarria galtzera datozanak, gizon makala, ainbeste bidar azpiratu izan dauana, arimarako sarlekuak ondo dakiozana, une baten azpiratuta iztea?

Ez dagiodan deabruari bizitzan neure ariman sartzen itxi, eriotz-aldian be sartu ez dakidan. Kendu dagiodazan oraintxe lokarriak, pekatuak, orduan nundik oraturik izan ez dagian. Ez dagiodan itxi atsegiñai biotzean sartzen; nai-ta-ez itxi bear dai-dazanean, eurakaz batean josita dauken biotz-zatia eratsi ez dagiden. Ito dagidazan oraintxe negarretan pekatuen piztiak, gero iruntsi ez nagien. Ez nadin lagun txarrakin batu, eurakin egiñiko pekatuen gomuteak, ordu larri a, larriago egin ez dagidan.

*Gerokoa*: Ain itzel eta bildurgarria izanarren ilten dagoan pekatariaren *lengoa* ta *oraingoa*, askozaz be txarrago da bere *gerokoa*. Baiña au, urrengo gogarterako izten dogu.

## BIGARREN ATALA

*Kristiñau onaren eriotza.*

Lengoa, oraingoa ta gerokoa, guztia da emen pozgarri.

*Lengoa:* Atsegiñak ez dabe mintzen; lenago, zur-tasun andiaz, itxi dauz-ta.

Pekatuak be ez dabe estutzen, negarraz txikitu ta ezereztu dauz-ta.

*Oraingoa:* Ondasunak! Euki ba'dauz be, biotzaren azaletik euki dauz; ta ez yako astun egingo betiko iztea.

Lagunak: Bere poz aundia arekin! Agur —dirautse—, agur lagun maiteok; ba-noa!; an itxarongo dautsuet; andixek eskatuko dot zuen alde! Agur! Gero arte!

Deabruak agertu ba'dakioz (agertzen ba'yakoz), bildur gitxi. Lenengotan, apurren bat; baiña Jesus eta Andra Maria'ren laguntasunaz, laster iges eragiten dautse, arrapataka, bata bestearen gainean.

*Gerokoa:* Jesus onak poztuko dauana! Erdu —dirautso aren barruan—; erdu, miña, ezeukia, ezeztia, deabrua, pekatua ta gaiztakeria baiño ez dagoan mundu gaizto orretatik. Erdu! Ez dago geiago zuretzat ez otzik, ez berorik; ez miñik, ez geisorik; ez eriotzarik, ez jazarpenik; ez arriskurik, ez pekatu-rik!

Eta Andra Maria'k? Pekatarien Ama ez da? Errukia ber-bera ez da? Beraz, zelan lagundu ez, ba, bere semeari, ain Bere bearrez dagoanari? Ez dautso be-

rogetamar bidar gutxienez eskatu, errosarioa esan dauan bakotxean: «Erregutu egizu gu pekatari- on alde, orain eta geure eriotzako orduan?» Eta Andra Maria'k lagundu ez?


Andra Maria maite izan dauanaren zoriona orduan!; zorionekoak San Jose'ren oneraspena (deboziñoa) izan dabenak, Aren antzera Jesus eta Maria'ren laguntasunaz ilteko; zorionekoak, batez bere, Jesus'en Biotza maitatuaz, onen agindu eder au beteta ikusten dabenak: «Neuk atseginduko dodaz bizitzan eta batez be eriotz-aldian.

Orra or, ene arima maite orrek, Jaungoikoak aukeratzeko emoten dautsun bere onepen (bedeinkaziñoa) edo gaitzespen (maldiziñoa), eriotza ona edo txarra; zeure eskuan dozu. Eta orren buru bagea izango zara, bedeinkaziñoaren ordeztaldiziñoa; eriotza onaren ordeztaldiziñoa txarra; betiko bizitza artu bearrean, betiko eriotza aukeratzeko?

Ez? Ez aztu, ba: eriotza ona, bizitza onaren oiua baiño ez da. Eriotza ona nai ba'dozu, artu bizitza ona, zuzena; bestela, galduen eriotza dozu gainean.

Jesus'en Biotza, neure Ama maite Andra Maria, San Jose doatsua: lortu egidazue zeuenaren antzera, santuen eriotza, ta orretarako bizitza zuzena.





## AMARGARREN GOGARTEA

BAKOTXA BERAREN AUZIA (JUIZIOA)

### LENENGO ATALA

*Auzi-epaillearen (juezaren) aurrean aurkeztutea.*

Amaita bidar, Jaungoikoak deituarren, ez entzun egiten dautsagu; edo-ta geienez, «gero» erantzun! Baiña ildakoan, ez dago ezetzik, ez dago luzapiderik. Ez leuke agertu nai arima deungeak Jesukristo'ren aurrean; eta nai-ta-ez, agertu egin bear; iges egin nai leuke; baiña, katez lotuta lez, geldi egon bear.

An dago, ba, auzitegian. Nun? Il dan tokian bertan. Nun ilten da geienetan? Ogean. Ogea izango da geienon auzitegia. Gauza santua izan bear leuke ogea kristauarentzat. Ogerakoan, egizu: «Ementxe erabagiko nau Jesukristo'k».

Urten arimea gorputzetik, eta zer ikusten dau lenengo? Jesukristo gure Jauna, illen eta bizien Auzi-epaillea. Zelan? Pekatu astunean il ezkeru, arpegi guztia asarratuta, begiak oiñeztarria baiño argiago. Bere aurrean jausten da auzpaz pekataria, ta gurtzen dau, deabruak eurak, nai-ta-ez, Jauntzat eza-gutu ta autortzen dabena.

### BIGARREN ATALA

*Auzia.*

Iruditu, ba, baktokak bere burua, arpegia lurrean josita, laguntzaille bagarik, pekatuz beterik, deabruz inguratuta; eta aurrean Auzi-epaillea, «guztia daki-ana», ezaupidera eldu zanetik ordurarte euki dauzan gogapen (pentzamentu), gurari, berba ta egintza guztiak gogoan daukazana. Auzi-epaille guztiz Santua, aingeruetan eurretan be loa aurkitu ebana, pekatuari gorroto ain aundia dautsana, pekatua ilteko bere bizitza emon ebana. Auzi-epaille «guztiz zuzena», ez eskariz, ez bildurrez, ez sariz biguntzen ez dana. Auzi-epaille «guztiz Ona», ainbeste on egin dautsana, guztien ordezkertxarra baiño artu bagarik. Auzi-epaille «eroapen guztiz aundikoa», gaiztakeriari ordurarte ez-ikusit egin dautsana, bere asarrezko olatuari, gaiñera jausi ez dakigun, eutsiten egon dana...

Zer egin daike, ba, pekatariak, bere aurrean ikusirik, pekatariak asarratuta, Auzi-epaille neurri baga

Jakituna, Santua, Zuzena, Ona, eroapen ain aundi-koa? Nogana zuzenduko da? Maria'gana? Zelan, aren Biotz samurra ainbeste bidar samindu, aren Seme maitearen Odola zapaldu, ta arimak aren Biotzetik ostu ta deabruaren erpeetan, galbidez, eskandaluz, jaurti ba'dauz?

Nora joko dau ba, orduan? Aingeru-jagoleagana? Baiña aren esanik ez eban egiten-eta? Deabrua izan dau adiskide; deabrua izango dau salatzaille be. Aurrean jarriko dautsaz pentzamentu, gurari, berba ta egintzaz egindako pekatu guztiak, gogoan ebazanak eta azturikoak. Ai!, aren pekatu pilloa!

Orduan, garaitzaille-antzera esango dau deabruak: «Jauna: ona emen pekatari gaizto au. Ba-dakizu zelako mesedeak egin dautsazuzan? Eta nun da eurai zor yaken eskerrona? Niretzat, barriz, orren arerio-rik aundiena izanarren, beti izan da esaneko ta zintzoa. Zeu bakarrik maite izango zenduzala agindu eutsun Bateo santuan, ez ni, ez mundurik, ez aragirik. Begiratu ia guztia bestetara eskifñi ba'leu be, egin dauana baiño egingo ete-eban. Neurea izan da au orain arte; neurea izango da betikotasun osoan».

Jesukristo'k be, begi bi tximistea baiño sutsuagoak ezarten dautsaz; eta arako zugatz (arbola) tantalak ebagiten dauzan deadarraz, dirautso: «Galdu orrek!, zeu lakoa izango nintzala uste zenduan? Gaiztakeria edan, edontzi edo baso bete ur lez, eta zeurekautan esaten zenduan: «Eta zer egin dot?» Zer? Oraintxe ikusiko dozu. Emon egidazu kontu!».

Au esanda, liburu aundia ataraten dau, pekatari

orren bizitza guztia daukan liburua. Alde baten, Jesukristo'ren mesede guztiak daukaz; bestean, bako- txari erantzun dautsana.

Edegiten dau, ba, liburu au, ta deadar ikaraga- rriaz, dirautso: «Emon kontu!».

Neuk emon neutsun gorputz ori bere begi, belarri, miin, esku, oin eta beste zati guztiakaz: zetan era- billi dozuz? Neuk emon neutsun arima eder ori: bere adimenaz Neu ezagutzeko; naimenaz, Neu bakarrik maitatzeko; gomutamenaz, Neu ta neure ondo-egi- ñak gogoratzeko: ori egin dozu? Neuk idatzi neu- tsuzan biotzean Amar Aginduak: izentau zeure atzamarraz bat bera be sarri ausi ta ostikopetu ez dozunik. Zeugaitik edegi neban nire Odolaz Elizako Jauregia; zazpi Sakramentu ipifñi neutsuzan, peka- turik egin ez egizun, edo egiten zenduzanean gar- bitzeko. Zeugaitik egon naz Altaran gau ta egun, ainbeste urtean aldendu bagarik. Amaika bidar egin neutsun dei bertatik: «Ene seme ori, ene alaba ori: itxi egizu bide txar a, lagun gaizto a, arrisku a; ta zuk ondo dakizu zer erantzun zeustan. Orain, ba, emon kontu!».

Esan, eta bat-batera argi bizi bat jaurtiten dau pekatari errukariaren barrura: urteten dira argi orreaz arimako zokondotik, ordurarte lozorroan egon diran pekatuen piztiak, eta irrintzaka difioe: «Zeure eskuen egintzak gara, ez zaitugu itxiko!».

Zer esango dau pekatariak, pentzamentu, gurari, berba ta egintzazko ainbeste pekatu ta ain aundiak bere aurrean ikusi dagizanean?

Zer esango dau bere zentzumen eta almenak ain txar-to erabili ebazala ikusi dagianean? Zer esango dau agindurik gelenak ausi ebazala, ta Jesus Onaren mai-tasun-deiai ain jaramon gutxi egin eutsela ikusi da-gianean? Zer esango dau ain sarri alperrik galdu ta ostikopetu eban Jesus'en Odol ederra ikusi da-gianean?

Margarita Maria Alakoke zoriontsuak, pekatuaren antzik be ez euken utsegin batzuk egiten ebazan. Alan be, alakoetan inpernuan sartu naiago ebalta Jesus'en aurrean agertu baiño, diño berak; ainbes-tekoa izan oi-zan bere lotsa. Zer izango da, ba, pe-katariak Jaungoiko asarratuaren aurrean izango dauan lotsa, bere arimea ainbeste pekatu astunez loituta ikusi dagianean?, ainbeste gorroto, ainbeste lapurreta, ainbeste loikeri ikusi dagizanean? Alpe-rreko berbatxo bategaitik, kontu estua emon bear izango dala, diño Jesukristo'k. Zer izango ete-da, ba, ainbeste arrokerizko berba, ainbeste murmur-ots, ainbeste berba nasai, ainbeste egitada zikin, ain-beste kantu zatarregaitik emon bear izango dauan kontua? Eta batez be, zer izango da, aurrean daukan Jesukristo'ri jaurtiriko ainbeste birau ikaragarria-kaitik? «Errukarri onek, zer esango ete-dot orduan?»

Ai!, orain atxaki asko: gaztea dala, besteak be arela dabizala, makalak garala; aragia zitala dala... Atxaki orrei ondo deritsezu? Gorde, ba, Jesukristo'ren aurrerako; eta zure pekatuakaitik arpegia artu dagitsunean, esan: «Jauna!, egia da; egin dot; baiña gomuta zaitez gaztea izan nazala; besteak be beste

ainbeste egiten ebela». Onela esaten ausartuko zara? Ba, orain be ez ontzat artu; bestela, zeure buruari iruzur egin (engañau) baiño ez dautsazu egingo.

Ezin ezer erantzun! Geure gaiztakeriak eurak agoa itxiko dauskue!

Pekataria, geroago ta estuago, dar-dar. Ozta-ozta jasoten dauz bere begiak Auzi-epailleagana, ta len baiño be asarre aundiagoaz ikusten dau. Bildurra geituz doakio. Nun dagoan be ia ez daki. Bat-bate-an milla bizi kenduko leuskioz daukan lotseak.

## IRUGARREN ATALA

*Epaia.*

Auzi-epailleak, begi asarrez sutuak luzatzen dau-tsatz; eta trumoia lako deadarraz, dirautso: «Alde Nigandik, madarikatu ori, betiko sutara!» Alde! Neu nok ire Aita, ire laguna, ire zorion bakarra; Nigandik alden-duta, gosea, egarria, negarra, zoritxar guztiak baiño ez dozak eukiko; baiña «alde Nigandik!» Nik betiko laguntzat nai neuan; ik, barriz, ez dok nai izan; oa, ba, Nigandik, madarikatu ori; madarikatua bizitzan, madarikatua eriotzan, madarikatua betiko-tasun guztian; madarikatua Nire aurrean, nire Ai-taren aurrean, aingeru ta santu guztien aurrean, baita eure begien aurrean be. Alde! Zer egiten dok oraindiño emen? Nirekin baiño deabruarekin naiago izan dok ibilli? Tira, ba, berakin batera, beretzat, ez iretzat, egifiiko sutara. Sutara! Sutara! Noiz arte?

Urte beterako, eun urterako, milla urterako? Gelago. Betiko sutara. Alde Nigandik, madarikatu ori, betiko sutara!».

Epai onen zain inguruan dagozan deabruak, Aingeru-jagolea ta Andra Maria ez ikustearren albora-begira geratuta, ezarten dautsez erpeak, betiko. Nok askatu? Zelan ipiñiko ete-dabe Jaungoikoak, minduteko, euren eskuetan itxi dauan arima errukarria? Ebeten da lurra, ta iruntsiten dau pekataria. Galdu da, ta betiko!


Zoritxar aundien au, nire gaiñera etorri daiteke? Bai!, ta ziur, pekatuko bidea, lagun gaiztoak, ekandu loiak itxi ez ba'daidaz (izten ez ba'dodaz).

Aingeru-jagole maite ori! Bizitzan ardurarik aundiena ez ba'daukat, ezin askatu izango nozu orduan deabruaren erpeetatik! Lagun zakidaz orain, euren kate ta nire griña txarren lokarriak apurtzen. Andra Maria! Iñoiz baiño maiteago zaitut, Zeure bearez nagoala estualdi aretarako argi ikusten dodalako. Ai!, ez dagidala Zure arpegi gozo ori orduan illun ikusi. Baiña orretarako, oraindixek ordurarte Zure arpegi gozo ori orduan illun ikusi. Baiña orretarako, oraindixek ordurarte Zeure seme zintzo ta benetako maitatzaille izan nadilla; orduan, neure Ama arduratsua lez, deabru guztiakandik zaindu nagizun.

Jesus ona! Ene Epaikari bildugarria! Biotz-biotzez maite nai zaitut. Zuk, barriz, maite zaituana, maite izango dozula aginduta daukazu. Eta erruduna maite dauan epaikariari, nok izango dautso bildur?

Jesus'en Biotza! Sutu, arren, nire biotzean Zeure orren maitasuna; Zeugandik bizitzan iñoiz aldendu бага, entzun dagidan Zeure maiteai emongo dautsezun epaia: «Erdue, nire Aitaren bedeinkatuok; jaubetu zaiteze zeuentzat betiraunetik gertu daukadan erreñuaz».





## AMAIKAGARREN GOGARTEA

GUZTION AZKEN - AUZIA

### LENENGO ATALA

*Arrigarria izango da azken-auzia, bere aurretik dazkanakaitik.*

Bakotxaren auzia edo juizioa eginda gero, zetako ete-da guztiona? Gauza bitarako. Bakotxarenean, Jaungoikoaren jakituri ta zuzentasuna ikusten da, baiña bakotxak bakarrik; eta askok esaten diardue: «Zetan egiten dau Jaungoikoak au edo bestea? Zetan izten dau egiten arako edo onakoa?» Bego, orregaitik, beste auzi bat, eta guztion aurrean, guztiok ezagutu dagigun gauza bakotxean Jaungoikoak izan dauan egokitasun, jakituri ta zuzentasuna, ta autortu dagigun: «Zuzena zara, Jauna, ta zuzena da Zure erabagia be».

Gaiñera, bakotxaren epaikundean, norbera baiño ez da lotsatzen; eta orretxegaitik nai dau Jaungoikoak, beste auzi baten, guztion aurrean pekataria lotsatu, pekaturik egin ez dagian; edo-ta egin ba' dau, autortu dagian: zuzen autortzen diranen pekatuak, edo ez dira agertuko, edo, obeto, agertu bai, baiña lotsa-ordez, gorapena baiño ez dautsoe ekarriko-ta.

Atera daiteke emendik azken-auzi au izango dan arrigarria, geu arritzeko geratuta dauko Jaungoikoak-eta.

Antikristoa etorriko da, ta beragaz batera ta bera buru dabela, beste asko; ta burrukarik biziena egingo dautsoe Jesukristo'ren Elizari. Ainbati galdu erazoko dautse sinismena. «Errukarriak egun areitan bizi daitezenak», diño Jesukristo'k. «Gudak (gerrak), geisoak, goseak, lurrikarak etorriko dira...»

Lurrikarea, gauzarik bildurgarriena da. Lurra zarataka asten da, ikaraz norberaren oinpean; abererik okerrenak, urten euren artzuloetatik eta erruki-billa datoz gizonagana. Menditik urteten dan ke baltzak zerua estaldu egiten dau, ta egun argia, gau illun biurtu. Keaz batera, burdiña ta burdiña-antzeko beste gauza astun, irakinduak, tiro ikaragarriak eginda, mendian-bera datoz, laba luzeetatik urteten dan burdiña goriaren antzera; ta bidean aurkitzen daben guztia, erre ta galduta izten dabe. Baita Bilbo lako uriak, euren gaiñean soloak edegiteko bestean, ondatuta itxi be.

Urte asko ez dirala, Ekuador'en onelako lurrikara



baten, gizonik sinisbageenak, Jaungoikoaren gauzai irri ta barre egin oi-etsenak, zurbilduta, ikaratuta, kaleen erdian besoak zabalik eta euren pekatuak guztien aurrean autortuaz, Jaungoikoari parka-eskatzen asi ziran. Indarrik gutxi bear dau Jaungoikoak gizona beeratu, ezereztu ta birrintzeko!

Lurrikara batek gizonak ainbeste estutzen ba'dauz, zer uste izango dabe Auzi-eguna urreratu daitenean, orduko sinisgabe ta osterantzeko gaiztoak, Jesukristo'k diñoan lez, lurrikarak alde guztietatik ikusi daguezanean? Errege, agintari ta gizonik aundienak, itxi euren jauregi apainduak, eta atxarte ta lezabilla ibilliko dira; eta mendiak esango dautse: «Mendiok!, jausi gure ganera ta ezkutau gagizuez Auzi-epaillearen begi asarretuakandik!

Eguzki ederra baltzitu egingo da; illargiak odol-kolorea artuko dau; izar-antzeko suak ortzetik (zerutik) lurrera jausiko dira. Gora-bera oneik, ordu-raiño ezagutu ez dan ekaitzik (tenpestaderik) aundiena ekarriko dabe; aize gogorak zuster-zusterretik aterako dauz zugatz (arbola) tantaiaik; arriak jausiko dira; trumoi-ots ikaragarriak entzungo dira; oiñeztuak, Jaungoikoak gizonari jaurti bai'leutsoz, zuzen-zuzen etorriko yakez gañera.

Ugarteak (islak), ondatu egingo dira; mendiak, euren tokitik urten; su ikaragarri batek erre ta auts biurtuko dauz jauregiak, ortuak, elizak, eta gizonak lurraren ganean jaso dabezan gauzarik ederrenak.

Alde egin dabe gizonak lurretik; ez da ikusten abere edo animaliarik; ez da txoririk entzuten: lur guz-

tia obitegia (kanpo-santua) lez dago, ixil, itzel, erreten. Guztia austuta, erreta, ezereztuta gelditu da.

Bakartasun itzel orretan, bizien ezaugarri bat bakarrik entzuten da: aingeruaren deadarra. Mundu zabal osoan entzungo dan turutak (tronpeteak), lurraren lau aldeetaruntz aurretiaz jota, esango dau: «Illak, gora, ta tira auzitegira!».

Deadar au entzunik, lurra ataraten dauz bere erraietatik daukazan gizon guztien autsak; itxasoak jaurtiten dauz legorrera azurrak; aingeruak batzen dabez, dagozan tokian dagozala, gizon bakotzak ilzanean euki ebazan zatirik geienak. An dagoz gorpuak luze-luze, erreten dagoan lurraren gañean. Onela, bakotzak beraren etxea osotutakoan, ba-datoz arimak: batzuk, garbitokitik (purgatoriotik), geiago zerutik, inpernutik asko be asko; ta bakotxa bere gorpuaren aurrean geratzen da.

Arima onak bere gorpuari auxe esango dautso: «Zorionekoa, ene gorpua, arako nekea edo penitentzia artu gendualako; zorionekoa, galbidetik urten gintzazan eguna; zorionekoa, atsegin txarra alkarri ukatu geutsan eguna; zorionekoak igaro genduzan atsekabe ta estutasunak! O!, ta guri ekarri dauskuen atsegin eta zabaltasuna betiko!».

Galduak, barriz, esango dabe: «Madarikatua pekatu egiten asi gintzazan eguna; madarikatua galdu genduan ontzeko era ederra; madarikatua arako bide okerra; madarikatua arako atsegin zatarra; guri ekarri dauskuezan atsekabe ta naigabeak betiko!».

Batzuk pozezko oiua ta besteak negarrezko deadar

oneitan dagozala, ba-datoz aingeruak eta onak gaiztoakandik banandu egiten dabez: banatze aren mingarria! Orduan, etxe batekoak aingeruakin doaz, besteak deabruakin; txiro, beartsu ona, aingeruakin; aberats arro, mundukoia, deabruakin; jaungoikozko otseña, aingeruakin; ugazaba gaizto, zirikatzailea, deabruakin. San Mateo, San Agustin, Santa Maria Madala'tarra, Santa Margarita Kortona'tarra, Tais Pekataria, ta beste asko, aldi baten mundu-zale ta pekatariak, eta gero Jesus'en miatatzaile zintzoak, aingeruakin; bost urteko mutiko Erromatarra, amaren altzoan birau bat jaurti ta batera deabruak eroan ebana, deabruakin, baita zatarkeri bat egin eta il zan zortzi urteko neskatotxo be.

Batzen dira, ba, onak, eta goruntz doaz, aidean, Josafat'eko zelai ta inguruetako mendien parean geratu arte. An dagoz. Batzarre aren ederra ta ikusgarria! An dagoz antxiñako Erri-guraso edo Patriarkak, an Igarle santuak, Apostoluak, Martiriak, Autorleak, Neska-garbiak, bakotxa bere tokian, bakotxak bere ezaugarriak eskuetan dauzala. Jesuristo'k diñoanez, «zeruko baten gorputza eguzkia baizen argia» izanik, zer izango ete-da ainbeste zerukoek zabalduko daberen argia, Martiriak eurak ogei milloi inguru izanik?

Benetan itxusia, barriz, baltza ta ikaragarria galduen talde aundia! Arein arpegi amurratuak, arein garrazi ezin entzundakoak, arein birau ikaragarriak!

Zer izango da, ba, jaso euren begi asarreak eta suz gorrituak zerukoekana, ta eurak munduan irri

ta barre egin eutsenak argi-argi ezagutu daiezenean? «An, an dagoz —esango dabe—; an dago urlia, berrendia be bai: zoriontsuak eurak! Nik, buru bage onek, barre egiten neutsen, arako jolas eta arriskuetara ez joateko esaten eustenean; eta jai-arratsaldetan Elizara joiazala ikusten nebazanean, gangarke-rikiririk asko esaten neutsezan, gauza ez zirala, burubagak zirala-ta. Neu izan naz ni, ganora-eza ta burubagea.»

Illeta oneik diñoezan bitartean, *Gloria in excelsis Deo*, deadar egiten dabe zoriontsuak: Aintza Jaungoikoari goi-goietan! Jasoten dabez guztiak euren begiak, eta an nun agertzen dan urrunean argitasuna: aingeruen bederatzi taldeak, Mikel deuna aurretiko dabela. Bere eskuetan dakar Jesukristo'k, il zan Gurutzea ber-bera.

Ikusitakoan, nok esan zoriontsuen poza ta atsegiña? *Vexilla Regis prodeunt*, diño: Ara nun datorren gure Jaunak erosi genduzan Gurutzea: belaunikotu, ta guztiok gurtu daginun!».

An dator San Jose doatsua; an dator gure Ama maite Andra Maria, erregiña altsuena baiño milla bidar apainduago; an dator guztien erdian Jesukristo gure Jauna, eguzkia baiño neurri bagarik argiago, odei eder-gaiñean, eskubide ta nagusitasun aundienaz.

Ikusi dagieneko, guztiak belaunikotzen dira, onak eta deungeak; areik, maitasunez; oneik, bildurrez. Zoriontsuak Areganuntz doaz aidean; Beragaz batu ta gelditzen dira Josafat'eko zelai-parean.

A bai ikuskizun ederra! Aingeruak, eskumatara jarleku ederretan; eurakin, amabi Apostoluak amabi jarlekutan; eurak baiño urruntxoago, Eliz-gizon eta emakumeak, gizon galduak burubako ta ezeretzat eukazanak; Patriarkak, Igarleak, Autorleak, Neska-garbiak. Erdi-erdian, beste guztiak baiño jarleku asko be ederragoan, Auzi-epaillearen Ama, zeru ta lurreko Erregiña altsua; eta bere ondoan, Jesukristo gure Jauna, izan diran eta izango diran gizon guztien Errege,, illen eta bizien Auzi-epaillea, eguzkia baiño argiago, odei-gaiñean, urrezko koroia buruan, eta eskuan kodain zorrotza dauala, Jon Ebanjelariak ikusi ebanez.

Orduan, aingeruak, zoriotsuak, baita zentzumenik ez dauken gauzak eurak be, Auzi-epailleari esaten asiko dira: «Jagi, egi ori; naiko da eroapenik (pazientziarik)».

## BIGARREN ATALA

### *Auzia.*

Auzitegi onen aurrera joan bear izango dau, ba, pekatari errukarriak. Zelan egongo ete-da an, lurreko auzitegitxoan dardar egoten dana? An dago bildurraren bildurrez, guztia ikaraz. Bai bizkor sartuko litzakela bizi-bizirik inpernuan bertan, auzitegi aretan agertu baiño lenago! Doala, ba, erabagita, gal-duta dagoan ezkerro. Ez! Eriotza-osteko auzitegian, erabagia bakarrean izan zan. Orduan, auxe esan eu-

tsan Jaungoikoak: «Neuk agertuko yoat ire billostasuna eure begien aurrean. Orain barriz: mundu guztien aurrean agertuko yoat ire lotsea».

Onetan, aurrean dagozan guztien adimenak agertzen dauz Jaungoikoak: aingeruenak eta gizonenak, onenak eta gaiztoenak; eta diran guztiak argi-argi ikusten dabez auzitegian dagoan pekatari errukarriak pentzamentuz, gurariz, berbaz eta egintzaz, lenengo ezaupidetik il arte, egin ebazan pekatu guztiak. Agertzen dauz emon dautsazan laguntasunak, egin dautsazan mesedeak; eta bakotxari emon dautsan erantzun txarra.

Aprika, Asia, Amerika ta Ozeania'ko semeak, ainbeste eskerbagetasun ikusirik, Auzi-epailleari arrituta dirautsoe: «Ainbeste argiren erdian, zelan egon daiteke ainbeste itsutasun? Jauna! Orrei egin dautsazuzan mesedeen apurrik txikiena guri egin ba' zeuskun, Santu andi izango gintzazan».

Eta ezagunak, zer esango dabe, eurak ain ontzat euken laguna, azal-utsa (ipokrita) bat baiño etzala ikusi dagienean? Elizara joan joaten zan; baiña iño-ren ederragaitik joaten zan; Sakramentuak artu bai, baiña entzute ona ez galtzarren artzen ebazala ikusi dagienean, zer esango dabe?

A lotsaria, seme-alaben pekatuak gurasoen aurrean agertu daitezanean; emazteenak senarren aurrean!

Ara an, egiten dabe: ez dozue ikusten arako gizon eliza-zalea? Or, bere bizitza deungea! Eta a, beste neska lotsor a? Makaltasunez pekatu baten jausi

zan; autorrentzule (konfesore) bati esaten ez zan ausartu, zerura joateko; eta ara nun agertzen dauan mundu guztiaren aurrean, eta gaiñera, inpernura joan bear; a!, arroa, burubagea!

## IRUGARREN ATALA

### *Epaia.*

Bakotzak egin dauan guztia, munduan izan diran eta izango diran guztien aurrean argitaratutakoan, Auzi-epailleak, begiratu begirakunerik samurrenaz eskumatara daukazanai, ta berbarik bigunenaz dirautse: «Erdue, neure Aitaren bedeinkatuok! Jaubetu zaitze zuentzat betiraunetik gertauta daukadan erreñioaz».

Orduan bai zoriontsuen poza, orduan goraltzak, orduan abesti (kanta) atsegintsuak! Begiratu alhora, ta gurasoak semea naiz alabea ikusirik, senarrak emaztea, lagunak laguna, alkarri egingo dautsezan ondo-etorriak, laztanak; arein biotzen zabaltasuna, arein atsegiña! Urliak!, gu izango garan zoriontsu, ta betiko!

Luzatzen dauz Auzi-epailleak begiak ezkerretaruntz daukazanakana, tximista bi baiño begi gorriagoak, eta trumorik gogorrena baiño deadar gogorra-goaz, dirautse: «Alde Nigandik, madarikatuok, betiko sutara!».

Deadar onek, aize gogorra bai'litz, jaurtiten dauz galduak bata bestearen gaiñera. Arein garraziak,

arein ululuak, arein irrintza ta birauak! Deabruak ezarten dautsez erpeak, eta tatarrez daroez inpernura.


Onela doazala galduak, jasoten dabez zerukoakana euren begi, suz eta negarrez gorrituak; eta soiñu eder artean ain pozik doazala ikusirik, «agur —diñotse—, agur ama; agur aita; agur emaztea; agur arrebea; agur lagun eta adiskide maiteok! Ai!, zuek lez bizi izan ba'nitz, zeuekin joango nintzan orain betiko atsegintza orretara. Ai! Nun euki dot burua, nun sinismena! Agur, agur ama!, begirakunetxo bat! Ikusi dagidazala azkenez begi maitetsu orreik!» Amak jaramonik be ez; ba-doaz goruntz, goruntz!, geroago ta txikiago; zabaltzen dira zeruko amabi atek, eta abesti (kantu) eder artean sartzen dira, betiko, zeruko zoriontsuak. Eteten da lurra, ta iruntzitzen dauz zorigaiztokoak.

Agur, mundua! Ez dago aldirik geiago. Betikotasun bi aurrerantzean: zoriontsuena eta zorigaiztokoena. Batera edo bestera nik joan bear. Nora joango eta-naz? Jakin ez! Jesus, nire Epaille ori, Zeure ezkerretara edo eskumatara egon bear izango dot: nun aurkituko nozu? Zeure ago orretatik urtengo da niretzat, edo «alde, madarikatu ori», edo «erdu, bedeinkatu ori»; zer esango daustazu? Jakin ez! Ene zoriaren illuna! Edo betiko atsegintzara, Jesus Ona, Zeugaz; edo Zeugandik betiko alhenduta, amaibaga atsekabeetan. Nora bialduko nozu?

Baiña gauza bat, Jesus maite orri, esan bear dautsut: Zure erabagia, ez da erabagia. Erabagia, neurea.

da, neuk orain neure buruari emoten dautsadana. Bide zuzena, aspertu bagarik jarraituko dot? Eskumalara naroa, eskuman aurkituko nozu. Ez dot itxi nai bide txar au, edo orain itxika ta gero artuka nabil? Ezkerretara noa; ba-dakit entzun bear dodana. Eta adorea daukat Zeure arpegi asarretua begiratzeke, Zeure deadar garratza entzuteko?

«Ardi-artean ipiñi nagizu. Akerrakandik, barriz, aldendu nagizu, eskuman ipiñita». Gaiztoak lotsatu, su gogorrera jaurti; baiña zuzenen artean jarri ni. Makurtuta, biotza autsa lez, atsekabez zetuta, nire elburuaren ardurea izan dagizula, arren, Jesus on orrek!



## AMABIGARREN GOGARTEA

*Seme ondatzaillea.*

San Iñazio'k, Jaungoikoaren bildurra sarritan izanarren, naiago dau maitasunez zuzendu. Eta one-la, bildur-aldirik audienean be, maitasunera joten dauala ikusi dogu.

Orregaitiño be, autorkuntza (konfesiño) aurrean, Jaungoikoari zor dautsagun maitasunarren, pekatua gorrotatzeko ona baiño obea da berariz gogoratzea Bera dan errukior, biotz bigun eta maitagarri, ainbeste iraindu dogun Jaungoikoa. Eta orretarako, Seme ondatzaillearen ipuiña lakorik ez.

Ipuiña esan dot, eta ez jazorikoa; orrelako aitarik ez dau gizadiak ikusi-ta. Irudi ori Jesukristo gure Jaun maitatzailleak, bere Biotzetik atara dau, ta bere Biotz-Seme maitekorraren irudi bizi-bizia da.

## LENENGO ATALA

*Seme ondatzaillea etxetik urteten.*

«Gizon batek seme bi ebazan —diño Ebanjelio Santuak—; eta areitariko gazteenak bere aitari esan utsan: Aita, emon egidazu ondasunetatik niri dago-kidan zatia. Eta aitak ondasunak banandu egin eutsezan.»

Seme gazte au ondo bizi zan bere aitaren etxean; ez eukan ezeren bearrik. Baiña sasoiko mutillak nasaikerian ziarduela ikusirik, biztu yakozan berari be griña txarrak, eta arein antzera ibiltea asmau eban. Zer ete-da lagun txarren erakusbidea, ta zenbat kalte egiten ete-dabe onelako nasaiak? Amaika arima askatuko dauz Jaungoikoak onelakoen eskuetatik!

Galdu zan mutilla, zelakoa zan? Gaztea, ta, beraz, ezaupide gitxikoa. Ez zan, ez, etxetik urtengo, nundik urten eta nora joango zan ondo pentzau ba'leu. Gutxi pentzetea, ta burubidea arin artzea, etorkizun txarren zustratia da. Bestetara, barrukorra ta sakon pentzetea, on guztien asiera.

Begiratu gaztearen lotsabagakeria! Ez diño: «Aita, beste errietan be zer dagoan ikusi nai neuke-ta, emongo ba'zeuskit...?» Begirune apurrik бага, oraindiño aita bizi zala, «emon egidazu» dirautso. A!, mutil oni loikeria sartu yakon barruan; loikeriak bere atzean, barriz, lotsabagakeria dakar.

Aita, barriz, aitaren ona! Onegia esaterako!: banandu ondasunak, eta gazteenari ari dagokiona emoten dautso. Eta gero, «guztiak batuta (ondasun guz-

tiak batuta), urriñeko lurraldeetara joan zan» seme gazte ori.

Zenbat eta zelako aolku (kontseju) bigunak egingo ez ete-eutsoezan etxeokak, senideak eta aitak batez be? Baiña alperrik! Galduta egoan, aragi zatarra eukan barruan sartuta; ta onelakoagan ez dago adimenik, gauzak ezagutzeko; biotzik be ez, aitaren maitasunari jaramon egiteko be. Estu gaztea etxetik urten arte. Aitak azken-agurra egiteko, biotz guztia zatituta, laztandu egiten dau; semeak be laztan otz bat emoten dautso; erraiak zerbait bigunduko yakozan, negar apurren bat egin be bai; baiña pozik urteten da, ta ba-doa urriñeko lurraldeetara, iñok ikusiko ez dauan tokira. —Gaztea neu, dirua ugari; aitarik ez ezagunik be ez agiraka egiteko, au zoriona!— Ez dakik ondo!

Amaika gaztek ikusi daikee euren burua izpillu onetan!

Bai neuk be zeruko nire Aita'ganako gizabidea, eginbearra!

Aita on au, Jesus da; Seme ondatzaillea, neu. Aita-Jesus'en etxean ondo bizi nintzan. Zer nai ta axe neukan. Baiña ikusi nebazan beste batzuk, galduak, nik lako bake ta benetako zorionik euki ezarren, azaletik pozik ebizanak, jolasez-jolas, atsegiñez-atsegin; ta neure zoriontasun mamintsuaz asperturik, euretariño bat izan bear nebala egin neban.

Iges egin neban neure Aita'ren etxetik (betiko madarikatua izan dadilla egun a), Aita maitearen biotza atsekabez samindurik itxita. Iges be urrun ge-

ro; urrun izan bear, Jaungoikoaren begi garbiak ez eusten izten, aberea lez, atsegintzako basatzen ibiltzen-eta.

*Urrun* joan nintzan. Laster aztu yatazan amak txikitari irakatsitako otoitzak, oitura onak, autortza, jaunartzea, ta besteak! Urrun! Laster artu neutsen ezin-ikusia Jaungoikoaren gauzai, Elizari, Santuai, Abadeai, gauza on guztiai! Aragi zatarran sartu yatan barruan, Seme ondatzailleari lez; eta aragiak, bein barruan sartu ezkerro, gogoia edo espiritua ta onen usaiña dauken gauza guztiak urrun jaurtiten dauz; edo-ta obeto, gogoak berak iges egiten dau, aragi zatarrak bizileku baten egon nai ez daualako. Ikusi gaiztoak Elizeari ta Eliza-usaiñeko gauzai dautsen gorrotoa nundik datorren.

Joan zan, ba, Seme ondatzaillea erbestera; ta, nasaikeriari emonda, ondasun guztiak galdu ebazan. Galduko ez ebazan, ba? Nasaikeriak, mozkorkeria dakar ondoren, aurretik ez dakarranean; jokoa be bai, ez gitxitan, eta dirua eralgiteko beste era asko. Ez dago ondasunik nasaikeriari, aundia dadinean, arpegi emotekorik.

Bai neuk be laster galdu neban, Aita-Jesu'en etxetik atara neban aberastasuna: grazia, onoimenak (birtuteak), Espiritu Santuaren doaiak, barruko bakea, ta onenean, entzute ona ta osasuna be bai; ta eskerrak, beste askok lez, sinismena bera galdu ez dodanean.

## BIGARREN ATALA

*Seme ondatzaillearen damua.*

«Eta guztia (dirua) amaitu ebanean, gosete ikaragarria sortu zan bazterraldi areitan, eta bear gorrian aurkitu zan.»

Neuri jazo yatana berbera. Ni bai ase bizi nintzala Aita-Jesu'en etxean! Aragia bakarrik zan gose. Aragi onen gosea nairik, erbestera joan nintzan. Baiña ezin bete! Zelan bete aragia? Ezin daiteke. Bete dago «betor, betor!», iñoiz «naikoa!» esan bagarik. Salomon'ek ez eban bete, nai eban guztia emonarren; ainbat gutxiago arek beste aukera ez daukanak.

«Joan zan, ba, Seme ondatzaillea, ta errialde aretako baten morroi jarri zan.»

Orra etxe aberatseko semea, aita onaren menpean ezin egonda, askatasunaren billa erbestera joan zana, ez-ezagun baten menpean morroi. Errusari (kastigu) egokia, Jaungoikoak beronen etxetik urteten danari emoten dautsanaz bakarrik bardindu daitekena!

Nasaikeriarako aukerarik neure Aita-Jesu'en etxean ez neukala-ta, aspertuta, urten nintzan ni be askatasun-billa. Eta nora jo neban? Deabruaren erpeetara! Ona dago biotz gogor au, nai neban askatasuna emoteko! Bere morroi artu nenduan! Orra or deabru zatarren otsein, Jaungoikoaren seme iza-teaz naiko ez ebana! Aitaren etxean eukan askatasunaz ezin naikotu zana, ugazabarik gogorrenaren morroi, otsein, jopu.

Zelan artu eban Seme ondatzaillea ugazabak? Txarri-zain bialdu eban bere basarri-etxera! Eure aitaren etxean, etxeko seme izateaz, naikoa ez ba'eukan, oraintxe izango dok naikoa txarri-zaintzailletasunaz!

Baita neu be, naiz-ta esatea bera nire arrokeria-erentzat gogorra izan, txarri-zain ipiñi nenduan deabruak, grifia txarren zain, eurai jaten emoteko; ta olantxe ibilli izan naz eurak asetu ezifnik. Au Jaungoikoaren semearen egitekoa!

«Eta txarriak jaten ebezan lekaz sabela bete nai eban; eta ifiok be ez eutsazan emoten.»

Orra or txarriak eurak baiño errukarriago, bere etxean ondo baiño obeto egoan mutilla!

Ementxe bai nagoala burutik beatzera irudituta! Neure Aita-Jesus'en etxean janaria ugari neukan: egia adimenarentzat, naimenarentzat ontasuna, bakkea, poza, atsegin garbi ta barrubetetzaillea. Baiña orrezaz naiko ez; abereak jaten dabezan ondarrak, atsegin zatarrak nai: euren guraz ugazaba biotz-gogorrenaren, deabruaren morroitzen sartu: baiña gaizkille guzurti onek, asko aginduarren, txarriak eurak baiño txarrago artu: eurak daukezan atsegiñak be emon ez. Ai!, ez neban, ez, ezagutu neure zorion eta gorapena, neure Aitaren etxean nengonean! Abereen (animalien) zoria neure zoritzat nai neban; eta ona emen eurak baiño beerago jatsita; eurak ni baiño zorionekoagoak, eurak nai eben beste ezkur, nai eben beste atsegin, eta ni atsegin orrein gosez. Ezin dot, ba, esan: «Euren (abereen) antzeko

egin naz»; eurak baiño be errukarriago, zoritzarrekoago egin naz-ta. Au lotsagarria! Au arerioen barea!

Bere burua taio onetan ikusi ebanean, bere barrura biurtuta, auxe esan eban: «Amaika morroik nire aitaren etxean ba-dauke ogia ugari; ni, barriz, emen goseak ilten nago. Jagi ta neure aitagana joango naz, eta esango dautsat: Aita!, zeruaren aurka ta zure aurka pekatu egin neban; ez naz arrezkero zure seme-izena eroateko duin; zure morroietariko bat lez artu nagizu, arren. Eta jagi, ta aitagana joan zan».

Ederto gertau eban bere autortza! Arek agertzen dauan damua! Aren apaltasuna!

Baiña, zek argitu eutsazan begiak? Atsekabeak! Beatzun garratzaz zabaldu eutsazan begiak Tobias zarrari Errafael Goi-aingeruak: atsekabearen mingostasunaz edegiten daukuz geuri be Jaungoikoak. Galbidean doa bat, eta atsegintsu doa, aukera guztiak dauzalako: ez dago orrentzat pozaldi ori baiño Jaungoikoaren zigor gogorragorik; zuzen-zuzen doa bide zabal orren azkenean dagoan inpernuko su-lezara.

Jaungoikoak asko maite ba'dau, barriz, eragozpenen bat jaurtiko dautso bide leun orretan, geisoa, naiz atsekabea, naiz beste ezbearren bat. Eta Jaungoikoari bat be jaramon egin bagarik, pekaturik-pekatu poza aundiaz ebillenak, geisoak jotakoan, jasoten dauz bere begiak oeko zokondotik zeruko Aitagana; argitzen da; galbidea ikusten dau; ikaratzen da, atzerantz egiten dau, ta bide onean sartzen da.



Amaikarentzat, lenengotan ezbear andia uste izan dauana, izan oi-da zeruko Aita'gana joateko bidea, gazte onentzat izan zan lez.

Bai gitxi gomutauko zala bere aitaz, jolasik-jolas, atsegin-artean, dirua ateratearren ondo esaten eutsen lagun zatarrez inguratuta ebillenean! Baiña bere burua bakarrik ikusi ebanean, lagunik бага, morroi, areizpean, txarri-zain, sarte eskuetan, etxetik atara ebazan soiñekoak urratuta, ortozik, ugazaba gogorra, dirurik ez, gosea barruan: etxeko ugaritasuna gogoratzen dau, eta egiten dau: «Amalka morroik nire aitaren etxean ba-dauke jatekoa ugari! Eta ni emen goseak ilten!» Esan bai'leu: «Eurak, morroiak; ni, semea; onela ta guzti be, eurak nire aitaren etxean; ni emen, erbestean, txarri-zain; eurak, jatekoa ugari; ni, gosez. Geiago ez! Jagi, ta ba-noa».

Neuk be aztertu ba'dagit Jaungoikoaganako nire biurkera, ezeukia, atsekabea edo beste ez-bearren bat ez da urrun ibilliko: sarritan Jaungoikoaren zigorrada uste doguna, Artzain Onak bide onera zuzentzeko egiten dauskun txistua da.

Eta ez dozu ikusten, ene arima orrek, seme galdu arek Jaungoikoaren deiari egin eutsan erantzun ariña? Egizu geroko izten dauala bere Aitagana biur-tzea, abereak etxera eroan bear dauzala, edo ugazabari bere asmoen barri emon bear dautsala-ta: onenean, etxera orduko damutuko yakon.

Ontzeko erabagiak artu dodaz? Bete dagidazan arin, luzapen bagarik: «Jaungoikoaren deia gaur en-

tzun ba'dagizue, ez gogortu zuen biotzok», diño Espiritu Santuak. Seme galdu onek ez eban egin: «Zer esango daust Aitak? Damutu egingo nintzala ez eustan esan?, eta nik ezetz? Orain etxera?, Aita ta etxeko guztiak lotsaturik itxita gero? Diru guztia galdutakoan? Eta onela, ortozik, jantzi zatituaz, ule guztia griña bat eginda, arpegia zurbilduta?... Ez dago ardurarik: aita da, ez nau etxetik atarako.» Eta joan zan.

Ez al-da orixe bere deia? Eta berak deitu, ta beragana zoazenean, atzerantz bota? Ez diño berak gure soiñekoak, argorria baiño gorriago ba'legoz be, edurra baizen zuri ipiñiko dauzala?, biurtzen garaneke gure pekatuakaz aztu egingo dala?, sorbaldatik atzera botako dauzala?, itxasoan ondatuko dauzala?

Seme galdu arek amarik ez eukan. Ziur! Amarik euki ba'leu, bera lenen gogoratuko eban. Baiña nik, Ama daukat, Amarik onena, errukiorrena, seme maitekorrena, Jaungoikoa ta geure artean bakeak egi-teko Jaunak berak emonikoa: Andra Maria. Zek atzeratu naike neure Aitagana joateko? Jagi ta joango naz, ba; ta beragana urreratueran, asarretuta daukadan arpegi itzelak bildurtu ba'nagi, Amaren magalaz neure begiak estalduta, beroni oratuta, elduko naiako: ziur nago, Amaren ostean eldu ez-kero, ez dauala jaurtiko.

## IRUGARREN ATALA

*Seme ondatzailleari aitak egin eutsan arrera.*

Seme ondatzaillearen aita, alde aretan oi-danez, illuntzean-illuntzean, bere bearrak itxitakoan, etxeganeke ibiltokira joango zan, egurastutera. Amaikaxo bidar, begiratu semea aldendu zan tokiruntz, eta egingo eban: «Nun ete-da nire seme gizagai-soa! Bizi ete-da? Onezkero ondatuko ebazan diruak. Zetako itxi neutsan joaten? Ai, etxean ba'neuko!».

Onetan egoala, illuntzi baten mutil gazte bat ikusten dau urrunean, guztia nekatuta, bere etxeruntz etorrela. Eta bere artean esango eban: «Neure mutila dala axe! Bai!, bera da». Errukiz erraiak bigunduta, bere urte ta lotseari jaramonik egiteke, asten da arin-arinda mailladitik bera, ta gero bidean zear, eta besoak zabalik jausten da semearen gainera, ta laztantzen dau. Aitaren negar-malkoak semearenakaz nastuten dira; ta semeak, aitaren biotztaupadak biotzean sentitzen ebazala, dirautso: «Aita... pekatu egin dot... zeruaren aurka... baita zeure kontra be... Zure seme-izenik be... ez yat zor».

Aurrera joiakon gertu ebana esaten. Baiña aitak, semea isillerazorik, morroiari dirautse: «Ekarri egizue bizkor soiñekorik onena, ta jantzi egiozue (jantzi urratuaz ikusten eban-eta); erestuna eskuan eta oiñetakoak oiñetan sartu egiozue (ortozik edo oiñetakoak zatituta etorren-eta). Txal gizendua be ekarri ta il egizue; janaldi eta jai aundi bat pozik egin daigun: nire seme au ilda egoan eta barriro biztu,

galduta egoan eta aurkitua izan da-ta. Eta jan-edanetan asi ziran.

Bitartean, seme nagusia soloan egoan; eta etxerakoan etxe-ondora urreratu zanean, soiñua ta dantzak entzun ebazan; eta morroietariko bati dei egitiñik, guzti a zer izan zeitekean itandu eutsan. Morroiak erantzun eutsan: Zeure anaia etorri da, ta zure aitak zekor gizendua il dau, semea barriro onik eta osasunez etxeratu yakolako.

Orduan, asarraturik, ez eban sartu nai; bere aitak, barriz, urtenda, erreguka asi yakon. Baiña aitari erantzun eta esan eutsan: Ainbeste urtean zeure morroi naz; egundo zure agindurik ez dot ausi; alan be, arkume bat be ez daustazu iñoiz emon, nire adiskideakaz janaldi bat egiteko. Eta emakume galduekaz ogasunak eralgi dautsuzan seme orrentzat, etorri danekoxe, txal gizendua il dozu. Baiña aitak esan eutsan: Seme!, zu beti neugaz zagoz, ta nire gauza guztiak zeuretzat dozuz. Egoki zan, orraitifio, oraingo poza ta jaia: zure anai au, ilda egonda, barriro biztu da-ta, eta galdua izanik, aurkitua izan da-ta».


Ez da iñoiz ikusi aitarik, seme ain galduari one-lako arrererarik egiten. Baiña auxe berau egin dau Jaungoiko andiak pekatari esker-gaiztoko onen alde. Ez zan, ez, aztu nitzaz, ni beragandik urrunduarren: Beti egon izan da bere begi-biotzak nigan dauzala. Berak emon daust bere etxera biurtzeko asmo ta indarra be. Eta urrunetik beragana netorrela ikusi nauaneko, ez dau gogoratu nire gaiztakeririk, ezta


emon neutsan atsekaberik be; erraiak errukiz bi-gundu, besterik ez yako egin.

Orra or, ba, zelan datorkizun besoak zabalik, po-zez beterik, zeu laztantzera. Zoaz, ba, zeu be bera-gana; ta, ez dagokizu, baiña Aita da-ta, laztandu egizu. Ai!, Berak be emongo dautsun laztana! Zer dala uste dozu, bestela, zeure barruko poz ori, Jaun-goiko-Aitak emoten dautsun laztana baiño? Gra-ziazko soñeko bagarik ikusiko zaitu, eta pekatari zatarrari Jaungoikoak dautsan maitetasunaz arri-tuta begira dagozan aingeruai, esango dautse: «Arin, ekarri lengo soñekoa ta jantzi egiozue; emon eraz-tuna bere eskurako, au da: Jaungoikoaren etxeko semeen ezaugarria: oiñetakoak be bai, au da: Jau-naren laguntasuna, ezek mindu ez dagizan; eta nire Gorputza ber-bera jateko ta nire Odola edateko ger-tatu; ta jan eta edan dagigun eta poztu zaitzeze zeuok be, ene aingeruok, neugaz batera: nire seme au, pekatuaz ilda zana, graziazko bizitzara berbirtu da-ta, galduta zana, aurkitua izan da-ta».

Zelako eskerrak egingo dautsudaz, Jauna, arrera eder onen orde? Zelakoa izan bear nauzu aurre-rantzean? Ai! Seme ondatzaille a baiño eskerba-geago ta txarrago izan naiatzu! Seme a, arrera ain biguna ikusi ebanez gero, apal-apal, beargin, ibilliko zala uste izatekoa da, ta ezta atsekabe txikienik be ez eutsala bere aitari emongo. Nik, barriz, aita arek baiño oraindiño asko be obeto Zuk ni artuarren, zer egin dautsut? Urten ostera be zeruko Aitaren etxetik, eta lengo txarri-zaintzara joan. Eta, olan eta

guzti be, bigarrenez artu egin nozu? Bigarrenez di-ñot? Zenbat bidar pekatu egin, eta barriro grazian sartu, ainbeste bidar seme ondatzaille izan naiatzu! Ez, Aita, gelago; indartu Zeuk nire argaltasuna; ta ostera be Zure etxetik urten-nairik ikusi ba'nagizu, ebagi bernak, iges egin baiño len. Naiago dot il, Zu irainduta itxi baiño. Ama laztana! Zure ondoan, etxean bizi nai dot beti; ez itxi urteten.





BIGARREN ASTEA  
**AMAIRUGARREN GOGARTEA**

JESUS'EN GIZAKUNDEA  
LENENGO ATALA

*Irutasun Santuak Semea gizon egitea erabagiten dau.*

Begiratu laguna, batzui ta besteai: lenengo, lurrekoai: iñor bardinik ez jazkeran, ez izakeran, ez egokeran; batzuk zuriak, baltzak besteak; batzuk gudan (gerran), besteak baketan; batzuk negarrez, barreka besteak; batzuk osasunez, besteak geisorik; batzuk jaioten, besteak ilten...

Gizonak baltzak ala zuriak ete-diran, Jaungoikoak ez dau begiratzin: guztietan ikusten dau bere irudia, ta loituta ikusten dau, ta orixe maite dau: orixe dator barrizten.

Nire lagunetan Jaungoikoaren irudia ikusten dotalako maite ete-dodaz? baltza ala zuria ete-dan,

neure gogozkoa ala bestetarakoa dan begira ibiltene-naz?

Errukarria izango zan benetan gizadiaren egokera ta itzela bere etorkizuna, Jaungoikoa gizon egin ez ba'litz. Euren-artean, euren antzera bizi izango nintzan neu be, atsekabe-artean, aberea lez bizitza onetako lau egunak igaro, ta deabru bat lez gero inpernura jausteko.

*Bigarren:* BEGIRATU Irutasun Santuaren iru Jaungoikozko Personak euren jarleku altsuan: mundu zabal guztia ikusten dabe, ta gizon-mueta guztiak itsututa, ilten eta inpernura jausten ikusten dabez.

Noraiñokoa izango ete-zan Jaungoikoaren Biotzaren atsekabea? Zelan bigunduko ete-yakezan erraiak iru Notin edo Personai?

*Irugarren:* ENTZUN lurraren ganekoak diñoena: bata besteari diñotsena; euren zin edo juramentuak, esaten dabezan birauak. Baita zerukoak diñoena be, au da: «Egin daigun gizonaren Erostea».

Orra or gure Jaungoiko onaren biotza! Orra or Jaungoikoak emoten dautsen ordezkoa Bere aurka ainbeste berba zatar, ainbeste lotsabagakeri esaten dabezan gizonai! Ederto esaten dau Igarle batek Espiritu Santuaren agoz: «Zeru ta lurraren artean dan aldea dago nire ta zuen artean».

*Laugarren:* IKUSI gizasemeak lurraren gainean egiten dabena: zauritu, il, inpernura joan. Baita Jaungoikozko iru Personak egiten dabena be: Jaungoikoaren Gizon-egite santua...

## BIGARREN ATALA

*Aingeruak Andra Maria'ri Jaungoikoaren Gizakundea iragarten dautso.*

Lenengo, BEGIRATU lagunak: San Gabriel Goi-aingerua. Beti izan oi-da San Gabriel Jaungoiko-Gizonduaren barriak emotera bialtzen zana. Begiratu, ba, San Gabriel'en poza barri aundi ori emotera datorrenean.

Bere itzel aundia Andra Maria'ri berba egiten dautsanean! Eta ni, otoitz egiten dautsanean, zelan egoten naz?

Begiratu Andra Maria, neska gaztea. Baiña zela-koa? Aren apaltasuna, aren garbitasuna, aren eratasuna edo modesti aundia! Ni barriz, zelakoa naz?... Damutu ta erabagi.

Zelan aurkitzen dau aingeruak Andra Maria? Otoitz egiten, Santuak dirauskuenez, eta Jaungoikoa len-bai-len Gizon egin zedilla eskatzen; eta orixe berori jadetsi eban. Baliotsua benetan otoitzaren indarra Jaungoikoaren begietan! Begiratu zelan egiten dauan otoitz: aren adipen edo atentziñua, aren lotsa ta Jaungoiko-batasuna... Egin zuk be Aren antzera, al-dagizunez.

*Bigarren:* ENTZUN Aingeruak esaten dauana: «Agur, Maria, graziaz betea; Jauna da zugaz, bedeinkatua zara zu andra guztien artean».

*Maria* itzak, «andrea» adierazaten dau, gizon, aingeru ta beste izaki guztien nagusi, agintari ta jaube, bera dalako. «Graziaz betea»: betea, ontzi aundia

izanarren, eta Santutasun, onoimen (birtute) ta jakituriz betea; «Jauna da zugaz»: beste gauza guztietan dagoan lez bakarrik ez, ezta Jaungoikoaren grazia daukenen barruan dagoan lez be: zugaz dago Jaungoikoa, Maria, zure gomutamenean (memorian) beti Bera gogoratu dagizun; zure adimenean, Bera geroago ta geiago ezagutu dagizun, eta zure naimenean edo borondatean, gartsu maitatu dagizun; zeru baten antzera dago zugan.

«Bedeinkatua zara zu andra guztien artean», Jaungoak Eba'ri ta beragan beste andrazko guztiai ezarri eutsen aifien edo maldiziñoa, zugana elduko ez dalako: Zeu bakarrik izango zara Ama ta Birjiña; Zeu bakarrik izango zara Andra guztien artean pekatuaren gerizarik bagea; Zeuk kenduko dauskuzuz gure gatxak, eta jadetsiko dauskuzuz laguntasun eta goieskar guztiak; eta orregaitik, aingeruak eta gizonak, zuzenak eta pekatariak beti onetsi (bedeinkatu) ta goratuko zaitue andra ta gizon eta aingeru guztien gairietik, nik orain egiten dodan lez.

«Andra Maria, au entzunda, ikaratu egin zan aingeruaren barbakaz, alako agurra zer ete-zeitekean asmetan.»

Begiratu Andra Maria'ren apaltasuna! Arrotzekoa zan ikusten eta entzuten ebana: aingerua, ta ain altsua, bere aurrean apal-apalik ikusten eban, andrarik naiz aingerurik jasoenari esan daikeozan gorapenik aundienak esaten eutsazala... Baiña arrotu bera? Arrokeriaren usaiñik be ez eban izan. Isilik, bere barruan sartuta, gorapen ain arrigarriak en-

tzun ebazalako; au neska gaztearen zurtasun eta apaltasuna! Ondo oinperatu eban Lucifer eta Eba' ren arrokeria, ta ordaindu be bai eurak Jaungoiko-ari ostu eutsoen gorapena.

Eta nik, neure gogozko gauzatxo bat esan dagitenean, etorkizunari begiratu бага, baietz esan? Aizeak daroan berbatxo bat neure alde entzun orduko, puztuta, neure barruan gozaro mizketan erabilli?

«Eta aingeruak: Ez bildurtu, Maria, Jaungoikoaren gogoko zara-ta. Begira: sabelean semea sortu ta egingo dozu, ta izena Jesus ezarriko dautsazu. Andia izango de Bera, ta Goikoaren Seme dei egingo dautsoe, ta Jaungoiko Jaunak Aita Dabid'en jarlekua emongo dautso. Jakob'en etxeko buruzagi izango da betiko, ta bere Erreiñuak ez dau amairik izango.»

Argi-argi agertzen dautso Mesias'en Ama, Jaungoikoaren Ama, izan bear ebala.

Eta berak, zer erantzuten dautso?

«Ori zelan izan daiteke, gizonezkorik ez dot eza-gutzen-eta?»

Ez dau eztabaidan ipinten aingeruaren barbarik; garbitasuna betiko gordeteko eginda eukan eskintza aingeruari agertu baiño. Nok, Andra Maria guztiz garbi orri!, Ezpiritu Santuak izan ezik, erakutsi eutsun garbitasuna maite izaten, orrelako usterik be iñok ez eukanean, seiñik ez eukitea ain lotsagarri zanean, Mesias'en Ama zein izango emakume guztiak ziarduenean? Eta Jaungoikoaren Ama izango zarala dirautsun aingeruari, zegaitik jarten dautsazu aurren zure erabagi ori? Ai!, ezta Jaungoikoaren

Ama izatea be ez dau nai, orretarako garbitasuna galdu bear ba'dau. Auxe bai garbitasunaren maite-tasuna! Au gure loion lotsagarria!

«Eta aingeruak, erantzunik, esan eutsan: Espiritu Santua etorriko da zugana, ta Goikoaren indarrak bere gerizpean artuko zaitu. Orregaitik, Zeugandik jaioko dana, Jaungoikoaren Seme deituko dabe. Orra, bestela, Elizabet zure senidea be: zartzaroan semea sortu dau, ta agor zana, sein egiteko seigarren ille-betera eldu da: Jaungoikoarentzat ezifñik ez dago-ta. Orduan, Maria'k esan eban: Ona emen Jaunaren mirabea; egin bedi nigan zeuk diñozunez.»

Ba-ekian ondo, Liburu Santuetan irakurrita, zenbat min eta atsekabe igaro bear izango ebazan Mesias'ek, baita beragaitik bere Ama izan bear ebanak be; baiña garbitasuna galtzeke, Jaungoikoaren Ama izan zeitekela ziurtuten daneko, bat-batean, luzapen бага, bere baietza emoten dau.

Baiña beste gauza guztien gaiñetik Andra Maria'ren apaltasuna da benetan arrigarriena. Jaungoikoaren beraren Ama izan bear ebala agertzen dautso aingeruak. Jaungoiko izatea itxita, goratasun aundia-gorik ez dago, ezta asmau be ezin daiteke: eta zer egiten dau berak? Jaungoikoaren mirabe (kriada) bere burua egin. Aingeruari esatea lez: «Jaungoikoaren Ama egiten nozu zuk? Ez da gitxi niretzat bere mirabe izatea be; gora jasoten nozu, baiña niri be-koena baiño ez datorkit ondo».

Erruki zaite, Andra Mari, apaltasunaren Irakasle berarizko ori!, erruki zaite, onen ezerezak izan eta

onela be beste guztien ganetik ibili nai dogun arruotaz: Zeure apaltasunagaitik, parkatu daiguzala Jaunak gure arrokeriak.

*Irugarrena.* Egiten dabena IKUSI: 1.º) Aingearuak, bere eginbearra bete, Jaungoikoak agindu dautsan arazoa bete.


Eta nik, zelan beteten dodaz Jaungoikoak emoten daustazan eginbearrak?

2ºgn.) Andra Maria'k, zer egiten dau? Apaltasun arrigarriz, Jaungoikoari eskerrak egin; gure alde ainbeste neke igaroteko, gertatu. Emon dagiodazan, ba, neuk be Jaungoikoari eskerrik andienak, gu deabruaren menpetik ateratearren, gizon egin zalako, gure anai izateragiño jatsi zalako; ta esan daikeogu: «Zure azurrak, geure azurrak diar; Zure aragia, geure aragia; gure odola, Zure odola». Nor ez da poztuko, Jauna, Zu lako anai nagusia eukita? Nor ez da ausartuko inpernuko deabru guztien aurka egiten, Zu geure alde eukita? Nok ez dauz begiratuko bere anaiak lotsarik aundienaz, Jesus'ek, beretzat arturik, ainbeste santutu dauzala jakinda? Apal-apalik gurtzen zaitut, Jesus maite ori!, Amaren sabelean, altara baten lez; biotzeko indar guztiaz maitatu ta laztantzen zaitut; Zeuk lurrrera etorri zintzazan lenengo unetik, anai antzera laztandu nenduzulako.

Eskerrak, Andra Maria, Zuri be, ni inpernura ez joateko, orrenbeste neke igaroteko gertu zintzazalako; pozik aundienaz autortzen dot, baietz a emonaldian, Jaungoikoaren Ama Altsu eginda geratu zint-

tzazala, baita orretxegaitik neure benetako Ama eginda be. Atsegiñez beterik artzen zaitut neure Amatzat; Zeuganako seme-biotza emon egidazu. Giza-seme, aingeru ta izaki guztiak Zeure aurrean belau-nikoturik, euren Nagusi, Agintari ta Jabe autortu zagiezala, Jaungoikoaren benetako Ama zaran ezkerro. Guztiak maitatu zagiezala, ta, arrituta, agurtu dagiela zure apaltasun sakona anditasun ain itzelean. Apaltasun apurtxo bat emon egidazu neuri be, Zeure seme naz-ta, ziztrin, zital eta esker-txarreko izanarren be. Zeure antzera Jaunaren morroi izan nadi-lla, bere guararia gauzarik txikienetan be gutxitan euki baga: onela gero Zeugaz batera morroi zintzozen saria zeruan betiko jadetsi dagikedan.





## AMALUGARREN GOGARTEA

JESUS' EN JAIOTZA

LENENGO ATALA

*Nazaret'ik Belen'erako bidea*

**BEGIRATU LAGUNAK:** Andra Maria ta Jose: zelan doaz bidean? Arein arpegi baketsuak, apal eta bigunak! Begiak, *batuak*, oso barru-zaleak.

Begiratu beste gizataldea be, asarre, Kaiser Agintariak bide a eragiten dautselako.

**ENTZUN DIÑOENA:** Andra Maria ta Jose isilik geienetan. Jaungoikoa eroian Andra-Maria'k bere sabelean; eta Jaungoikoa barruan dauanak, gogo gutxi izaten dau berbetarako, isil-zale izan oi-da.

Baiña zenbat gitxiago andra-gizonakaz berba egin, ainbat geiago Jaungoikoagaz egiten eben: ortik etor-

kien arpegian agertzen yaken biotzeko bake ta poza. Ez dago Jaungoikoagaz barrutik berbetan ibilteak dakarren lako pozik: betiko eztegua da.

**IKUSI EGITEN DABENA:** Andra Maria'k eta Jose'k agertzen daben eroapen (pazientzi) aundia bost eguneko bidean, ainbeste neke ta ezeuki-artean, Kaiser Agintariaren kontra berba-erdi be euren agotik atara бага; Jaungoikoak beraren gorapen eta euren onerako, guztia zuzenduko ebala ondo dakietta. Eta arelaxe jazo be: izan be, arrokeriz eta diruzaletasunez Kaiser'ek emoniko agindua, Igarleen auresanak egiztuteko ta Mesias Belen'en jaioteko artu eban Jaungoikoak. Zer ete-da Jaungoikoaren jakituri ta almena, ta arau okerraz zuzen idazten (eskribitzen) dauan indarra?

Zer egiten dau, ostera, beste gizataldeak? Agintariagaitik asarretu, lagun urkoari zankazanak jan. Eta zer ataraten dabe? Euren atsekabea geitu, besterik ez. Okerrerik ikusi ba'dagit (ikusten ba'dot), al dodala, kentzeko alegindu naiten; baiña ezer ezin egin ba'daiket, ez nadin esamesetan ibilli, ez dot ezer atarako-ta. Itxi dagidan guztia Jaungoikoaren eskuetan, Berak nai dagianera zuzendu dagian: gatxa, baiña jakituri ta bakez betea da erakutsi au. Agintzen dabena, be, egin, pekatu dala argi-argi ikusi ez ba'dagit: esanekotasun bidea estua da sarritan, la-tza, aldazgora; baiña azkenez, beti zelai zabal, loratsu ta atsegintsura eroaten.



## BIGARREN ATALA

### *Belen'en sarrera*

BEGIRATU LAGUNAK: Andra Maria ta Jose Belen'go kaleetan, ostatu-billa. Jose'k Andra Maria'ri egingo eutsan: «Kale aretan daukagu senide bat: goazen!»

Bertara eltzen dira, jo atea; ta lenengo ondo-eto-rria emonda, «damu dogu, baiña ez dago tokirik», dirautse. Tokirik ez! Bai andiki-antzean etorri ba'litaz! Diru-zaletasun gelegiak begiak itsutu eutsezan, Jesus eta onen gurasoak ez ezagutzeko. Ai!, diru-zaletasunak naiz beste edozein maitetasun okerre, begiak lausotu egiten, Jesus Ona ez ezagutzeko.

Jo beste senide edo ezagun bategana, ta beti soifü bat: ez dagoala tokirik... lenago etorri ba'litaz... urrengoan...

Erri itsu, deunga, esker-tzarrekkoa! Lau milla urte ta geiagotan egon aiz Jesus Onaren egarriz. Ainbeste aldiz eskatzen izan dok: «Bialdu, Jauna, Etortekoa... Zeruak iruntza ta odeiak euria bialtzen dauskuen lez, bialdu eiguzu Zuzena (Jesus). Edegi lurra, ta erne dadilla Salbatzaillea».

Etorri dok, ba, orren luzaro itxaroten egon azan Salbatzaillea, orren berba beroz zeru ta lurrari eskatu izan dautsana; ta zer egin dautsak? Ostaturik be emon ez! «Bereakana etorri zan, eta bereak ez eben artu», diño Jon Ebanjelariak.

A izango zan beretzaz atsekabea! Mundura eto-

rrerea arelakoa izanik, ez da arritzeko euki eban lako urteera eukitea.

Ez da Belen'darrena bakarrik arrera ain esker-tzarrekkoa ta lotsabagea; egunero, egunean sarritan, lureko alde guztietan jazoten dana da, ta eskerrak neuk be bein baiño sarriagotan egin ez ba'dot. Ez daust esaten, ba: «Emen naukazu atean zeure zain eta ate-joka: edegi egidazu, nire burua iruntzez beteta daukat-eta? Eta nik, zer erantzuten dautsat sarritan? Belen'darrena: «Ez dago ostaturik». Ai!, ostatua gaiztakerientzat daukat, deabruarentzat beretzat; Jesus'entzat ez dot zokondotxo bat be eukiko. Eta lotsabagakeri onek, zelako atsekabea ez ete-dautso Jesus'i emongo? Ez dau berak gure diru ez beste gauzarik nai; biotza, maitetasuna bakarrik nai dau, ta orixe eskatzen dausku ta gogorik bizienaz eskatu be. Eta guk ain бага itxi?

Baiña nor artuko dogu biotzean Jesus lakorik? Nori ete-dautsagu zor geiago? Nok sarituko dausku obeto ostatua? Belen'darrak Jesus'i ostatua emon ezaz galdu ebena! Ez dogu guk gutxiako galtzen, biotzeko ateak itxi (zerratu) dagitsaguzanean.

Erdu, Jesus on eta maitegarri ori!, nire biotzeko zokondo onetara; sartu zakidaz, itxi ateak, artu giltzak, jarri erdi-erdian, Zeu baiño besterik ez dot nai-ta.

## IRUGARREN ATALA

### *Jesus'en jaiotza*

Andra Maria ta Jose, biotzak miñaren-miñez milla zati eginda geldituko ziran eskertzarreko arrera oneaz. Jose'k Andra Maria'ri esango eutsan: «Andra: goazen alboko mendi orren barrenean dagoan txabolara, ia abereak (animaliak) gizonak baiño errukiorrago aurkitzen doguzan».

Joten dabe, ba, araxe, ta artzulo edo koba ari goitik beera begiratuta, bertako loaia ta ormetako amaraunak ikusita, alkarren artean, isilik, egingo eben: «Au izango da Jaungoiko baten jaiotetxea? Au da gertau dautsagun jauregia?»

Jose, atsekabez zotinka ta begietatik negar-anpu-loak eriozala, artzuloa garbitzen asiko zan, eta ormetako amaraunak eta autsak kentzen. Bitartean, Andra Maria'k askatxo bat ikusten dau. Garbitu ta bedar apur bat ezarten dautso: Jaungoikoarentzako kumea gertu dago.

Jose alde batean eta Andra Maria bestean, ototzik gartsuenean egozala, ara nun agertzen dan zeruak eta lurra beteten dauzan Jaungoiko aundia, arra beteko umetxoaren taioan. Belaunikotzen da Andra Maria, ta siniste, apaltasun eta maitetasunik aundienaz gurtzen dau ume txiki aretan Jaungoiko altsua. Eskerrak emoten dautsaz Amatzat aukeratu dau alako; ta parka eskatzen dautso, toki oberik gertatu ezagaitik. Munduan ez zan agertu izan arelako gurtze edo adoraziñorik. Begira-begira dago bere Se-

meari, begiak ezin albora eginda. Baita Semetxoak be ezarten dautsaz Ama maiteari bere begitxo biak. Begirakune onen barrenkorra! Begiakaz emoten dautsaz eskerrak, bederatzi illebetean bere barruan ostata emon dautsalako, ain sutsu ta garbi maite dautsalako, ta bere antzeko izateko bizkortzen dau. Ai!, Ama-Semeen begirakune areik! Andra Maria'k, Semetxoak barrutik adoretuta, itzel eta maitetasunik aundienaz, mun egiten dautso ointxoetan, gero eskutxoetan, eta zegaitik ez eutsan egingo biotzaren ondoan be? A izango zan Andra Maria'ren gozotasun eta zoriona!

An dago begira Jose doatsua be; urreratu ta biotza maitetasunez taupadaka, mun egiten dautso berak be.

Urreratu nadin neu be. Pekatari naz; baiña, nor ez da umeagana elduko? Mun dagitsadan kobako lurrari, askeari; baita begirune, apaltasun eta maitetasunik aundienaz, oin eta eskutxoetan Jesus Umeari be. Begiratu ondo! Antxiñako aldian tximista-artean baiño agertzen ez zan Jaun andia, Aita ta Espiritu Santuagaz batera zeru goietan dagoana, askan, abere-askan dago orain. Jaungoikoaren Itza, igarleak ain izlari aundi egin ebazana, berba bagarrik, beste umeak lez negarrez, bere bearrizanak agertzen dauzala! Aingeruak zeruan makurturik gurtzen dabena, bakarrik, beia ta astoa lagun dauzala! Ainbeste milla urtetan eguzkia sutan daukana, otzaren otzez dardar! Lurreko bizidun guztiak janaritzen dauzana, amaren bular-bearrez!

Ezagutzen dot! Neure maitetasunez, nire arroke-ria jatsierazotearren egin zara orren txiki, Jaun

aundi ori! Baiña zenbat-eta nigaitik Zu txikiago, ainbat maitagarriago zaiataz. Idi-aska orren aurrean ezereztuko al-da nire aundi-naia!

Begiratu oraindiño obeto! Artzulo bat, auts eta amaraunez apaindua, Erregeen Errege danaren jaiotetxe; bere seaska edo kumea, idi-aska! Noiz egon da iñoz onelako ogetxoan? Nok ez dau euki etxe bat eta kuma bat (iñok emonikoa izanda be), bere seme edo alaba jaiotetxe? Baiña lurreko beartsuenak daukena, ez dauko lur eta zeruaren jabeak. Artzuluan jaiot, ta askan etzan; iñok emonikoaz bizi, ta gurutzean soifneko bage il: or gure Irakaslearen bizikera!

Eta ezeukiagaitik lotsatu egingo ete-naz? Au edo bestea euki ez dagidanean, asarratuta, Jaungoikoaren aurka esamesaka jardungo ete-dautsat?

Azkenez, zelako min-artean jaioten dala? Neguan, gaberdian, artzulo agirian, aska otz-gogorrean. Arpegiko ederra emoten daust nire bigunkeriakaitik!

Ederto zatoz, Jauna, apaltasun, ezeuki ta nekeaz, Zeure iru lagun maite onekaz laztanduta! Ez dozuz, itxiko, ez, Zeure bizitza guztian; eurakaz estu-estu eginda ilgo zara gurutzean. Baiña, zegaitik dozuz orren maite iru lagunok? Zegaitik ez zara jaiotetxe apaindua, gizon aundiz inguratuta, kuma bigun eta epelean? Ez al-zeukan Zeure eskuan? Bai! Umeak ezin erririk aukeratu daikee, ez etxerik, ez gurasorik; emoten dautsena artu bear dabe. Jesus'ek bakarrik eukan aukera ori.

Eta alan be, errukizko irribarre bat egifiaz, jauregi

eder, gizon jakitun, aberats eta aukera-mueta guztiak alde batera izten dauz; eta ezeuki, apaltasun eta nekeaz estututa jaioten da.

Belarrondoko ederra emoten dautso munduari Jesus'ek bere jaiotzan! Iru gauza dauz maiteen munduak: aberastasuna, aundi-naia ta atsegiña; ta eurok euki ezkerok, beste guztiak barre eginda, zoriontsua dala deritxo. Jesus'ek, osterak, ezeuki, apaltasun eta nekeaz beretzat aututa, argi-argi erakusten dau, ez aberastasuna, ez andi-izatea, ez atsegiña, ez dirala naita-ezkoak zoriontsu izateko; ainbagarik da Bera zoriontsuetatik zoriontsuena-ta. Geiako: ezta onak be ez dirala dirausku, munduak ainbeste maitatu ta goratzen dauzan bere iru jainko-guzurrezkook; ezeuki, apaltasun eta nekeaz, askozaz be obeak dirala, ta au irakasteko, bere iru lagun maite onekaz laztanduta dator; ez dauz itxiko bizitza osoan, eta eurakaz iñoiz baiño estuago eginda, gurutzean ilgo da: askatxo ta gurutzean, Jesus'en irakastegi bi oneik, alkarri deustela dagoz.

Beraz, edo munduak diño guzurra, edo Jesus'ek. Jesus'ek ezin guzurrik esan daike, Jaungoikoaren jakituri ta santutasuna bera da-ta. Mundua izan bear oker dabillena, mundua guzurria, mundua gure iruzurgille (engañadore) ta areriorik aundiena, zoritxarra ontzat saldu nai dauskuna.


Orrela da, Jauna; gauza gatxa da, bai, askako irakastegitik emoten daustazun irakatsi ori; baiña zenbat-eta gatxago, onuratsuo. Zeure lagunik maiteenak, ezeuki edo txirotasuna, apaltasuna ta nekeaz

izan zenduzan: eurak izan bear dabe neureak be. Ez dautset aurrerantzean orain arteko begi txarrakaz begiratuko beintzat. Eta Zeure laguntasunaz, Zeure gauzarik maitegarrienak diran ezkerero, eurakaz apaindu nai dautsut neure biotzeko ogetxoa.

Ez zintzazan gurtzaille edo adoradore billa bakarririk lurrera etorri; millaka aingeru zeukazan orretarako zeruan; gurtasuna baiño be maitetasuna naiago izan dozu; ta orretxegaitik zatoz, ez Agintari altsuaren antzeko, Ume eginda baiño. Erdu, ba, maitte ori, ta neure biotzean be ipiñi egidazu Zeure jarlekua, idiaskan be ipiñi zenduan-eta.

Ai!, baiña nire biotzau Belen'go artzuloko askea bera baiño be loiago, otzago ta gogorrago dago. Eta bertan artuko zaitut, batez be jaunartzera joan naitenean, Jesus, Biotz garbi, Biotz bero ta Biotz errukior ori?

Andra Maria, nire Ama laztan ori! Belen'go ogetxoa garbitu zenduan lez, neure biotzau be garbitu egidazu. Kendu arrokeri, atsegin-gura ta munduko aberastasan eta beste gauza guztien zalekeria, Jesus ona mindu ez dagien. Zeure aberastasunez apaindu nagizu; ta askatxoan bedar igarrak ipiñi zenduzan antzera, ezarri egidazu biotzean Zeure Seme Jesus'en maitetasuna, bigunago ta beroago egon dadin.



## AMABOSGARREN GOGARTEA

JESUS, ANDRA MARIA TA JOSE'REN BIZIKERA  
NAZARET'EN

### LENENGO ATALA

#### *Menpetasun eta esaneko biritza*

Zer egin eban Jesus onak jaio zanetik ogetamar urtera sermogiñan asi arte? Bere gurasoen esaneko izan. Entzun Ebanjelariak diñoskuna: «*Et erat subditus illis*: Euren menpean bizi zan». Nor? Jesus; Jaungoikoa zanez, Betiko Aita baizen Jakituna, ta Bera baizen Zuzena ta Altsua; gizona zan aldetik, beste gizon eta aingeru guztiak baiño askozaz be jakitunagoa, zuzenagoa, aundiagoa. Eta alan be, Jose ta Maria'ri burua makurtu, ta aginduak eta esanik txikienak zeatz-zeatz egiten eutsezan.

Eta ni, ez-jakiña, ezetarakoeza, okerra ta onen ezereza izanarren, nagusien esanik egin nai ez-ta ibilliko ete-naz? Uts egiten dabela agintzen daustanak? Gaurko gazteak lengo zarrak baiño geiago dakiela? Egin daigun ori be. Baiña, Jesus'ek ez etekian Jose'k baiño geiago? Ez eban ikusiko bein baiño sarriago, oker joiala agintzen eutsana?, Berak obeto egin eikeala? Alan be, egin egiten eban; eta, geienez bigun adierazoko eutsan, ez joiala zuzen, onetara edo aretara obeto egin eikeala.

Eta Jesus'ek, zelan gero bete be egiten ebazan Jose ta Andra Maria'ren aginduak? Bat-batera, oso-osorik, pozik; arpegi txar, iguin, ez mukertasunik erakutsi бага; Maria'k eta Jose'k agintzen eutsuena, Aita betikorrak berak agintzen eutsala ondo ekialako, ta eurai kontra egiten ba'eutsen, Aren kontra jarten zala.

Bakotxari dagokion menpetasun bagarik, ezin izan daiteke sendirik (familiarik), ez uririk, ez erri-rik, ez gizarterik. Esanekotasuna ain bearreko genduan ezkerro, itzaldi (sermoi), mirari ta pekatuak parkatzea alde batera itxirik, arotzean ziarduan Jesus Onak, lantegi txiki baten langille-txartasaz bere jaungoikotasuna estalduta. Iru urte irakasten; oge-tamar, amar bidar geiago, etxe-lanetan: obea ta indartsuagoa benetan egitea, irakastearen aldean. Olantxe, menpetasunaz, Jaungoikoaganatu bear eban, menpetasun-ezak beragandik aldendu eban gizona.

Jaungoikoa lanean, arotzean! Ez da, beraz, lana lotsagarri ez iguingarri. Errusaritzat ipiñi euskun lana lendik Jaungoikoak; baita alperkeriak kenduaz,

grña txarrak esi, ta eroapen (pazientzia) ta beste birtute asko jaristeko be. Baiña Jaungoikoa langille egin zanez gero, lana santututa dago.

Ekin dagiogula lanari, bakotxak bere lanari; ta gizadia, gaurkoa baizen galdua egonarren, osatu ta ondu egingo da.

## BIGARREN ATALA

### *Santutasunezko bizitza*

Baiña sartu gaitezcan barrurago zeruko etxetxo aretan.

BEGIRATU LAGUNAK: Zeintzuk ikusten doguz? Jesus alde batetik, ta Jose doatsua bestetik zerreari teinkaka, izerdia dariela. Andra Maria baztartxoan, senar eta Umearen soñekoak adobatzen (konpon-tzen). Areik bai arpegiak! Arpegi baketsuak, bigunak! Asarrea an? Betondo illuna, arpegi motza? Guztia da an batasuna, alkarrenganako maitetasuna.

ENTZUN DIÑOENA: Nok entzun an esamesik, ez bear ez dan beste barbarik? Ez dago an deadarrik, ez agirakarik, ez barre-santzorik. Sarritan dagoz isilik; edo, obeto esateko, Jaungoikoagaz berbetan. Jesus, Aita Betikorrari bere neke ta izerdiak eskin-tzen, pekatarien alde, gure alde otoitz egiten, bere Odolaren emotordua luze egiten yakola.

Andra Maria'k jostaldi baten ostean, begirakune gozoa Jesus'i ezarrita, egingo eban: «Ene zoria! Baiña, nundik nora niri Jaungoikoagaz egotea, Jaungoikoaren Ama izatea?».

Jose apalak, barriz, Jesus'en arpegia ozta-ozta be-  
giratuta, gero bere barruan sarturik, esango eban:  
«Jose naz ni? Eta ni Jaungoikoagaz teillape baten  
bizi? Jaungoikoari agindu nik? Zer egin dot nik  
Jaungoikoak niri onen zorion aundia emoteko? Ne-  
kearen biguna! Bekokitik beera datorkidan izerdiaren  
gozoa! Neure neke ta izerdiaz, mundu-Salbatzaille  
biurtuko danaren jatekoa irabazten dot».

Beste batzuetan, berba egiten dabe. Baiña ez errian  
jazoten dana, ezta beste uskeririk be. Jaungoikoaren  
erriaren jazoak, eurakanako Jaungoikoaren erru-  
kiak; Jaungoikoari zor dautsoen eskerron eta maite-  
tasuna, ta beste onen antzeko jardun jaungoiko-  
koak.

IKUSI EGITEN DABENA: Goizean jagikeran, otoi-  
tzak; gero lana, bakotzak bere lana: Andra Maria'k  
eskaratza ta etxetxea garbitu, lapikoa gertatu, maia  
ipifii; gero ontziak garbitu, gauza guztiak garbi ta  
bakotxa bere tokian. Jesus eta Jose arotzean, bai  
etxean bai deitzen eutsen lekuan. Astia ebenean,  
Liburu Santuak irakurri, ta irakurten ebena alka-  
rren artean azaldu ta erabili. Larunbatetako (zapa-  
uetako) Eliz-batzarretara arduraz joan, irakasten  
zana arretaz (atentziñoz) entzun, auzokoai arein  
bearrizanetan lagundu...

Orra or, ba, Nazaret'eko etxetxoko bizikera: Jaun-  
goikoaganako eta Elizako gauzetarako zaletasun  
eta gar aundia; norberaren eginbearrak arduraz  
eta bakean bete, iñoren arloan sartzeke. Alkarren ar-  
tean lotsa, apaltasuna, laguntasuna ta maitetasuna.  
Beste ainbeste bakotzak bere lagun eta adiskidea-

kaz, baita beste lagun-urkoakaz be: Andra Maria'k  
andra-arteon, Jose'k gizonakaz, mutillakaz Jesus'ek,  
guztiak ondo esaten ebela, euren arpegi artzen eutsen  
gaiztoren batzuk izan ezik. Guztiak oso ondo be-  
giratzen ta maitatzen eben Jose arotza ta sendia.  
Baiña iñok ez eban igarri arotz on batzuk baiño bes-  
terik ziranik: ain apel eta leun ebizan besteen ar-  
teon! Eta arela, Jesus bere errian sermogiñan asi za-  
nean, arrituta iñoen: «Nundik oni jakituri ta  
indar au? Ez al-da au arotzaren semea? Ez al-  
deritxo Maria bere amari, ta bere senideak ez al  
dagoz geure arteon?»

Baiña Jaungoikoaren begiak zuzen-zuzen egozan  
etxetxo aretara begira: antxe eukan bere biotza, ez  
Nazaret'eko ta beste lurraldetako aberats, jakitun  
ta agintarien jauregi eder-apainduetan.

Bai geure etxeetan be, pozik egingo leuke atsedean  
Jesus'en Biotzak Nazaret'ekoen antzera bizi ba'gen-  
diz! Bai pozik bedeinkatuko gendukezala! Saritzat  
emongo leuskiguzan seme-alaba santuak! Geure poza  
ta zoriona izango litzake. Ez dago pozik ez atsegi-  
ñik, erlijio aundiko etxean dauana lakorik.


Baiña askok, gaurko egunetan, ez dabe atsegin-  
ezkontza, dirua ta lar ondo bizi izatea baiño asmo ta  
gogo aundiagorik. (Izan be, gaur egunean —1962\*  
garren urtean—, euskaldunon arteon, auxe da in-  
darrik geien artu dauan bizikera: diru-zalekeria, ja-  
tea, edatea ta atsegiña.) Eta orregaitik, familiak da-  
kazan nekeak lepotik bota; seme-alabak erlijioan  
azi ez; gurasoak, itxiak; seme-alabak, lotsabagak;  
asarrea, agiraka, eztabida garratzak, alkar ezin-iku-

sia; gurasoakin bizi izatea azitxoentzat astun; etxe-ari lotuta egoteko erlijioaren lokarririk ez-eta, erbestera doaz, erri urriñetara; gurasoak etxean eteten, erlijioak dakarren gozagarririk ez; zartzaro txarra mundu onetan, eta bestean obeto izango diranaren antz gutxi: orra erlijio gutxiko etxe geien azkena.

Geure etheen irakaspen eta izpillutzat ipiñi eban Jaungoikoak Nazaret'eko etxetxo. Ez zan aberastasunik ikusten; baiña, eurak baizen zorionekoagorik nor? Bardin geurea be; aberastasun andirik euki ezarren, aren antzekoago izan erkeru, erlijio geiago euki ezkeru, zorionekoago izango da.

Sartu neure barruan eta egin dagidan: Nire etxea, ze gauzatan ez da Nazaret'ekoaren antzekoa? Nire aldetik, zer egin daiket geroago-ta aren antzekoago izateko? Ikusi ta erabagi.

Ai, Jauna! Bai gitxi sartu yakula buruan, gutxiago biotzean, ogetamar urte anditan irakatsi euskuzun etxeko eskolea! Emen gabiz arrapataka, Zure erlijioaz ia aztuta, laukotxo batzuk batu ezinda, eura-kaz zoriontsu izango garala-ta; Zeugandik geiago al-dendu, benetako zorionetik be beste onenbeste urrun-tzen garala ezautu ezinda. Apala egingo naz, bake-tsua, lantzalea, laguntzaillea, bai etxekoakaz bai beste lagunakaz. Josita eukiko dot buru ta biotzean Na-zaret'eko etxetxo ori, ta neurea be aren antzeko iza-teko, alegin beroak egingo dodaz; bake ederrean bizi izanda, guztion zeruko etxean, Zeu buru zaitugula, bake ta atsegintzan betiko bizi gaitezan.



IRUGARREN ASTEA

## AMASEIGARREN GOGARTEA

*JESUS'EN NEKALDI EDO PASIÑO SANTUA*

JETSEMANI'KO OTOITZA.—Gabeko amarrak in-guruan, amaika ikasleakaz urteten da Jesus mai-tea Sion-Mendiko apaltokitik Jerusalem'go uriaren ego-aldera, Skopus eritxon mendiruntz; Olibet'eko mendira eltzen dira, ta mendi onen barrenean egoan Jetsemani'ko ortura sartzen dira. Antxe ei'egoañ Andra Maria'ren asaben illobia; eta araxe joaten zan Jesus gabero otoitz egitera.

Gau aretan be, ain larri ta sotil egonarren, ez eban itxi nai izan otoitz egiteko oitura ederra; ta itxi ba-karrik ez, bestetan baiño be askozaz luzeago egin eban, guretzat irakaskizun ballotsu bat itxirik: ez doguzala baztertu bear gure atsekebeetan ez otoitz egitea, ez beste oitura onak; eta bai gogorrigo ekin, Jaungoikoaren laguntasuna ugariago jaristeko.

Ara eldu ziranean, auxe esan eutsen Jesus'ek ikasleai: «Geratu emen, ara joan eta otoitz egin dagidan». Eta Pedro, Santiago ta Jon beragaz arturik, naigabetzen eta larritzen asi zan. Orduan, dirautse: «Ilteko zorian larri dot gogoia: itxaron emen, eta egon ernai neugaz; egizue otoitz, zirikaldian sartu ez zaitzen».

Eta ikasleai emon eutsen aolku edo kontsejua beretzat artuta, artzuloan sartu ta asten da otoitz egiten: «Aita, al izan ezkerero, aldendu egidazu edontzi au; baiña ez bedi nire naia egin, Zeurea baiño».

Begiratu Jesus maitea, belauniko, auzpez, bekokiaz lurra joten; larri, estu, zurbil, biotza ausirik, eta arpegian-bera odolezko izertanpuluak eriozala.

Biztu, ene arima orrek!, zure sinismena, ta itandu egiozu zure buruari: Zein da gizonaren antz bagarik dagoan ori? Ori, Aita Betikorraren Seme Bakarra da, Bera baizen aundi ta altsua. Taio ain negargarrian, zek jarri dau? Ai!, argi-argi, banan-banan dakartz burura ordu gitxi barru gaiñera jausiko yakoan min eta oiñaze guztiak: zigorradak, arantzak, gurutze, bultzakadak, belarrondoko, txistu-urtika, irri-barre ta gizonari egin daitekeozan lotsabagakeririk andienak.

Antxe ikusten dau bere burua apostolu batek salduta; beste batek, berak geien goratu ebanak, ukatuta; ta beste guztiak, igesari emonik, arerio ain gogorren eskuetan bakarrik itxita. Eta batez bere —ta auxe zan geuganako maitetasunez beteriko Biotza geien samintzen eutsana—, zenbat eta zenbat ari-

ma betiko galduko zirala ikusten eban, Berak eurak salbatzeko ainbeste alegin egifarren.

Baiña, zegaitik agertzen da bere Aitaren aurrean ainbeste lotsatuta, arpegirik jasoten be ausartzen ez dala? Ezin daikegu guk ondo ezagutu Jesus'en lotsari au, garbitasunari dautsan maitetasuna ezin daikegu ezagutu-ta, ezta ortik sortzen dan pekatuaganako gorrotoa be. Auxe da guk dakiguna: ez daukala Jaungoikoak pekatua lako areriorik. Artu daike, bai, Jaungoikoak, beragaz baturiko izatean, gosea, egarria, miñak, baita eriotza bera be; pekatua da bakarrik artu ezin daikena, naizta txikiena izan. Ezin artu eikean, ba, Jesus'ek gure pekatuak; baiña bai ortik ganerako dana. Nok esan lurbira osoan egiten diran pekatuak, zenbat eta zelakoak diran? Ba, guztiak, al ebanez, bota ebazan bere gaiñera Jesus'ek, guztien zordun agertu zan, guztien lotsaria jausten yakon arpegitik bera.

Antxe ikusten ebazan, beragan, agitarien eta menpekoen pekatuak, guraso ta seme-alabenak, aundiki ta ezeukienak. Antxe ikusten ebazan ainbeste birau, ainbeste gorroto, ainbeste lapurreta. Antxe ikusten ebazan, batez bere, santutasun eta garbitasunaren aurka ain zuzen doazan loikerizko pekatu iguingarriak. Baita neure pekatuak be, banan-banan; eta, berak ain maite ebanagandik etozan ezkerero, berarizko min eta oiñazea emoten eutsoen. Bere Biotzaren barruan ikusten nenduan argi-argi; ta, «zu be bai, ene seme ori», esaten eustan; «ez daustazu zuk be errukirik? Ez dira naiko ainbeste sinisbaga, si-



nistausle ta kristau dongak egiten daustezan iraiñak? Zauri sakonagoak eta mingarriagoak nire Biotzean egitera etorriko zintzakidaz, ba, zu be, ene seme maite ori?

Bai, Jauna, egin dot, ordu txarrean milla bidar. Ez beste bein. Damu dot biotzez. Sarritan gogoratuko dodaz, autortze-aldian batez bere, egin dautsuzadazan lotsabagakeriak, eta Biotz gozo maitetzaille orri emon dautsuzadazan atsekabeak.

Zer izango ete-zan, ba, Jesus'en lotsaria pekatu guzti onekaz estalduta bere Aitaren aurrean agertu zeitenean? Jaso ozta-ozta begiak bere Aitaganuntz eta oso asarratuta ikusten eban, arpegia albora egiten eutsala. Au Semearen atsekabea!

Neuretzat izan bear eban, Jesus ona!, Zure Aitareen gorroto ta asarre ori; neure gaiñera jaurti bear eban bere zuzentasunezko ezpata zorrotza. Baiña, Zeu sartu zara bion artean, ta errusari gogor ori nigana eldu baiña lenago, Zeure gaiñera etortea nai izan dozu. Zelan agertuko dautsuzadaz, Jauna, mezede ain aundi orren eskerrak? Eta ni Zu geiago iraindu? Ni Zu geroago ta geiago maite izan ez? Ai, Zeugana-giño igoteke, neure biotzean sartuta geratu al ba' leitekidaz pekatariak Biotz samur orri egunero jaurtiten dautsezan tiroak!

AIINGERUA AGERTZEN YAKO.—Aita Betikorrak Seme maitea bere maitetasunarren ain atsekabetsu ikusi ebanean, aingerua bialdu eutsan indartzeko. Bat agertu yakola, diño Ebanjelariak. Baiña asko be geiago eldu yakozala, uste izatekoa da. Areik bai

geratuko zirala arrituta, euren Jaun aundia ain errukarriro ikusita!

Baita neuri be, Jesus'en antzera, aspertu baga, neure estualdietan Jaunari otoitz egin ba'dagitsat; naizta neure nekeak, bear ez ba'da, kendu ez, indar-bidea beintzat bialduko daust.

Jesus'ek ez ekianik ez eutsan esango aingeruak. Orregaitiño be, apal-apal entzuten dautso, bere Aitak bialdua zan ezkerro. Olantxe neuk be, neure estutasunetan esaten yatazan berba pozkarriak, apal-tasan eta esker onez entzungo dodaz.

ODOLEZKO IZERDIA.—Jesus maiteak, bere sortzetik guztiz zorionsua izanik, naigaberik ezin euki eikean. Naigabe bagarik, barriz, inpernutik ezin gu salbau; eta mirari aundi bat egiten dau: berez zorionsua dana, bizitza guztian naigabetan egotea.

Eta guk naigabeak kentzeko mirariak eskatu? Baiña Jetsemani'ko ortuan naigabe ta larritasun guztiai zabal-zabal edegi eutsezan ateak Jesus Onak: barrura sartu yakozan; bete eutsen Biotz zabal-aundi guztia; aurkitu eben odola zanetara jaurti eutsen, eta zanak beterik, odol eder a, tantaka-tantaka, gorputz guztitik urten yakon, soiñekoak eta lurra busti arte.

Noiz entzun dau iñok onelako naigaberik? Urezko izerdia neken-nekez ataratea ez da gitxi. Odolezkoa ataraten, norbait ikusi izan da? Zure larritasun ori eriotzaragiñokoa zala autortu zeutsen apostoluai, Jesus orrek; baiña milla bizitza eukita be, guztiak batean kentzeko, naiko izango zenduan.

Ordu bi inguru egon zan Jesus ona otoitz onetan. Garbituko eban arpegiko odola, ta jagi ta ba-doa Apostoluakana, ta lo aurkitzen dauz: atsekabe barria Jesus'entzat! Lo, bere apostolurik maiteenak, beragaz ernai egoteko aukeratu ebazanak, arerioak bera arrapatzeko ain zoli ebizanean! Eta Pedro'ri dirautso: «Simon, lo zagoz? Zer, ezin egon izan zaree ordu bete ni lez iratzarrik? Zagoze ernai ta egizue otoitz, tentaziñoan sartu ez zaitez. Gogoa (arimea), gertu dago; baiña aragia makal».

Eta ostera be joan eta otoitz egiten dau, lengo berbak esanda: «Ene Aita!, ontziko au Nik edateke ezin igaro ba'da, egin bedi zure naia». Eta biurtu ostera be apostoluakana, ta barriro be lotan aurkitu ebazan, arein begiak astunduta egozan-eta; ez ekien, barriz, erantzuten be. Eta areik itxita, joan zan barriro ta otoitz egin eban irugarrenez, itz berberak esanez. Eta otoitzetik jagita ikasleakana irugarrenez etorririk, esan eutsen: «Onezkero lo egizue ta atsenden artu... Naiko da!, eldu da ordua, ta Gizonaren Semea pekatarien eskuetan jarria izango da. Jagi zaitez, goazen; begira, urrean dago nire saltzaillea».

Ai, Jauna, Zure irakatsi onek lotsatzen nauana! Zu, orren minduta, orren estu egonarren, luzaro, iru ordu ta geiagotan otoitz egiten dozu. Ni, barriz, bai atzerea ototzerako, ta bai arin aspertzen nazan, battez bere atsekaberen bat dagidanean. Amaika bidar egiten daustazu deadar altarako bakartasunetik: «Zur egon zakidaz, lagun zakidaz». Eta nik, apostoluen antzera, poztu bagarik izten zaitut, zure are-

rioak zure kontra Getsemani'n baizen iratzarrik ibiliarren. Zetako dozu baiña, Jauna, ni lako loti ta epelaren laguntasuna? Ai!, ezagutzen dot! Ez da zure atsegiñagaitik bakarrik; ni otoitz-bearrez ikusten nozulako geiago da. Baiña ni, apostoluen antzera, otoitz egin bearrean, loari emoten naiako; ta gero, zirikal-dian (tentaziñoan) eurak lez jausten naz. Neure makaltasuna ezaututa, indartzeko otoitz egin dagidan; Zeuk lez, otoitz-ostean, adore aundiz arerioari arpegi emoteko.

JUDAS'EN LAZTANA.—Oraindiño berbetan egoala Jesus apostoluakin, ara nun datorren Judas Iskariote, amabietariko bat, gudarozte-sail bataz eta abade nagusien eta pariseotarren morroiakaz; eta eurakin gizatalde aundia, argi, ezpata ta makillaz, abade-buru, lege-gizon, idazlari ta erriko zarrak bialduta: Judas ekarren aurretiko. Saltzailleak, barriz, ezaugarri au emon eutsen, esanez: «Nik laztandu dagidan gizona, axe izango da: lotu ta arduraz eroan egizue». Eta elduta batera, Jesus'egana urreratuaz, Judas'ek esan eutsan: «Agur, Irakasle!», ta laztandu egin eban. Eta Jesus'ek erantzun eutsan: «Adiskide, zetara etorri zara? Judas!, laztanaz saltzen dozu gizonaren Semea?» Au da: Adiskide! Izen au emoten dautsut, ez zuk adiskidetasunik nai dozulako, ezta zure egikunak eskatzen dabelako be; ta bai zu nire adiskidetasunean sartzea dalako nire gurari bizia. Ba, adiskide: zetara etorri zara? Zure asmoen barri ez dakidala uste ete-dozu? Orregaitiño be, ez dautsut ukatuko adiskide maiteenen artean emon oi

dan laztan ori; pozik aundienaz emongo dautsut, nire Biotzari ikutuaz, zeure biotza biguntzen dozun. Eta errukizko begirakune bat ezarrita ta Biotza maitetasunez taupadaka, estu-estu laztantzen dau.

Begiratu Jesus'en Biotza ta Judas'ena, alkarren ondoan: Jesus'en Biotza, biotzik onena, bigunena, garbiena, zintzoena, santuena; ta Judas'en biotza, biotzik txarrena, gogorrena, loiena, guzurtiena, deungeena; ta biotz biak alkarri deutsela, bata-bestearen taupadak sentitzen. Au ikusgarria!

Eta gero etorri arima bildurtiren bat, eta esango dau: «Parkatuko ete-daustaz Jaungoikoak nire pekatuak? Itxita ete-nauko?» Zer diñozu? Judas'i, gizonik deungeenari, Jesus'en maitetasunik bape nai ez ebanari, pekatu ain aundia egitera joianean bertan, Jesus'ek bere adiskidetasuna eskintzen dautso; ta zuri, pekatuak gorrotatu ta Jesus'en adiskidetasunean sartzea orrenbeste nai dozun orri, adiskidetasun ori ukatu? Ez egizu egin zure itxaropenik ezaz, lengo pekatu guztiak baiño aundiagoa!

Ez!, ez bildurtu, ez atzeratu! Naiz-ta asko ta arri-garriak izan zure pekatuak, zoaz Jesus'egana; besoak zabalik daukazu, beraren Biotz-ondoan laztantzeko. Ez geroko itxi! Batek ba-daki Jesus'en Biotzetik Judas'enera jausiko ziran graziak, biotz biak alkarri ikutzen egon ziranean! Baiña, aitz gogorrean ura lez, ez eben bigundu Judas'en biotza; aretzek ziran Judas'i eskeiñi yakozan azkenengo agirizko graziak. Ez ebazan artu, ta laster itxi eban bere

gorputza zugatz-adarretik dingilizka; ta bere arimea betiko ondatu zan inpernuan.

Beraz... azken-graziak dagoz! Eta artu ez dagi-zana, galdua da.

SAN PEDRO'REN UKATZEA.—Jesus maitea sokaz loturik, lapur-gisan, tatarrez daroe, or jausi, emen jaso, Getsemani'ko ortutik Jerusalem'era, ordubate-terdiak inguruan. Anas'enean igaro ebana ta errizain batek emon eutsan belarrondokoa alde batera itxirik, jarraitu daiogun aren ondoan egoan Kaifas'en etxera. Baiña begiratu lenengo Pedro'ren ukatzea.

Jesus Kaifas'enean zan bitartean, atartean sua biztu eben gudariak, zerbait berotzeko asmoz, ta Pedro be euren artean egoan. Abade-nagusiaren neskamea urreratzen yako, ta begiraturik, dirautso: «Baita zu be Jesus Galilearrarekin zengozan». Baiña Pedro'k guztien aurrean ukatu egin eban, esanaz: «Ez dakit zer diñozun be». Eta ataurrera urten zan eta oillarrak kukurruku egin eban. Gerotxoago, beste neskame batek ikusi, ta an egozanai esan eutsen: «Au be Jesus Nazaret'arragaz ebillen». Baiña Pedro'k, barriro be ukatu; ez ebala ezagutzen gizona. Ordu-betera-edo, beste batek be esan eban: «Bai; au be Aregaz egoan, Galilearra be ba-da-ta». Eta Pedro'k: «Zer diñozun be ez dakit, gizon». Urreratu inguru-koak, eta esan eutsen Pedro'ri: «Euretarikoa zara; berbakeran be agiri dozu». (Galilearrak berarizko berbakera euken-eta). Eta beste batek, Abade-nagusiaren morroiak, Pedro'k belarria ebagi eutsanaren senide zanak, dirautso: «Neuk ez zaitut, ba, ortuan

Aregaz ikusi?» Orduan, zin egiten asi zan: areik ifioen gizon a ez ebala ezautzen, eta bere buruari biraoak ezarten, gizon a ez ebala ezagutu-ta. Eta oraindiño berbetan ziarduala, oillarrak bigarrenez kukurruku egin eban.

Eta Jaunak, Pedro'gana bihurturik, begiratu egin eban (naiz begiz, naiz gogoz grazia emonaz). Eta Pedro'k Jaunak esan eutsazan itzok ekarri ebazan gogora: «Oillarak birritan kukurruku egin baiño len, iru bidar ukatuko nozu». Eta, andik urtenda, negarrez asi zan.

Jazo arrigarria benetan! Pedro, Apostolu ta Eliza guztiaren burutzat izentauta egoana, ain gogo beroz Jesus maite ebana, Jesus bakarrik itxi nai baiño il be naiago ebana: orra or neskame baten berbeari arpegi ezin emonda, Jesus Ona iru bidarreragiño ukatzen, eta biziro ta garratz ukatu be. Nor ez da bildurtuko? Nor ez da Jaungoikoagana indar-billa elduko, nai-ta bere ustez Jaunaren maitetasunean sendo egon?

Baiña zegaitik jausi zan? Arriskutik aldendu ez zalako. Eta zu, ene arimea, arriskuan sartuko zara? Libano'ko tantaiak gerri-gerritik eta iru tokitik ebagi dauz arriskuaren aizeak; eta kañabera ori oiñean geratu? Arriskuan sartu zara? Arriskuan jausi zara. Arriskuan sartu nai dozu? Arriskuan jausiko zara. Olantxe dauko Jaungoikoak erabagita, ta olantxe dirautso bakotxari bere barruak.

Egin dagidan negar Pedro'k lez, Pedro lez jausi naz-ta. Baiña orduan negarrez «asi» egin zala diño

Ebanjelariak; eta bere bizitza osoan, oillarraren kukurrukuaz jagita, negar egin oi-ebala, diño e jazoak, betertzak zaurituta geratu arte.

Josi, ba, Jauna, nire gogoaren barru-barruan nire txarto-egiñen gomuta, negarrez urtu dagidazan, eta galbidetik urrundu nadin.

**JESUS'EK GAU ARETAN IGARO EBAZANAK:** Abade ta lege-gizonak alkaturik, auzitegi nagusian batu ziran Kaifas'enean. Irurogei ta amabi ziran auziepailleak. Begiratu Jesus guztien erdian, eratasunik (modestiarik) aundienaz, bildotsa otso-artean lez. Guzurrezko ziñaldari edo testiguak dakarrez; baiña gauza dan errurik ezin dautsoe ezarri; ain garbia zan Jesus'en bizikera!

«Eta Abade-nagusiak, erdiruntz urtenda, itanduten dautso Jesus'i: «Ez dautsazu ezer erantzuten oneik zure aurka diñoenari?» Baiña Jesus isilik. Osetera be itandu eutsan abade-nagusiak: «Jaungoiko biziaren izenean agintzen dautsut: «Esan eiguzu Kristo Jaungoiko bedeinkatuaren Semea zaran». Jesus'ek dirautso: «Neu naz, eta auxe be ba-diñotsuet: laster ikusiko dozue Gizonaren Semea (onela deitzen eutsan bere buruari) Jaungoiko altsuaren eskumaldean jesarrita ta odei-gaiñean etorten».

Orduan, Abade-nagusiak bere soiñekoak urratu, ta esan eban: «Biraoa!; testigu bearra daukagu oraindiño? Oraintxe bertan entzun dozue biraoa: zer deritxazue?» Eta guztiak erantzun eutsen: «Ilteko errudun da».

Ikasi egizu emen, ene arima orrek, isilik entzuten

zure kontra esaten diranak, zure barruan salatzen ez ba'zagiez; batez bere, erantzutea alperreko izan dadinean. Baita zeure sinismena autortzen be, nai-ta autortzeagaitik edozer igaro. —Emon egidazu, Jauna, orretarako laguntasuna, gaurko egunetan oso bearreko dogu-ta.

Artu ta eroaten dabe Jesus maitea gela txiki batera, ta arpegira txistu-urtika asten yakoz. Estaldu gero arpegia; ta, belarrondokoak emonda, egiten eutsen: «Igarri, Kristo, nok jo zaituan».

Begiratu, ba, ene arima orrek, Jesus maitearen arpegia, aingeruen zoragarria, txistu zikiñez beteta. Ai!, orixe berori da gaurko birautiak egiten dautsoena. Baita pekatu egiten dauan beste edonok be, ezaindu egiten dau bere ariman daukan Jaungoikoaren irudi ederra. Eta lagun-urkoari jaurtiriko iraiñak, ez al dauz Jesus'ek berari jaurtirikotzat artzen? Ene Jauna!, nok garbitu leitekizun arpegi eder ori norberaren odolaz! Eta arenbeste iraintzen zenduezan bitartean, zer egiten zenduan, Jesus maite orrek? «Geldi-geldi egon, arpegia albora be egiteke, Nire igarleak antxiñatik esan ebenez; zeure alde, ene seme, eskeiñi neure Aitari irain aundi ta ugari oneik, zeure ariman daukazun nire irudia geroago ta garbiago egin dagizun, nire arpegia zeruan ikusiaz betiko zoriontsu izan zaitezan.»

JESUS PILATOS'ENEAN.—Eguna zabaldu zaneko, batu ziran auzitegian. Jaungoikoaren Semea ete-zan itanduten dautsoe Jesus'i; baietz erantzuten dau. Sama ta esku, burdiñaz lotzen dabe, ta Pilatos agin-

tariaren etxera daroe, gurutzeko eriotza emon dation.

Keleetako gizataldea batzen da zaratara, ta Jesus Ona ikusten dabe, sei egun aurretik kale areik ain omen aundiaz igaro ebazana, orain gaizkilleantzera eriotzara daroela. Zuzenak, samiñez beterik begiraten eben; zatar, lapur, oker guztiak, pozik; eta ardantegietan egozanak, iraiñez abesten (kantatzen) eutsoen.

Ba-daroe, ba, lotuta epai-tokira, Pilatos'en etxera; baiña Judarrak ez ziran sartu, Pazkoakoa jateko loitu ez zeitezan. Urten zan Pilatus atera eurakana, ta esan eutsen: «Zer dakazue gizon onen kontra?» Eta erantzun eutsoen: «Gaizkille ez ba'litz, ez geuskizu ekarriko». Pilatos'ek erantzun eutsen: «Artu egizue zeuok, eta zeuen legearen arauz epaitu egizue». Judarrak erantzun eutsoen: «Guk ez dogu iñor ilteko eskubiderik». Eta salatzen asi yakozan, esanez: «Geure erria naasten aurkitu dogu au, Kaisar' entzako zergak (kontribuziñuak) emotea galerazoten eta bera Kristo Errege dala esaten». Orduan, Pilatos'ek, barriro auzitegian sartuta, Jesus'i dei egin eutsan. Eta Jesus lendakariaren aurrera eroan eben, eta onek auxe itandu eutsan: «Judarren Errege zara zu?» Jesus'ek erantzun eutsan: «Ori zeure buruz diñozu, ala nitzaz beste batzuek esan dautsuelako?» Pilatos'ek erantzun eutsan: «Judarra naz, ba, ni? Zeure erritarrak eta abade-buruak jarri zaitue nire eskuetan. Zer egin dozu?» Jesus'ek erantzun eutsan: «Nire Erreiñua ez da lur onetakoa. Nire erreiñua

lur onetakoa ba'litz, nire menpekoak burrukan egin izango leukeen, judarren eskuetan jausi ez nendin. Baiña nire erreñua ez da emengoa». Orduan, Pilatos'ek esan eutsan: «Beraz, Errege zaitugu?» Jesus'ek erantzun eutsan: «Zeuk diñozu: Errege naz. Onetarakoxe jaió, ta onetarakoxe etorri naz gizartera: egiaren alde autor egiteko. Egizale dan edonok, entzuten dau nire itza (berbea)». Pilatos'ek dirautso: «Zer da egia?».

Eta au esanda, barriro judarrakana urten zan, eta abade-nagusi ta gizataldeai dirautse: «Ez dot nik gizon onegan auzigairik aurkitzen». Eta abade-nagusiak eta zaarrak salatzen ebenarren, Jesus'ek ez eutsen barbarik be erantzuten. Pilatos'ek barriro be auxe itandu eutsan: «Ez dozu ezer erantzuten? Ikusi zenbatetan salatzen zaituen». Baiña Jesus'ek ez eutsan geiago ezer bere erantzun, Pilatos guztiz arrituta gelditzeragiño. Areik, ostera, gogorrigo ziar-duen, esanez: «Erria naasten diardu, Galilea'tik asi ta onagiño, Judean zear irakasten».

Pilatos'ek, Galilea izena entzunik, gizon a Galilearra ete-zan itandu eban. Eta Erodos'en menpekoa zala jakinda, Erodos'egana bialdu eban, au be egun areitan Jerusalem'en egoan-eta.»

Begiratu alde batetik Jesus'eganako judarren amorrúa, ta bestetik Jesus'en bake ta epea arerio ain gogorren erdian: zer ete-da errubagatasunak arimara dakarren indar, zabaltasun eta nausitasuna? Ez egizu errurik izan, eta mundu guztia zure aurka

amorruka ibiliarren, ez dautsue ezer egingo, ezta bakterik kenduko be.

JESUS ERODES'ENEAN.—«Jesus ikusirik, Erodos poz-pozez jarri zan; aspaldian Jesus ikusi naiez egoan-eta, Aretzaz gauza aundiak entzun ebazan ezkerro; ta mirariren bat ikusiko ebala uste eban. Eta ainbat itaun egin eutsazan. Baiña Jesus'ek ez eutsan ezer erantzun. An ziarduen abade-buru ta idazlariak Jesus'en kontra salakuntzan. Eta Erodos'ek bere gudariakaz ezetsi ta irri egiñik, soingaiñeko zuri bat Ari jantzierazo, ta barriro Pilatos'i bialdu eutsan. Egun aretan, Erodos eta Pilatos adiskidetu egin ziran, len alkarren arerio ziran-eta.»

Begiratu Jesus eta Erodos aurrez-aurre. Erodos, bigunkeriz, itanduten; Jesus, gizon loikeritsu aren arimea ikusita, isilik. Ona egoan Jesus, Erodos'en berba leunai jaramon egiñaz, aren ikus-naia asetu-teko, batez be askatua izatearren. Belarrondoko ederra emoten dautso bere isiltasunaz!

Loikeriz burua illunduta ta biotza gogortuta eukan Erodos errukarria, ez egoan Jesus'en irakatsi sako-nak ulertzeko, ta zorotzat artu eban. Begiratu Jesus Ona, Jaungoikoaren jakituria, zoro jantzita, Jerusalem'go kaleetan zear, gizataldeak barre ta txistu egiten eutsala. Eu az i zoroa, mundu itsu ori!, Jaungoikoaren jakituria zorotzat daukan ori! Ez naz, Jau-na, lotsatuko munduak zorotzat artu ba'nendi be. Zeure zorakeria nai neuke neuretzat, neure egizko zorakeriak kentzeko.

JESUS OSTERA BE PILATOS'ENEAN.—Pilatos'ek, abade-buru, agintari ta erria baturik, esan eutsen: «Gizon au, erri-nastaille dala-ta ekarri daustazue. Baiña Zeuon aurean itanduta, gizon onen aurka diñozuezan salakuntza guztietan, ez dot auzigairik aurkitzen. Ezta Erodes'ek be: aregana bialdu zaituet, ta ez yako eriotzarakorik ezer aurkitu. Beraz, astinduta gero, askatu egingo dot».

JESUS, BARRABAS BAIÑO GUTXIAGOKOTZAT.—Pazko-jaietan lendakariak giltzapeko bat askatu oi eban, erriak nai egiana. Aldi aretan, ba-eukan espetxean Barrabas eritzan ots aundiko gaizkin bat: lapurra zan, eta uriko matxinadan norbait il egin ebala-ta, beste bere lagunakaz giltzapean egoan. Beraz, errikoak, Pilatos'egana etorririk, beti egiten eutsoena eskatzen asi yakozan. Batu ziranean, ba, Pilatos'ek erantzun eutsen: «Oitura dozue Pazko-egunez nik giltzapeko bat askatzea. Nai dozue judarren Erregea askatu dagitzuedan?» Ezin-ikusia gaitik saldu ebela ba-ekian-eta.

Eta epai-tokian jesarrita egoala, bere emazteak barri au bialdu eutsan: «Ez naastu orren arazoetan: gaur amesetan, ori dala-ta, atsekabe aundiak izan dodaz-ta. Baiña abade-buru ta zaarrak erria axatu egin eban, Barrabas askatu ta Jesus galdu egien. Eta erriburuak, erantzunik, esan eutsen: «Biotatik nor nai dozue askatu dagitzuedan?, Barrabas, ala Jesus, Kristo deritzana?» Eta guztiak batera, deadarka esan eban: «Kendu ori!, ta Barrabas askatu eiguzu!».

Pilatos'ek, Jesus askatu naiez, barriro be esan eu-

tsen: «Zer egingo dautsat, ba, Jesus'i, judarren Erregeri?» Barriro guzti areik deadar egin eban: «Gurutzera ori, gurutzera!» Pilatos'ek irugarrenez dirautse: «Ze gaiztakeri egin dau, ba? Nik ez dautsat errurik aurkitzen; beraz, zigortu ondoren, askatu egingo dot». Baiña areik, deadar aundiagoz, esaten ziar-duen: «Gurutzera eroan egizu!» Ta arein deadarrak gero ta indar aundiagoa artu eban.

Pilatos'ek, erria atsegindu nairik, arein eskaria egitea erabagi eban. Eta nastaille ta gizon-iltzailletzat giltzapean itxitako a, askatu egin eban. Orduan, Pilatos'ek Jesus artu ta zigorkadaz astindu eban.

JESUS'EN ZIGORKADAK.—Iruditu Pilatos'en etxean gela nagusi edo sala bat, eta beronen ertz baten iru oin inguruko pillarra, burdin-estun edo argolla bat, zigorkadatu bear ebazanai eskuak lotzeko. Bertan lotuta, biloizik, Jesus maitea; ondoan, borreroa kordelezko zigorra eskuetan daukala. Eta asten da borreroa bere besoetako indar guztiaz Jesus'en aragi garbia astintzen. Odol ederra urteten da, ta txipristiñez gorritzen dira borruaren arpegi ta soifnekoak.

Jesus ona geldi-geldi egoan, zigorkadai iges egiteko zirkiñik be egin бага, isil-isilik, «ai» bat ataraten ez ebala. Borreroak au ikusirik, bigundu bearrean, alan guztia zor ebalako egoala-ta, ekin geroago ta gogorrago. Jesus'en gorputz biguna edegi egiten da, ta ugariago urteten yako Odola, munduaren eroslea. Nekatzen da borreroa, ta, bere ordez, badator beste bat. Jesus ez da nekatzen zigorkadak ar-

tzen. Geroago ta geiago urratzen da Jesus'en Jaungoikozko aragia; ez dauko zauri bagako tokirik, eta zigorkadak zauri-gaiñean zauriak egiten dautsez.

Begiratu, ba, Jesus ona dana zaurita, aragi bizian, alde guztietatik odolezko iturriak eriozala; ondoko lurra odolezko erreka bat eginda, ta borreroak euren oin loiakaz Odol eder a zapaltzen. Ikusi lurrean-zear Jesus'en aragi zatiak be.

Erdue, zeruko aingeruok!, Jesus zigorkadez astintzen daberen tokira: munduko gaizkillerik andiena baiño gogorrago astinduta ikusiko dozue zuen Jaun altsua. Andra Maria! Zer igaroko ete-eban zure Biotz samurrak, zure Seme ain maitea taio negargarri aretan ikusita? Eta zuok, borrero biotz gogorrok, gizon errubaga orrezaz, on baiño egin ez dauan orrezaz, zelan ez zaree errukitzen? Zelan darabizuez zuen zigorrak, gaizkillerik zatarrenak astintzen dozuezan baiño asko be gogorrago ta arifago? Ikusi dozue gaizkillerik ori baizen geldi, ori baizen isil, zuei errukirik eskatu бага, zuen gogorkeriagaitik arpegi artu бага? Zelan, ba, ez yatzuez zigor gogor erreik eskuetatik jausten? Zelan darabizuez geroago ta indar geiagoz?

Ai!, beste indar mueta batek, ezkutukoak, baiña ikaragarriak, darabiz beso erreik. Ba-dakit, Jesus ona! Zeure igarleak irakatsi daust: neure pekatuak dira borrero arein biotzak euren ziran baiño be askozaz gogorragoak egin dabezanak; neure pekatuak emoten dautse arein besoai ain indar aundia. «Zatituta dago», diño Isaias igarle santuak. Zelan

ez? Ogeta emeretzi zigorkada baiño ez yakozan emoten iñori; ta alan eta guzti be, Elizako lenengo martirien jazoetan irakurten danez, gorputz osoa zatituta, azurrak eta erraiak eurak ikusteko eraz gelditzen ziran, eta ilda be bai ez gitxi.

Zelan, ba, ez zan zatituta egongo Jesus'en gorputza? Baiña, zegaitik? Propter scelera nostra: «Geure pekatuakaitik». Eta zelako pekatuakaitik batez bere? Aragizkoakaitik!, Eliz-guraso santuak dirauskuenez.

Orra or, ene arima maite ori, zure pekatuak nor jo daberen. Eta zure gorputz orri atsegin apur bat emotearren, ez zara lotsatuko Jesus Ona ainbeste minduten? Ai, ene Jesus! Geroago ta maitagarriago agertzen zaiataz. Zelan, Jauna, artu dozuz zure sorbaldetan, guk gure pekatuakaitik inpernuan igaro bear genduzan miñak? Zauritu ta odol-usturiko gorputz garbi ori, kitugarri egokia benetan zure Aitari gure zikinkeriakaitik eskintzeko! Josi, Jauna, nire biotzean pillar ari lotuta egon zintzazanean zeukan taio negargarria, bera lez lurreko atsegin guztietatik urrundu nadin.

ARANTZAZKO BURESTUN EDO KOROIA.—Zigortzailleak itxi ebenean, ba-doa Jesus Ona, makalen-makalez oiñen gaiñean egon eziñik, soiñekoak eukazan zokondora; ta ber-berak, bere eskuz, orretarako adorerik euki ezarren, jantziko ebazan.

Gudariak ez ziran oraindiño gogorkeriz asetu. Jesus'ek bere burua Errege egin ebala gogoratzen dabe. Odolaz gorputzari itsasi (pegau) yakozan soiñekoak



kentzen dautsoez. Baiña zelan? Arduraz miñik ez emoteko, amak guri txikitan zauri-ganeko mantar-txoak kentzen euskuzan lez? Orretarakoxe egozan gizon biotz-gogor areik! Tiraka, soñekoaz batera eroaten eutsoezala dingillizka eukazan jaungoikozko aragiaren zatiak. Barrero gorputz guztia odolezko erreka bat. Kentzen dautsoez, ba, bere soñekoak, eta beste zatar bat, gorria, Erregeak euki oi-eban antzekoa jantziten dautsoe. Burestuna (koroia) orain. Alboko kortatik artzen dabe arantzazko zarta bat, burestun-antzera biribiltzen dabe, ta Jesus maitearen buruan jarten dabe, barrurantz gogor sartuta.

Ez dauko Errege-makillarik, —diño; kañaberazkoa izango da onena, utsa baiño ez dan erregetza adierazoteko. Eta kañaberea jarten dautsoe eskuetan.

Noraiñoakoa izango ete-zan orduan Jesus maitearen min eta lotsaria?

Soñeko gorriaz, arantzazko koroiaz, eta kañaberea eskuetan daukala, jesarri zedilla agintzen dautsoe; ta bere aurrean belaunikoturik, dirautsoe: «Agur, judarren Erregel!» Eta batzuek au egiten eben bitartean, besteak matraillakoak emoten eutsoezan; txistua jaurti bere arpegi ederrera, ta eskuetako kañaberea kenduta, beraz buruan arantza-gaiñean jotzen eben. Arantzaxo bat sartzen ba-yaku gorputzeko tokirik sorrenean, orpoan, ezin ibilli izaten gara; zer izango zan Jesus'en miña ainbeste arantza eukirik, ain aundiak, ain gogor sartuta, gorputzeko zatirik minberenean, buruan?

Begiratu emen, arima maite orrek, zure buruan

darabizuzan arrokeriak eta, batez bere, loikerizko pentzamentuak Jesus'i emon dautsoezan miñak. Eta au jakinda be, beste orrenbeste egingo dogu? Arantza areik baiño gogorragoa ta erruki bageagoa izango litzake gure biotza. Gogoratu, pentzamentu loi ta zatarrak datorkizuzanean, Jesus'entzat diran mingarriak.

*ECCE HOMO: ORRA OR GIZONA.*—Pilatus'ek Jesus Ona mantar zar areaz jantzita ikusi ebanean, arantzazko koroiaz, eskuan kañaberea, ta arpegi guztitik, aurretik eta atzetik eta albo bietatik Odola eriola, gizon-antzik baga, errukituta, judarrak Jesus'i eutsoen gorrotoa gutxituko zala uste izan eban, taio ain negargarrian Jesus ikusita. Artzen dau, ba, guztien aurrera atara, ta dirautse: «*Ecce homo: Orra or gizona!*» Au da: ba-dakit gorroto aundia dautsazuen; baiña gizon-biotzak ba'dagizuez, gizon errubage ori orrela ikusiaz, naikotuko zaree: begiratu ia gizon-antzik be ete-daukan». Baiña judarrak, leoi amurrutuak lez, orroka deadar egin eben: «Kendu ori, kendu; josi gurutzean!».

Zer igaroko ete-eban zure Biotzak, Jesus On orrek!, gorrotoz beteriko deadar areik entzueran? Areik begiratu be ez zeutsuen nai; nik bai. Zeruko Aitak Zu orretara erakutsita, deadar egiten daust: «Orra or gizona!» Bai! Orixe da nire egikizuna; neure pekatuak jarri zaitue, Jesus laztan ori!, taio ain damugarrian. Zure arpegi sotil orren irudia josi nai neuke nire buru-biotzean, orrela pekatuaz iñoiz be jarri ez zaidazan.

JESUS KALBARIOAN-GORA.—Pilatots'ek Jesus gurutzeratzeko epaia emonda laster, Jesus eta lapur bintentzako iru gurutze ekarri ebezan. Lapurren atsekabea gurutze areik ikusi ebezanean! «Ortxe —esango eban— itxiko doguz gure biziak ordu gitxi barru, mifiik aundienen artean.»

Jesus'ena bai poza, ostera! Ogeta amairu urtean egon da gurutze orren egarriz, bere gurariak Biotza estutzen eutsala. Eta orain, bere besoetan ikusirik, Bere poza ta gogo beroa gurutzea laztantzeko! «Agur —egingo eban, San Andres'ek bere gurutzeari baiño neurri baga beroago—; agur, gurutze ona, luzaro opa zaitudana, arduraz maitatua, gelditu baga billatua, ta zure-guraz dagoan gogoarentzat gertua; zeu izango zaiataz munduko nagusi, deabruari burua zapaltzeko errege-zigorra; zeu nire gizon maiteentzat zeruko atea edegiteko giltza». Au esanda, bai pozik jarten dauala sorbalda zaurituaren gaiñean!

Eta Jesus ain gurutze-zale ikusita, gurutzeari igeska ibilliko naz?

Kalbarioan gora igoten asten da. Lenengo, deiztaillea Jesus'en erruak deadarrez esaten; gero, gizatalde andia; onen ostean, abadeak, zaarrak eta legegizonak (idazkariak, eskribak); gudariak eta nagusia, eunburua, zaldi-gaiñean; borrarroak maillu, untze ta bear ebezan beste gauzak eskuetan eroezala; ta azkenez, lapur bien erdian, Jesus, belaunak dardar, arnas oska, odola ta izerdia bekokitik beera dariola; gizonezko ta andrazko asko atzean; pariseo ta gaiztoak, pozik; Jesus'en lagunak illun, eta guz-

tiak Jesus'egana urreratu nairik, arpegia ikustearren.

ANDRA MARIA TA JESUS ALKAR IKUSTEN DABE.—Zaratea entzunda, edo San Juan'ek esanda, urtengo zan Andra Maria Sion'go Mendia eritxon etxetik, bere Seme maitearen atsekabeak bere begiz ikusteko, bizitza guztian gogoratu egizan.

Jesus'en gurutzea astuna zan: zelan ez, gizon guztien pekatuak beragan eukazan-eta? Amabost oin goitik-berako zurak, zearrekoak zortzi; bera oso nekatuta, odolustuta, sorbaldak urratuta, gurutzea tartrez daroala; ta kroskaren baten jota, jausten da Jesus Ona. Bere arpegia txistuz, izerdiz eta odolez; Jerusalem'go kaleak autsez; eta arpegiaz lurra joeran, autsa arpegian ezarrita geldituko yakon: onelaxe ikusi eban bere etxetik Beronika'k, gizon-antzik be bagarik; onelaxe ikusi eban Andra Maria'k be.

Lagun-artetik urtenda, arpegiz-arpegi agertzen yako; begiratzen dautso Semeari; Semeak be bai Amari: Ama-Semeen biotzentzako ezpata bi izango ziran begirakune bi areik; antxe bertan geldituko zan Andra Maria atsekabez ilda. Baiña Jaungoikoak indartu egin nai eban, Kalbarioan egotea nai eban, eta bertako atxak baiño be sendoago, bere Semearen oparia biotzean eskeintzen; beragaz batera geu deabruaren menpetik erosi, ta laguntasunak (graziak) zabaltzeko eskubidea euki egian.

Gorrotatu dagidazala, Andrea, nire pekatuak, eurak dira zure Seme maite ori ain negargarriro jarri dabenak-eta. Luzatu neuri be zure begi errukitsu orreik.

SIMON ZIRINE'TARRA LAGUNTZAT DAMOTSE.—  
Bigarrenez be jausten da Jesus Ona; ta Kalbario-  
ganera ezin eldu zeitekela ikusirik, judarrak lagun-  
tzaillea billatzen dautsoe; baiña alperrik! Ain-  
beste milla ta milla lagunen artean ez dabe aurki-  
tzen errukior bat. Ez al zan an aurkitzen Jesus'ek  
on egiñikoren bat, edo bere jarraitzaillerik beintzat?  
Baietz dirudi. Baiña ikaragarria zan Jesus'ek bere  
inguruan eroian lotsaria, ta urreratu be ez eban iñok  
nai

Bere solotik etorren erbesteko bati oratzen dautse  
ba, ta naita-ez, Jesus'en gurutzea eroan erazoten  
dautsoe. Ez ebala on aundirik egin gizon onek esan  
daiteke. Baiña Jesus'ek beraganako sinismena emon  
eutsen aren seme biai; ta berari be bai, uste izatekoa  
danez.

Zer ez ete-daust emongo neuri be, berak emo-  
ten daustan gurutzea, au da, neure atsekabe ta nai-  
ez guztiak, miñez «alka» ibilliarren, gogo onez eroa-  
ten ba'dagidaz? Orduan Kalbarioan aurkitu ba'nintz,  
gurutzea eroaten pozik ez neutsan lagun egingo Je-  
sus'i? Beraz, eroan egizuz Jesus'ek egunoro lepoan  
jarten dautsuzan gurutzeak; osterantzean, berea ez  
zarala dirautsu.

JESUS'EK JERUSALEM'GO ALABAI BERBA EGI-  
TEN DAUTSE—Erriko gizatalde aundia Jesus'en  
atzean etorren, eta emakumeak negarrez eta ille-  
taka. Baiña edozelako gaizkilleri lez errukiz begira-  
tuta, negar egiten ebela Jesus'ek ikusirik, areikana  
biurtuta dirautse: «Jerusalem'go alabok! Ez nigaitik

negarrik egin, zeuokaitik ta zeuon semeakaitik baiño.  
Begira: etorriko dira egunak, eta orduan esango  
dabe: «Zorionekoak agorrek eta seiñik sortu ez da-  
ben sabelak, eta esnerik emon ez daben bularrak!»  
Orduan, asiko dira mendiai esaten: «Jausi gure  
gaiñera; ta muruai: «Estaldu gagizuez». Egur ezean  
au jazo ezker, igarrean zer izango ete-da?»

Beti, Jauna, Zu, zeure min eta estutasunai jaramon  
egiteke, geuri irakasten. Egi aundia zuk diñoizuna,  
Jesus. Zeri begira ete-gagoz egur igar, sutarako  
baiño ez garanok, Zu, zugatz eze, orren ekarri ugariko  
ori, gure pekatuak zeugan artu dozuzalako, Jaun-  
goikoak orrela ipiñi ba'zagiz? Zure Odol ugaritsu-  
orraz busti, Jauna, gure arima legorrek, usain go-  
zozko arnariak (frutuak) zure Aitarentzat emon  
dagiguzan.

KALBARIO-GAIÑEAN: BEAZTUNEZKO EDARIA.

Ezin geiagoz nekatuta, arnasarik be ezin artuta,  
Jaungoikozko arpegia oso zurbilduta, ta txistuz, au-  
tsez eta odolez heteta, eltzen da Jesus Ona Jerusa-  
len'go esi-ondoan egoan menditxora. Kalbario'ra!  
Gurutzea kentzen dautsoe, ta gurutzaldiko miñak  
leuntzeko emon oi zan edontzi edo baso-bete ardao  
emoten dautsee irurari: ardaoa beaztunez nastatuta.

Deabrua da, ala zeu zara, Jesus On ori, zeure burua  
geiago atsekabetzeko asmatzen diarduzuna? Geure  
gorputzeko loikeriakaitik zaurituta ta zatituta ikusi  
dot zure gorputz guztia; geure arrokeri ta zikinke-  
rizko pentzamentuakaitik zulatuta zure buru agur-  
garria; onela, zure Aitari gure pekatuakaitik eskifi

zintzazala uste neban. Baiña ez! Agirikoa bakarrik eskeiñi zeutsan; barrukoa be eskeiñi nai dautsazu, ta orretxegaitik da egarri garratz ori artzea, gure jan-edan larregiaz zure Aitari egin dautsaguzan pekatuak kitatzeko. Jan-edankeriak zirikatu nagia-nean, zure edari garratz orreaz gomutatu nadilla.

JESUS MAITEARI SOIÑEKOAK KENTZEN DAUTSOEZ.—Gurutzean josi bear dabe Jesus Ona. Iru-garren aldiz soiñekoak kentzen dautsoez, samin guztia barrizturik. Aundia bere oiñazea! Baiña zenbateraiñokoa izango ete-zan bere lotsaria, ainbeste milla lagunen aurrean bere burua billoizik ikusirik?

Ai, nire jantzi arro ta billoztasunen ordezkoa dozu ori, Jauna!

JESUS GURUTZEAN JOSTEN DABE.—Bitartean, gurutzeak euren zuloetan ipiñiko ebezan. Eta Jesus maitea gurutzeko urkamendira jasoten dabe. Borrero batek beso batetik oratzen dautso; besteak, ezkerrez untzea esku-barruan ezarten dautso, ta eskumeaz mailloa jasoten dau. Zetan asi da gizon ori? Abraham be egon zan beste aldi baten bere semeari samatik oratuta, ta arrizko aiztoa (kutxilloa) jasota; ikusi eban Jaungoikoak, eta naiko zala-ta, deadar egin eutsan: «Abraham, geldi!»

Aita Betikorrak orain be ikusten dau jasota bere Seme maitea gurutzean josiko dauan mailloa. Eta itxi egingo ete-dau? Bai! «Pozik nago, ene Seme maitea, —egingo eutsan Jesus'i bere barruan—; pozik nago nire maitetasunez gurutzeratu zaralako; aundiak dira gizonen erruak eskiñiaz bakarrik geratzeko:

jausi dadilla, ba, maillo ori; josi daitezala esku-oin orreik, eta bete dadilla eskeintzen diarduzun oparia. oparia.

Jaurtiten dau, ba, borreroak mailloa Jesus'en esku-gaiñean egoan untzearen burura; inguruetakoa ibar eta mendietaruntz zabaltzen dira mailluotsak. Andra Maria'ren negar-zotiñak maillu-ots orreik entzutean!

Josten dautsoe, ba, esku bata ta bestea; gero, oiñak; eta ara zeru-lurren erdian, zerua lurrak baketu bear eban Jesus Ona!

Begiratu Jesus: odolezko lau iturri dariakoz esku ta oiñetako zuloetatik. Egokeraren estua! Burua gurutzeraz urreratu ezker, arantzakaz egiñiko zauriak zabaltzen yakoz; zirkiñik egin ezker, gorputz guztiko miñak barrizten yakoz; eta atsedean egiteke ezin egonda, gorputza jausi ba'dakio (jausten ba'yako), bere astuntasunez oiñetako zuloak urratzen yakoz... Zirkiñik ezin egin, eta egin бага be ezin egon. Gaur norbati urkatorduan egon ezker, nai-ta andiak izan bere erruak, guztiai biguntzen yakez biotzak.

Jesus'i bakarrik egiten dautsoe uts errukitasunaren legeak. Gurutzean ain min andietan egoan tokitik, bidean-zear joiazanak ikusten ebazan, euren buruai eraginda esaten eutsela: «Jaungoikoaren Etxea lurrera eratsi ta iru egunean barriro jasoten dozun orrek: askatu egizu zeure burua; Jaungoikoaren Semea ba'zara, jatsi zaitez gurutzetik». Bardin iñoen abade-nagusi, agintari ta erriko ta zarrak be, irribarreka alkarri zirautsela: «Besteak askatu dauz, ta

bere burua ezin askatu» —Baita gudariak be, urreratu ta ozpiña eskeñiez, zirautsoen: «Judarren Errege ba'zara, salbau egizu zeure burua». Beragaz gurutzean egoan lapurretariako batak be, irri egiten eutsan, esanaz: «Kristo ba'zara, zeure burua ta geu reak askatu egizuz».

Eta aurreko gizatalde aundiak, zer egiten ebalaste dozu? Ebanjelariak esan ez ba'legi, sinistu be ez geuke egingo. Atsekabe ain aundietan Jesus ikusi, ta barre! Ez dago arrituenik: abade-nagusi, legegizon eta jakitunek ainbeste gogorkeri egiten ikusirik, edonok eukan nai ebana esan eta egiteko eskubidea.

Euki ba'leuz bere lagun maiteak, euren berba atse-gintsuak entzun, edo ainbeste irain eta min-artean adobe-arazoteko beintzat! Orretarakoxe egozan! Lagunak eurak mintzen eben oraindiño geiago. Batak, saldu; beste batek, askoren aurrean ukatu eban; eta beste guztiak, arerioen eskuetan itxita, igesiari emon utesen. Aurrean daukaz, bai, San Juan, emakume santuak eta Andra Maria; baiña oneik, kendu bearrean, geitu baiño ez dautsoez egiten bere oiñazeak, batez bere, bere Ama maitearen arpegi atsekabetsuà ikusita.

Ainbeste miñen erdian, begiak jaso Aita maite-agana, ta Aitak, gure pekatuak bere gainean artu ebazan ezkerro, asarre-antzera begiratu ta ez-ikusi egiten eutsan. Zer izango ete-zan Jesus'entzat bere Aita maitea orretara ikustea? Jesus'ek berak, beste

atsekabe guztiak itxita, auxe bakarrik agertu euskun, esanaz:

«*Eli, Eli!, lamma sabachtani?* Ene Jauna, ene Jauna!, zegaitik itxi nozu?»

Berba oneik entzunaz, Jesus Onaren atsekabeak azkeneraiño eldu zirala esan daiteke: lagunak eta arerioak, aberatsak eta beartsuak, elizako ta urikoak, gudariak eta bakezkoak, judarrak eta arrotzak (erbestekoak), baita lurra ta zerua bera be, Jesus mintzeko batu zirala dirudi-ta.

Baiña ez! Aundiena geratzen yako oraindiño. Pozik igaroko ebazan Salbatzaille maiteak estutasun guzti oneik, baita geiago be (oraindiño geiago igaro ba'eikean), deabruaren erpeetatik gu atara ta betiko atsegintzara eroatearren. Baiña, zelako samintasuna izango ete-zan bere Biotzarentzat, bere ondo-ondoan lapur deungea il eta inpernura joaten ikustea? Judas, berak ainbeste goratu ebanaren galdumendia jakitea?; eta batez bere, noraiñokoa izango ete-zan bere Biotzeko miña, luzatu bere Jaungoikozko begiak alde ta aldi guztietara, ta ainbeste milloi ta milloi betiko inpernuko su-lezara joaten ikustean? Eta ori, naiz-ta berak inpernutik aldentzeko, ainbeste atsekabe igaroarren? «Zer atara dot nire Odola emonaz?», esango eban berekautan. Au da: «Neurri baga isuri dot nire Odola; ez daukat gorputzean Odolezko iturri egin bagako zatirik; auzi-tokitik onagiño jarraitu daikeoe nire atzean itxi dodazan oiñatzai; lau tanta baiño ez yafaz biotzean geratu, eta eurak emon baga ezin geratu naz, eta geiago emongo neruke geia-

go ba'neuko. Bai! Baiña arimak, onenbeste Odolez erosiriko arima maiteok!, nun zaree? Inpernuko sutan nik zuek ikusi bear, eta betiko! Alperrik geienontzat nire Odola, alperrik nire atsekabeak, alperrik alegiñak!»

Olakoxe pentzamentuetan lausotzen yakoz bere begiak, mundu guztiaren begi pozkariak; ainbeste berba gozo atara ebezan ezpanak, baltzitu egiten yakoz; Aita Betikorra atsegintzen eban arpegi ederra, zurbildu egiten yako; mugabageko maitetasunez beterik eukan Biotza, jagi egiten da: eta il egiten ba'da be, Berak nai ebalako ilten zala adierazoteko, bere indarrak batzen dauz, eta, deadar aundiaz, auxe diño: «Aita!, Zeure eskuetan izten dot nire arnasa (gogoa)». Burua makurtu eban eta il zan.

Ikusi, ene arima maite orrek, aurrean daukazun Jaun ori: gorputza otzituta, zauriz ta odolez beteta; begiak itzel, burua makur, ao-zabalik, agiñak agirian. Nor dozu? Jaungoiko aundia, zeru-lurren Egillea, zeure Aita. Taio orren negargarrian, nok ipiñi dau? Zeuk, zeure pekatuak. Au jakin, eta pekatu egin? Ori egin ba'dozu, inpernu bat bakarrik ez, bi be zor dozuz. Orra or, ene arima ori, zure egikizuna. Jauna!: ilda zagoz, baiña ikusten nozu, ta damuz eta lotsez nakutsu. Neu il nadilla, neu naz erruduna-ta; baiña Zu bizi zaitez atsegintza orretan. Lapur onari be dei egin utsazun-eta, deitu ni be. Andiak dira nire gaiztakeriak; baiña Zeuk zure eriotzaz guztien kitugarria eskeintzen ikusita, nok ez dau itxarongo?

Eroan nagizu, ba, ni be Zeure erreñura, betiraun guztian Zeure errukitasuna goratzen egoteko.

GUDARIAK AZTAMAKILLAZ (LANTZEAZ) JESUS'I BULARRA EDEGITEN DAUTSO.—Semearen atsekabeak amaitu dira. Baiña Amarentzat zolienak oraintxe datoz: «Judarren Paraskebe (edo atontze-eguna) izanik, zapatuan (atseden-egunean) gorpuak gurutzean gelditu ez zeitez, arein ankazurrak ausi ta gorpuak kendu egizala eskatu utoen Pilatos'i judarrak.

Etorri ziran, ba, gudariak; eta lenengoari belaunazurrak ausi egin utoezan, baita beragaz gurutzera-tua izan zan besteari be. Jesus'egana etorri ziranean barriz, il zala ikusirik, ez utoezan belaunak ausi; baiña gudari batek aztamakillaz (lantza bataz) saietza zulatu utsan, eta bereala Odola ta ura urten ziran».

Gudari biotz-gogorra! Illai be ez al dautsek parkatzen? Erruki adi, beintzat, alboan daukan Ama errubage ta atsekabetsu orretzaz. Baiña ire biotza eskuan daukan burdiñea baiño gogorragoa ba'dok, ez illen ez bizien errukirik ez ba'daukak, jaurti egik lantza ori ta zauritu egizak batera Ama-Semeon Biotzak.

Jaurtiten dautso, ba, ta eskua sartzeko besteko zuloa zabaltzen dautso. Ez arritu! Guztion pekatuen indarra eroian gudariak bere besoan; guztiok jaurti dautsagu Jesus'i lantzakada ori. Dardar egingo eban gurutzeak bere oiñean; ez eban gitxiago egingo Andra Maria'ren Biotz samurrak.

Ez dagidan onen arin itxi gertapen au, ezkututsu da-ta. Jaungoikoak, lo egoan Adan'en albotik atara eban onen emazte Eba. Ilda egoan Jesus' en albotik sortu zan Jesus'en emazte Elizea be; orixe adierazoten dau Odol eta uraren urteteak: urak, Batea adierazoten dau, ta Odolak Altarako Sakramentu Santua; Sakramentu nagusien biak.

Zulo orretatik daukagu Jesus'en Biotzaganako sarlekua, San Agustin'en eritiziz. Beraz, sartu nadin zulo gozatsu onetatik Jesus'en Biotzaren barrura. «Ona da, Jauna, emen egotea», esango dot San Pedro'k legez. Berton ipiñi dagidan nire bizilekua: jan, lo, lan, eskari ta beste egikizun guztiak berton eukiko dodaz; Biotz-biotzera berba egingo dautsat, eta nai dagidana jadetsiko dot. Jesus'en saietseko zauri maitagarria!: zelakoa ete-da zugandik barrura sartzen diranen atsegina? Atsedentokia eukita, nekeen-nekez etenda zagoze? Sinistu egizue: zulo estu orretatik Jesus'en barrura sartu ba'zaiteze, arimeak bakarrik ez, baita gorputzak berak be atsedent eta gozotasun aundia aurkituko dau.

JESUS GURUTZETIK ERATSI, TA ILLOBIRATU EGITEN DABE.—Gurutzondoan dago eunburua bere gudariakin Jesus'en gorpua zaintzen. Jesus ilten ikusirik, ikaratuta gelditu dira; areago, ilteaz baterako jazorikoak ikusiz: lurrikara, eguzkiaren illunaldia, gizatalka burlar-joten Jesus Jaungoikotzat autor-tuaz... Antxe dagoz beste batzuk bere: Andra Maria emakume santuakin eta Jon santua. Zer egingo dau Andra Maria'k? Bere Seme gurutzean josia zaindu,

egazti ta pristiak jan ez egien? Itxaron bere Semearen aragia usteldu arte, artu azurrak eta mendian bertan, besteak lez, banatzeko? Ori baiño etorkizun ohea ebalatze daki.

Mendi-barrenean gizon bat dator; gauza zuri bat dakar eskuetan: Jose Arimatea'rra da. Jesus il zan toki-ondoan dauko ortua, ta bertan beretzat arribizian zabalduriko illobi edo sepultura barri bat; eta antxe obiratu bear dauala Jesus, ipiñi dautso buruan Jaungoikoak. Baimena Pilatos'i eskatu; izara ta obiratzeko bear ebazan beste gauza guztiak artu, ta errukizko egikizun eder ori betetera dator. Baita Nikodemo, gizon nagusi ta Jesus'en ezkutuko ikaslea be, ba-dator. Lotsorra da, baiña Jesus'en eriotzeak indartu dau, ta mirra ta aloez egiñiko miritza edo unguentua dakar, Jesus'en gorpua igurtziteko.

Kalbario-ganera eltzen dira. Eta Andra Maria atsekabetuari euren damua agertuta, Jesus'en gorpua erasteko baimena eskatzen dautsoe. Malladi (eskil-lara) bat gurutzera urreratzen dabe; Jose'k, bertara igonda, itzel eta maitetasunez eskuak dardar, koroari oratzen dautso; ta odolaz iratsita eukazan uleak kendu, batera ta bestera bigun-bigun eraginda atara, ta mun egiten be ausartu bagarik, Nikodemo'ri emoten dautso, Nikodemo'k San Juan'i, ta San Juan'ek Andra Maria'ri. Belaunikoturik artuta, mun egiten dautso, ta atsekabez beteriko begiak zeruruntz dauzala, bere biotzean estutzen dau. Jose'k esku ta oiñetako untzeak ateraten dautsaz; eta guztiak banan-banan Andra Maria'ren eskuetara doaz. Ez da

iñoiz ikusi izan, Andra Maria'k Jesus'en gomutagai oneik bere Biotzean estutzeran izan eban lako gur-tze (adoraziño) sakon atsekabetsurik.

Azkenez, emon dautso San Juan'ek Andra Maria'ri beronen Seme maitea. Zertzuk izango ete-ziran or-duan Amaren bizketak? «Belen'en ain poza aundiaz sortu neban Semea dot au? Nun dira, ba, or-duan agurtzera etorri ziran aingeruak? Zelan geratu zara orren illun, mundu osoaren poza zaran ori? Nire eskuak zure buruan aurkitzen daben burestun (koro) au, zer dozu? Eta saietseko zulo aundi au? Zauri ori egiñaz erantzun dautsoe gaizonak izan dautsezun maitetasunari? Eguzkia bera zuen edertasunez illun-tzen zenduen begiok, zelan zagoze orren itzal? Illak barriro biztuten zenduezan eskuok, zelan zagoze orren jausiak? Orra or noragiño eldu dan Jaungoikoaren errukia, deabruaren amurrua ta gizonen gaiztakeri ta esker-bagetasuna»

Orrelako pentzamentu ta biozketak buru-biotze-tan erabizala, Nikodemo'k ekarri eban miritzaz (un-guentuaz) Jesus'en gorpua garbitzen dau, izareaz batzen dabe, ta burua izerdi-zapiaz estaltzen dautsoe. Andik, guztien artean, illobira. Illobia aitzean egoan edegita. Sarreratik, armailla batzuk jatsita, zuloa. Jatsiten dira, ba, ta ipinten dabe bertan gorpu santua.

Guztiak, belaunikoturik, gurtu egiten dabe; ta isilik eta illun, barriro atzeruntz egiten dabe, ta Je-rusalen'era eldu ziran.


Andra Maria'ren bakartasuna! «Negarrez dago ga-baz —iñoan beratzaz Jeremias igarleak—, eta bere negar-antpuloak bere matrailletatik beera. Ez dago iñor poztuko dauanik bere maite guztien artean». Onak dagoz Apostoluak poztuteko; igesi dabilz!

Benetan zara, Andra Maria, garratza ta itxasoa: zure Biotza garraztasunezko itxasoa eginda dago-ta. Zein gizon gogorrek josi dautsuz Biotz samur orre-tan ezpata zorrotz orreik? Zeuk, ene seme maite orrek. Au damugarria! Zazpi ezpataz iruditzen zai-tue; zazpireun millaz jantzi bear zendukeez: pekatu bakotxa ezpata bat ba'da, neuk sartu dautsudaza-nak eurak be ez dira gitxi. Eta nik, ostera be, pekatu egin? Lengoak naiko izan bagarik, ezpata barriak sartu? Ez, ez geiago, Andrea, olakorik! Lengoakaz be bildur naz neure gaiñera etorriko ete-yatan, Jaun-goikoak norberaren ama samintzen dauanari eza-rrita daukan biraoa edo maldiziñoa.

Baifia zu lako Ama eukita, nor bildurtu? Nok itxa-ron ez? Seme bi zeukazan: Jesus eta ni. Bata edo bestea il egin bear gintzazan; eta ni betiko eriotzara ez jaurtitearren, zeure Seme bakar eta ain maitea eriotzara bialdu dozu.

Noiz eroango nozu zerura, zure arpegi ederra ikus-tera, poza ta atsegiñez beteta nire biotzeko indar guztiaz zeu maitatzeko, ta egin daustazuzan on guz-tiakaitik eskerrak emoteko?





LAUGARREN ASTEA  
AMAZAZPIGARREN  
GOGARTEA

LENENGO ATALA

*Jesus'en arimea linbora jatsiten da*

Jesus Onak gure Eroste Santuko egikizuna bete ebanez gero, beste izakera bat artu ebalá esan daiteke: len baiño askozaz be bigunago ta maitetsuago agertzen da; eta, San Iñazio'k egoki esan dauskunez, adiskide bata besteagaz lez. Berbiztu baiño lenago, gizartean ezin agertu zeitekean; baiña bien bitartean be, geu poztu bagarik ezin egon; eta linboko illunpe itzalean ainbeste ta ainbeste bere adiskide daukazala gogoratzen dau: Bera ikusteko egarririk aundienaz dagozan adiskideak dira, ainbat lasterren illunpe aretatik atarateko eskatzen diarduenak.

An egozan Adan, Noe, Abraham, Isaak, Jakob, Dabid, Daniel eta beste ainbat, bere lagunik maiteenak; an egozan oraintsu joanda, Simeon eta Ana Igarleak; an bere lengusu Juan Bateatzaille donea; an, batez be, bere Aitatzako Jose doatsua. Arima zuzen areik, euren Erosle Mesias ikusteko baiño beste guraririk ez eben. Eta anteparako ura, eusten daukan ateari bultzaka dagoan antzera, gurariak, barruan daukanari urten-nairik indar egiten ba'dautso, nok esan millaka urteetan Jesus ikusteko gurari biziak arima zuzen arei biztuko eutsen gogoa?

«Euren Eroslea noiz etorriko ete-zan»? Auxe zan arima arein pentzamentu ta jardun-gaia, auxe euren eresi ta ereserkia. Eta eguzkia, goizean sortzaldean urtenda, geroago ta argi geiago zabalduaz, eguerdiragiño igoten danez, euren itxaropen a be, mundutik etozanen barriakaz geroago ta argiago egiten zan.

Baiña, nok esan noragiño geituko zan euren poza ta atsegiña Simon eta Ana Igarleak, Juan Bateatzaille doneak eta, batez bere, Jose doatsuak emon eutsezan barriakaz?

Oraintxe etorriko, oraintxe etorriko egozala, ara nun agertzen yaken Jesus'en Arima ederra, illargia baiño neurri bagarik argiogo, illunpe aretako zokondo guztiak argiz beterik izten dauzala! Arima zuzen arein poza, arein gorak, arein abesti edo kantuak; arein *aleluia* ederra, ainbeste eta ainbeste milloik gogorik bizienaz abesturiko *aleluia*!

Luze egingo yatzu zuri be, nire arima maite orri, munduko illunpe onetan orrenbeste atsekabe, estura

ta gaitz-artean bizi izatea, Baiña, itxaron! Jaungoikoak beteten ez dauan epe edo plazorik ez dago; laster joango zara argi ta atsegin-tokira, ta Santu guzti arein zoria zeurea izango da.

## BIGARREN ATALA

### *Jesus'en berbizkundea*

Abesti (kantu) eder-artean, Jesus'en arimeari la-gunduz, eldu ziran Kalbario'ko illobi donera. Norai-ñokoa izango ete-zan arima onein ikara ta arritzea, Jaungoiko Aundiaren Gorpua arela urratuta, zati-tuta, itxurgatuta ikusitakoan? Zer esango eban Adan'ek bere pekatuaren errua ta jarraia ikusirik? Zelako abestiak eta esker egiteak barriztuko ebezan euren Erosle maitearen Gorpu zaurituaren aurrean? Aingeruak epai-tokira joanda, Jesus'en aragi zati-txoak eta Odolik gelena itzelik aundienaz dakarrez, eta bakotxa bere tokian ezarten dabe.

Sartzen da gero bere Gorpuan Jesus'en Arimea, ta bat-batera jagiten de Gorputz deuna; baiña, zelako argiaz, zelako edertasunaz? Zeruko zoriotsurik txi-kienaren gorputza eguzkia baiño argiago ba'da, on-tasun onen neurria izanik, zelakoa izango ete-zan Jesus'en Gorputz deunak isuriten eban argi ta eder-tasuna, bere deuntasuna beste deun eta aingeru guz-tiena baiño neurri бага andiagoa izanik? Bere esku ta oiñetako zauriak egiten daben diztira! Eta Biotze-koak? Arantzazko koroiaaren orde, barriz, Jesus'en

koroiaaren ederra! Zer dauke ikustekorik Aren on-doan lurreko agintari guztienak?

Orra or zetan aldatu diran Jesus'en irain, atsekabe ta miñak! Urte batzuetako atsekabeak ariman, ordu batzuetakoak gorputzean; baiña gorputz eta ariman ezin esanalako atsegin eta gozotasunak betikotasun guztian.

Or daukazu, ba, zeuk be zeure irudia. Jesus ber-biztu zalako ta Bera berbiztu zan antzera, zeu be berbiztuko zara. Orain estu zabilz, miñaz eta oiña-zeak erazoten zaitue. Itxaron! Igaroko dira naiez eta estutasun guzti orreik, eta gero atsegin eta gozota-suna baiño ez yatzu geldituko, ta geiago igaro, ta andiagoa. Ez kezkaz ibilli lur onetako atsekabeakait-tik; kezkatzen da nekazaria ereitaldian lan asko daukala-ta? Ez! Poztu bai! Geiago erein, eta geiago artuko dauala ba-daki-ta. Bizitza onetako neke, min eta ezbear guztiak, barriz, zeruko aziak baiño ez dira. Txikiak eta igarokorrak dira guztiak; euren frutua, barriz, andia ta betikoa.

Ogeko zokondoan miñez ezin egonda zagozanori, poztu zadiz! Baita zaurituta zagozanori, zu be! Ba' zenki zuk agertuko dozun atsegin eta argitasuna be-tiraun guztian orain orrenbeste min daukazun toki orretan! Atso-aguratxook, azal guztia tximurtuta, lepoa okertuta, ezin ibilli-ta zagozenok: zuentzat be ba-dauko pozkarria Jesus berbiztuak. Guzurti asko izan dira gizartean, zarrak gazte biurtuko dabezala-ta, iruzur egin dabenak: Jesus'ek dauko zuek gazte-tzeko ezaupide, gurari ta indarra: il zaitzeze bere la-

guntasunean, eta Berak berbiztuko dauz zuen gorputzak aldi egokian.

Jesus maitagarria! Aurretik zoaz zeure Gorputz eder orri zirt-zart eragifiaz, zeure atzean gu erakar-teko. Santa Teresa, zure eskua ikusi ebalako, Zeu ikusi nairik, maitetasunez zoratuta lez gelditu zan. Zer izango da, ba, Zu zaranori arpegiz-arpegi ikus-tea, zeuri berba egitea, zeure zauri orreik laztan-tzea? Nai dagizanarentzat lurreko atsegin, jolaskeri ta edertasunak; Zeu baiño ez dot nai niretzat. Betoz, bearreko ba'lediz, bizitzako atsekabe ta samintasunak: Zeugana erreago igoteko mailladiak baiño ez dodaz izango-ta. Eroan nagizu Zeure ondoan, beti zeugaz egoteko lurrean, gero be zeugaz egon nadin zeruan betiko.

## IRUGARREN ATALA

### *Andra Maria'ri agertzea*

Andra Maria bere gelan egoan, biotza atsekabez beteta. Lo gutxi egingo eban gau aretan. Luze egingo yakozan benetan orduak. Noiz-etorriko bere Semea berbiztuta itxaroten egoan, eta arren-bai-arren etor-teko eskatzen. Eta, ara, igande (domeka) goizean, eguna urten zaneko, al ebanik ariñen, bere Semea agertzen yako, edertasun eta argitasunez beterik. Axe bai Ama-Semeen poza, ta begirakune gozoa! Jesus'ek bai ordaindu bere Amari, igaro dauzan atsekabeakaitik! Neu be poztuten naz, Ama maite, zure zorion

orregaitik, eta Eliza Amagaz esaten dautsut: «Zeruko Erregiña, poztu zaitte, sabelean eroan zenduana, berbiztu egin da-ta, berak esan ebanez». Ama-Semeen atsegiñetan zerbait euki dagidala neuk be, Zeuen antzera lurreko atsekabeak igaro ondoren.





## AMAZORTZIGARREN GOGARTEA

ALTARAKO SAKRAMENTU SANTUARENA

### LENENGO ATALA

*Jesus'ek Altarako Sakramentuan  
erakutsi dauzkun maitetasuna*

Jesus'ek ikasleai oiñak garbituta gero, aparitan egozala, ogia artu ta, bere Aita altsuari eskerrak egiñik, bedeinkatu, zatitu ta bere ikasleai emoten dautse, esanez: «Artu ta jan egizue, au neure Gorputza da-ta, zuekaitik (eriotzara) emoten dana. Au neure gomutaz egizue». Era berean, apalondoan, edontzia (kaliza) artuta, eskerrak egiñik, emon egin eutsen, esanez: «Edan egizue onetatik guztiok: au neure

Odola da-ta. Alkartasun Barriko neure Odola, pekatuen parkamenerako zuentzat eta askorentzat isuriko dana. Au egin dagizuen bakoitzean, neure gomutaz egizue».

Batak besteari dautsan maitetasunaren ezaupide ta neurria, daukazan ondasunetatik emotea da, San Iñazio'k diñoanez.

Zer da, ba, Jesus'ek Sakramentu onetan emon dauzkuna? Obeto: zer da emon bagarik itxi dauzkuna? Ezer bere ez! Ondasun eta edertasun guztiak daukaz Jaungoikak bere ondasunetan, eta baxotxa neurri guztien gaiñetik: Jesus'ek Sakramentu andi onetan, guztiak, bat be ukatu бага, emon eusku-zan-eta.

Emen emoten yakuna, bere altasunaren egitada bat bakarrik ez da, bere altasun guztiak al dauana baiño; bardin ontasuna, jakiturgia, zuzentasuna, errukitasuna ta beste ontasun mueta guztiak be. Emen, Jesus'en arima ederra emoten yaku, bere naimen (borondate) zindo, zuzen, Jaungoikoaren maitetasunez beterik, Jesus'en Gorputz eder guztia emoten yaku emen, bere begi, esku ta, batez be, Biotz garbi, samur eta Jaungoikoaganako ta guganako maitetasunean erreten dagoanaz.

Ai!, gure itsutasuna, gure sinismenearen motela! Geure errian daukagula Jesus'en atzamar bat, egin daigun; zelako poza ta arrokeri santua ez geuke eukiko? Zelako ondamu edo enbidi santua izango ez leuskigue beste erri guztiak? Pozik etorriko litzakez guztiak lurraren azkenengo zokondotik, sartu itze-

lik aundienaz, eta auzpaz agurtuko leuke, sedaz eta urrez estalduriko atzamar santu a!

Alan be, Jesus'en atzamar bat bakarrik ez, Jesus'en Gorputz osoa baiño, bizi-bizirik, bere gizatasun eta Jaungoikotasun guztiaz, daukagu gure elizetan. Auxe da gure zoriona, auxe Jesus'en gudanako maitetasuna! «Egin daike, bai, Jaungoikoak beste mundu bat, au baiño askozaz andiago ta ederragoa; baiña guztia dakiana izanarren, ezin gauza oberik *asmau* daike; guztiz ona izanarren, ezin gauza oberik *nai* izan daike; guztia al dauana izanarren, ezin gauza oberik *egin* daike, Sakramentu Santu onetan emon euskuna baiño», diño San Agustin'ek. Beraz, ezin geitu daike Jesus'ek Sakramentu onetan erakusten dauskun maitetasuna, geiago emonaz; baiña bai emoteko eraz.

Maitetasunari dagokio maite diranak daukezan ondasunetatik alkarri emotea; baita, gaiñera, alkarregaz egon, eta, al dala, alkar bat egitea be. Jesus, maitatzaille zintzoak, gugaz, gure maitetasunarren, mundua mundu dan artean egon nai izan eban ezkerro, egon zeikean jauregi eder-apainduan, aingeruz inguratuta; edo-ta, lurrean ibilli zan lez, gizon antzean; eta nai izango zan Berak dauskun maitetasunez guztiak arrituta geratzeko. Baiña ez zan nai izan gudanako maitetasuna erakusteko: gugaz batuago egin nai izan eban. Eta artu eban gizatasunaz batzea egoki izan ba'litz, naiko maitetasun eukan orretarako be Jesus'ek. Baiña ori egoki izan ez zan ezkerro, beste era bat asmatu eban al eban bestean gugaz batzeko: ogi-antzeraz geratzea.

Ba-ekian orretarako asko beeratu ta makurtu bear ebal, gurutzean bertan baiño be geiago; gurutzean Jaungoikotasuna ezkutauta egonarren, gizatasuna agiri zan. Emen, barriz, Jaungoikotasuna ta gizatasuna, guztia geratzen da estalduta ogi apur baten irudipean. Baiña, zer dautso Jesus'i gudanako maitetasunez, gugaz, bere maiteokin, bat eginda gelditzea lortu ezkerro?

Eta orra or Jaungoiko aundia, zeru-lurrak Bere anditasunez beteten dauzana, ta beste milla zeru ta lur ba'legoz be, guztiak batera beteko leukezana, Osti txiki baten barruan! Erri-guraso edo patriarka goratuok, Igarle argiz beteok, nor ikusi nai izan zenduen? Mesias? Zuek ikusi nai izan eta ikusi ez zenduena, zuetariko batek urrunetik apur bat ikusi, ta pozez beterik geratu zana, axe bera euki dot neure agoan, neure bularrean estutu dot, eta ogia berau jaten dauanagaz bat egiten denez, batasunik estuenean neugaz bat eginda euki dot. «Au, gartsu maitatzen diranena da», diño San Krisostomo'k.

Baiña ez gizartean maitatzen diranena; ez dago gizonetan onelako maitetasunik, onelako batasunik ez dago-ta. Lurreko maitetasunik zintzoena, benetakoena, garbiena, amak semeari dautsana da. Orraitiño, nok ikusi dau amarik bere gorputzeko zatiakaz bere semearekin janaritzen? Bestetara bai: euren gosea kentzeko, eurak sorturiko semetxoak erre ta jaten bai.

Ez onelakorik Zuk, nire Aita maitari orrek! Janari asko emon dauskuzuz, bai gorputzerako Zeure

eskuz egiñikoak, bai arimarako egiak, atsegiñak eta beste era askotakoak. Baiña orrezaz naiko ez daukagula ikusirik, eta ez dala orreaz asetzen zuk daukuzun maitetasuna, zeure ontasan guztiak batu dozuz eta ondoen datorkiguzan eraz ipiñi dauskuzuz; eta guztiak batera, kopau baten, emon dauskuzuz. Eta oraindagiño asko ez bai'litzan, Zeu zerori zatoz gaiñera gure barrura, ta osatuta, onduta, santututa, jaungoikotuta izten gaituzu, Zure santutasun eta jaungoikotasunaz beragaz.

Jesus'ek gudan Sakramentu onetan egiten dauzan gauzak!: geiso gagoz, loituta, ustelduta; arimoko almen eta gorputzeko zentzun guztietatik atsa ta ustel-usaiña dariogu; pentzamentu loiak, gurari loiak, zirkin eta ekandu loiak... Eta zer egiten dau gure Jaun maitagarri onek? Geiso mueta guztiak, ikutuaz beste baga, lurrean ebillenean osatzen ebazan gorputzaz beraz dator gugana: ikutzen gaitu (dauku) gure almen eta zentzunetan, legortzen dau pekatuak euretan itxi eban bustia, osatzen dau zauriak, eta garbituta, sendatuta, jaungoikotuta ipinten gauz (gaitu).

«Jaungoikotuta» esan dot, eta auxe izan zan, batez bere, Jesus'en asmoa ontzi-antzera geratukeran. Lentxoago esan danez, maitetasunari dagokio maitariak daukazan ondasunetatik maiteari emotea, ta alkarregaz egon nai izatea: maitariak, gaiñera, alkarren antzeko izan nai dabe, ta, al izan ezkerok, biak bat egin. Baiña pekatari zikiñok, zelan izan Jesus garbiaren antzeko? Ementxe agertzen da orain-

dagiño geiago Jesus'ek Sakramentu onetan erakutsi euskun maitetasuna.

Jakiña da jatekoak daukan indarra, artzen dauanaren izakerea aldatzeko; ta janari garbi ta sendoak artu dagizanak, garbi ta sendo azten da berez, beste zerbait etorri ezik. Eta Jesus'en guraririk biziena gu bere antzeko egitea izanik, zeruko Aitak be seme-ordekotzat ezagutu ta, Bera lez, zeruko jabegei izan gaitazan, zer egin eban? Janaritu bere gizatasun eta jaungoikotasun oso-osoaz; eta suak egurrari egiten dautsan antzera, apurka-apurka gure izakerea kendu ta bere izakerea geurearen tokian sartu.

Zelan, esaterako, gordeten dira ain garbi gazterik asko? Zek daukaz erre-usaiñik baga, asko ta asko erreten dauzan loikerizko su gaitzaille-artean? Badakigu: sarri ta ondo gerturik artzen dabe Jesus'en Gorputz garbi ta Garbitzaillea; ta orregaitik, Jesus dauke euren pentzamentuetan, Jesus gurarietan, Jesus berbetan, Jesus egikunetan, eta Jesus'en irudi-antzeko eginda gelditzen dira. Ementxe da indar gutzia: Jesus'en antzeko izateko, ta, batez bere, garbiak izateko, ez dago Sakramentu au sarri artzea lakorik. Ondo daki au gure arerioak; orretxegaitik aldentzen dauz asko Sakramentu Garbitzaille onetatik. Orretxegaitik aldentzen dira garbiak izan nai ez dabenak, gazteak batez bere.

Negargarria da jazoten dana: ainbeste maitetasun eta alegiñez ipiñi Jesus'ek gure biotzen loikerizko sua amatetan dauan iturri garbi ta gozatsua, ta guk urreratu be nai ez; eta oraindagiño txarrago: ezin gar-

biak izan gaitekezala pentzau geure barruan, Jaun-goikoari errua ezarri guraz-edo... Gogorra izan bear gero gure auzia (juizioa)!

Ez da oraindiño agortu Jesus'ek Sakramentu Santu au emokeran erakutsi euskun maitetasunezko oxiaña

NOIZ emon euskun? Judas'ek, Jesus'en amabi apostoluetariko batek, arerio ain gogorrai saltzeko asmotan ziarduanean; apostoluen burutzat aututa eukanak, ukatu bear ebanean; beste guztiak here arerioen eskuetan itxi, ta igesiari emon bear eutse-nean; idazlari, pariseo ta Judarrak Bera galtzeko asmatzen ziarduanean; Nekaldi (Pasiño) ta eriotza ain lotsagarria igaro baiño ordu batzuk lenago: *Priusquam pateretur*: esatea: «Gizon maiteok: Ni lurretik zelan jaurti asmatzen diarduzue? Alperrik! Neuk ipiñiko dot oraintxe berton Sakramentu bat, mundua mundu dan artean zeuekin egoteko».

NOIZ ARTE egongo zara, Jauna, esker-txarrekoon artean? Ez zara aspertu onenbeste urtean gure artean egoten, batez be guk Zu ain txarto artuta? Ez! Ez da Jesus'ek dauskun maitetasuna mundu-zaleena baizen ariña, aize-orratza (beletea) lez batera ta bestera dabillena, ez-ikusi apur bategaitik, gogoaz besterako utsegin txiki bategaitik, atzeraka egiten dauana. Ez da Jesus damutzen on egin dauskulako: or egongo da beti gau ta egun. Egunez, mundu, dea-bru ta aragiaz darabilgun burrukan guri laguntzeko; gabez lotan gagozanean, amak seme geisoaren loa zaintzen dauan baiño arduratsugoa, gu zaintzeko.

Ortxe dago estutasunetan, zabaltzeko; atsekabeetan, atsegintzeko; ez-jakiñean, erakusteko. Ortxe dago gure ordez bere Aita agurtu, eskerrak emon, gure pekatuakaitik parka-eskatu, ta bear doguzan laguntasunak jadesteko. Eta unetxo baten be aldentzeke egongo da, «omnibus diebus», geldi-geldi gure ondoan,, ama seme-geisoaren oge-ondoan baiño ezarriago. Bai!, luze egiten yako amari ille askotan seme geisoa zaintzea; baiña gure ondoan gu maitatzen egoteari, ez dautso, ez, luze eritxiko Jesus Onak.

Zer egiten dozu, Jesus altsu orrek, gau osoan ixilixilik, bakar-bakarrik, or, argi motel bat lagun dozula? Eta Jesus'ek: «Maitatu zeu, ene semeori; maitatu, ta eten бага maitatu, gartsu maitatu».

Bai, Jesus; neurri guztien gaiñetik maitagarri ori, guganako maitetasunak sartu zenduzan giltzape orretan, guganako maitetasunak zaukaz or lotuta, ta lotuta eukiko zaitu, une baten be itxi bagarik munduaren azkenengo eguneragiño.

NUN EGONGO DA? Uri aundietan bakarrik? Eliza eder, apainduetan baiño ez? *Vobiscum sum*: zeuekaz nago, apostoluen ondorengo guztiakin, abadeagaz batuta dagozan alde guztietan. Basarri txikiak ez dabe Jesus atzeratuko, ezta uri txiroak be. Pozik egongo da gizon-artean egon ezkerro, eliza txiki, erdi-jausi, ta korporal eta kopoe loietan egonarren. Aberats naiz beartsu, jakitun naiz ez-ikasien artean, on eta txarren artean egongo da, ta pozik egon be.

Baserritar batek itandu eutsan konde baten errian euskal-jatorriko Jesus'en Lagundiko santu ta jakitun

bati, A. La Puente'ri: «Zelan egon daiteke Jesukristo Sakramentuan erri onetan, onen txikia izanda?» Eta jakitunak erantzun eutsan: «Eta zelan dago kondea erri onetan, txikia izanarren? —Berea dalako. —Ba, berea dalako dago Jesus be Sakramentuan erri onetan, naizta onen txikia izan», erantzun eutsan jesuiteak.

Bai! Sortzaldetik sartzaldera, iparraldetik egoaldera, Jesus'enak gara, Aitak beretzat emonikoak, bere Odolaz erosikoak; eta orretxegaitik, ezin baka-riik itxi gaitu. Eta eguzkiak zelanbait berotzen ez dauan erririk ez dagoan antzera, ez dago erririk gure arimetako eguzki au bagakorik be.

Munduaren zoritxarra, Sakramentu Santu onegaitik ez ba'litz! Benetan itzela, illuna, otza ta illa izango litzakela lurra eguzkirik ez ba'lego! Itzelagoa, illunagoa, otzagoa ta illagoa izango litzake gure arimetako mundua, eurak poztu, argitu, berotu ta biztuten dauzan Eguzki eder onegaitik ez ba'litz. Nok eskatu orduan gure alde, bear dan bestean? Nok bigundu gure eguneroko gaiztakeriz biztuten dogun Jaungoikoaren asarrea? A!, amaika bidar egongo zan Jaungoikoa bere zuzentasunezko ezpatea gure gainean ebalatzen! Zenbat bidar esango ete-eban Noe'ren aldiari lez: «Neuk kenduko dot gizona luraren gainetik?»

Gure pekatuen atsa zeruko Aitagana alde guztietatik igoten dala, egia da; baiña bestetik, alde guztietatik igoten da egunoro, goizean-goizean, Ostia zuria abade jaunaren eskuetan, Jesus Gurutzean

josita Kalbarioan jaso zan antzera, eta orduan baizen askozaz geiago atsegintzen dauala; eta beronen usain gozoak leuntzen dabe Jaungoikoaren asarrea; ta asarrezko uriolaren orde, grazia ta errukizko euriak baiño ez daukuz bialtzen.

## BIGARREN ATALA

### *Gizonen eskertzarra.*

Ikusi dogu ezkutapen bat: Jesus'en gubanako maitetasuna. Ikusi daigun orain beste bat, «semeen eskertzarra».

Aurretiaz jakin ba'litz Jaungoiko aundiak, gubanako maitetasunarren, geugana etorri ta geugaz bizi bear ebalat munduaren amaierate, esaten asiko ziran: «Jaungoikoa bizi gugaz? Eta zelan artu bear izango ete-dogu? Zelan egon bear izango ete-dogu Beraren aurrean?»

Erri batera errege edo agintari nagusia datorrela jakiten danean, bakotxa berak daukana gertatzen asten da. Asko be alegin geiagok gertatuko litzakezala gizonak, esan daiteke, euren Jaun aundia artzeko; ta aren ondoan, a maitatzen, eta aregandik ezin aldentuta egongo litzakezala.

Beraz, kristauok, Jesus'en maitetasunezko egikune arrigarri au ezagutu ta autortzen dabenak, eurak euren eta beste anai guztien izenean goratuko dabe Jesus Ona. Bai? Ikusi dagigun: Zer ikusten dabe nire begiak? Kaleak, ibiltokiak eta beste jolas-tokiak la-gunez beterik dagozala. Sartzen naz, ostera, elizan,



eta banaka batzuk baiño ez dakustaz; eta egiten dot: kale orretan, enparantza edo plaza orretan dabizanak, kristiñauak dira? Zelan izten dabe, ba, ain bakarrik euren maitetasunez gau ta egun altara barruan dagoan Jaun aundia? Egongo dira gizonak eliz-ondoan aldia zelan emon ez dakiela; ta unetxo bat be ez dabe izango euren Jaunari agur egitera sartzeko.

Beste asko, orregaitiño, sartu egiten dira. Baña, zelan egon? Asko alde guztietara gogoia banatuta, ganora бага, beste edozein tokitan bai'egozan; eta euren maitasunez Biotza erreten daukan Jaunari berbatxo bat be esateke (esan бага) urtengo dira. Ez gitxi, alboetara begira, nor sartu ta nor urtetan dan ikusten, barreka, berbetan. Batzuk, pentzamentu loietan, kentzeko alegin aundirik egiteke. Baita gogapen eta gurari txarretan be aurkitzen dira, ta noiz-pait berbeta zatarretan be. Urten! Urten elizatik! Pekatu egin nai dagiana, doiala nai dagian tokira; baiña ez daitela Jaun andi onen aurrera etorri, bere jarleku itzeltsuaren oiñetaraiño, bera atsekabetzera, iraintzera.

Eta lotsabagakeri au onen aundia ta lureko errege bati norbaitek egingo ba'leuskio, bere buruaz ordaindu bear izango leukena izanik, zer esan arako emakume arro ta ero, ez bururik, ez lotsarik ez sinismenik be ez daukenakaitik? Apain-apain eginda sartzen dira elizan, batera ta bestera begira doaz eratasun (modesti) apurrik бага, guztiak ondoen ikusteko tokian gelditu arte. Zer da lotsabagakeri

au? Gure Jauna garaitu nairik al doaz, Berari dagoizozan gorapen, begi ta biotzak ostuten? Izan daiteke au baiño irain andiagorik? Oraindiño bai, ta zoritxarrez jazoten dana.

Pekatu astunean dagoanak, deabru bat lez dauko bere arimea, loituta, atsituta, deabruen bizileku egin-da. Eta onela egonarren, batzuek urreratu altara-aurrera, atara miña, ta, Judas'en antzera, Jesus Ona bere ererio deabruaren erpeetan jarten dabe. Zer egingo ete-dau Jesus ain garbiak eta garbizaleak an, pekatutzan, basatzen lez?

Aingeruak eta zoriontsuak zeruan, eta lurean gizon on eta zuzenak agurtu ta goratu zagiezela, Jesus maitagarri ori. Ez al zekian, Sakramentuan geratu aldian, gizonak egingo eutsuezan gaiztakeri guzti oneik? Bai, guztiak eta argi-argi ikusten zenduzan; baiña, gure gaiztakerien urak ezin itzali (amatau) izan eutsuen zure Biotzean zeukan guganako maitetasunaren garra, gar ori geiago ta geiago biztu baiño.


Eta nik, Zu, Jesus on ori!, maitatu ez, batez be altarako zokondo orretan? Etorri ez ni sarriago Zu ikustera, itzelez egon ez zure aurrean, eta batez be, sarriago ta obetoago gertauta artu ez nik Zu?

Biotz-biotzez maite zaitut, Eukaristiko Jesus'en Biotz ori; maite zaizela lureko gizon guztiak be. Noiz ekarriko dozuz, Jauna, zure aurrera Zugandik aldunduta dabizan ainbeste nire anai maite? Bitartean, euren izenean be, biotzez maite nai zaitut eta poztu bere bai eurakandik artzen dozuzan atsekabe-

en orde. Jesus, nire maitetasunez ogi-antzean estal-  
dua! Zeu izango zara nire zerua lurrean, Zeu izango  
zara nire zoriona zeruan, estalki baga zure Arpegi  
ederra ikusi dagidanean. Olantxe.

A. M. D. G.

«Jaungoikoaren aintzarik aundienerako.»



## BILLABIDEA

### LENENGO ASTEA

Orri

Lenengo gogartea: Gizonaren jatorria ta el- burua ... ..	7
Bigarren gogartea: Salbaziñoa ... ..	13
Irugarren gogartea: Beste izaki ta gauza guz- tien elburua ... ..	12
Laugarren gogartea: Iru pekatuak ... ..	30
Bosgarren gogartea: Bakotxa beraren pekatuak.	37
Seigarren gogartea: Pekatu ariñarena ... ..	48
Zazpigarren gogartea: Inpernuko atsekabeak ...	53
Zortzigarren gogartea: Eriotza ... ..	67
Bederatzigarren gogartea: Kristau zuzenen eta gaiztoen eriotza ... ..	77
Amargarren gogartea: Bakotxa beraren auzi edo juizioa ... ..	84
Amaikagarren gogartea: Guztion azken-auzia.	92
Amabigarren gogartea: Seme ondatzaillearena.	103

**BIGARREN ASTEA**

Amairugarren gogartea: Jesus'en Gizakundea. 116  
 Amalugarren gogartea: Jesus'en Jaiotza ... .. 124  
 Amabosgarren gogartea: Jesus, Andra Maria ta  
 Jose'ren bizikera Nazaret'en ... .. 113

**IRUGARREN ASTEA**

Amaseigarren gogartea: Jesus'en Nekaldi edo  
 Pasiño santua ... .. 139

**LAUGARREN ASTEA**

Amazazpigarren gogartea: Jesus'en linbora ja-  
 tsiera ta Berbizkundea ... .. 174  
 Amazortzigarren gogartea: Altarako Sakramen-  
 tu Santuarena ... .. 180

1963'garren urteko  
 Gabonillean  
 amaitu zan  
 «Gráficas Bilbao»  
 irarkolan.  
**BILBAO**

## EGILLEAREN BESTE ZERBAIT

ORBELAK.—(1958). 20 peseta. (Agortuta).

BITARGI.—(1960). 25 peseta.

JESUKRISTO GURE JAUNAREN BARRI ONA (Ebanjelioak).—(1960-1961).

Ale merkea  $\left\{ \begin{array}{l} 15 \text{ peseta.} \\ 20 \text{ peseta, plastiku-azalaz. (Agortuta).} \end{array} \right.$

Ale apaiña: 25 peseta.

APOSTOLUEN EGIÑAK.—(1961). Ale merkea: 10 peseta. (Agortuta).

Ale apaiña: 15 peseta.

EGUNEROKO MEZA (Missale Romanum, osorik).—(1963). Ale merkea: 74 peseta.

Ale apaiña:  $\left\{ \begin{array}{l} \text{narruzko azalaz: 175 peseta.} \\ \text{narruzko azala ta urrezko} \\ \text{ertzak: 200 peseta.} \end{array} \right.$

\* \* \*

## ARGITARATZEKO ASMOTAN

ALKARTASUN BARRIA (Novum Testamentum, osorik).

UDAZKEN (olerki eginbarriak).

EUSKALERRIA (itz-lauz).—Abizenen oiñetxeak; aitorsemetasun-agiriak (pruebas de hidalguía), non eta noiz; abizenen esanai edo biurpena; abizen bakoitzaren ikurdi edo mazmarroa (escudo de armas)... Amasei milla euskal-abizen inguru.